goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-04-15
EGUBAKOITZA
461. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

Elgetako bonbardaketa argazkitan ikus daiteke Espaloian | 5

Jon Agirre: maiatzaren 3an aske, 30 urteren ostean | 27

Erramu-zapatuko feria egingo dute bihar, Bergaran, 09:30ean hasita | 16

Antzuolako armarriko erregea Gipuzkoakotik hartu zuten | 24

Aitor Mendizabalek lau t'erdiko bigarren txapela jantzi du aurten | 28

Gauez pasa arren, korrikalari asko batu ziren Bergaran.

Oñatiko Ulmako langileak.

Txatxilipurdiko langileak, Arrasatetik Aramaiorako bidean.

Askotariko adineko jendea izan zen.

Patxi Uribarren, Korrikako omendua.

EUSKALAKARIEN INDARRA

Harrera beroa egin zioten atzo milaka debagoiendarrek Korrika 17ri. Hunkigarria eta jendetsua izan zen. Lasterketa 05:00etan sartu zen gurera Bizkaiko mugatik, eta Deskargatik gora bailara atzean utzi ostean, Udanatik behera, Debagoienera sartu zen ostera ere goizean. Bost ordutan gainerako herri guztiak bisitatu zituen. Etzi bukatuko da Donostian | 4

Euskalakari asko hunkitu ziren lasterketako lekukoa hartzerakoan; goiko irudia Aretxabaletan aterata dago. | ARGAZKIAK: GOIENA

SINADURAK

MIKEL LEZAMIZ | 6

6 | LARRAITZ ZEBERIO

OIER ETXEBARRIA | 22

25 | IGOR ARIZMENDIARRIETA

AINTZANE OIARBIDE | 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

"Lopezen eta Basagoitiren arteko harremanak onak eta zintzoak dira"

Idoia Mendia | Eusko Jaurlaritzaren bozeramailea | 8

Bakearen aldeko erromesaldia Arantzazura bihar

09:30ean abiatuko da, Munilla gotzaina buru dela | 5

SEAT
EXEO ST

120 ZP
2000 TDI
23.000 eurotik aurrera

Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70
SEAT

Debagoieneko herrigintzaren etorkizuna gaurko kontua da

- Herrigintza Gaztea delako taldea dago Bagaran
- Dagoeneko ia lau hilabete daroate lanean
- Herrigintzarako tresnak eta metodoak lantzen dira

Arrasateko Emakume Txokoan, EGK kideekin Gazteen gaur egungo errealitatea ardatz ha

Xiberoko Botza irratia ezagutu zuten Maulen.

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bagara prozesua badabil bidea egiten Debagoienean, iazko martxoan sortu zenetik; eta darabiltzan proiektuen artean, indartsuenetariko bat da Herrigintza Gaztea. Bagararen helburua baldin bada, herrigintzan oinarrituta, esperientzia komunitario bat martxan jartzea, Herrigintza Gaztea Bagarak sortutako gazteendako eskola edo mintegi antzeko bat dela esan dezakegu; Debagoieneko herrigintzaren etorkizuna, alegia.

Hogeita hamar gazte inguruk eman zuten izena, baina azkenean, 20 bat laguneko taldea osatu zen, eta bi astean eguazten baten batzen dira, Ion Etxebarria arrasatearra eta Aitzol Loyola debarrarekin, koordinatzaileekin. "Maiztasun handienarekin, 15 lagun etortzen dira, 18 eta 29 urte artekoak. Ikasleak, langileak... denetarik dago. Arrasatekoak, Aretxabaletakoak, Eskoriatzakoak eta Antzuolakoak dira; bestalde, jaiotzez bailarakoak izan ez arren, hemen ikasten dutenei ere eman genien parte hartzeko aukera, eta hemen unibertsitatean dabilen Getxoko partaide bat daukagu", diote.

Gai sozialekiko kezka eta gizarte eraldaketarako grina izatea, horixe dute oso antzeko partaide guztiek: "Bagararen oinarri eta iparrak – euskalduntasuna, iraunkortasuna, elkartasuna eta autoeraketa– konpartitzen dituzte eta askotariko esparrutan aritzen dira lanean: aisialdian, kulturan, feminismoan, gazte mugimenduan...", horrelakoak dira Herrigintza Gazteko kideak.

Tolosara eta Iparraldera

Eskola berezi horren ikasturtea aurtengo urtarrilean hasi zuten, eta ekainera arte jardungo dute parte hartzen dabiltzan gazteekin; hortaz, egutegiaren erdia baino zertxobait gehiago dagoeneko egin dute. Bagara mugimenduaren lau oinarriak aintzat hartuta, denetariko gaiak landu dituzte.

Hala, orain arte jardun dute egungo errealitateaz, azterketa kritikoa eginez; bestalde, euskalgintzaz –hizkuntzen ekologiaren ikuspuntuan eta TELP tailerretan oinarritutako beste saio bat–; eta aste bukaerako bi irteera ere egin dituzte. Horietako baten, autoeraketan oinarritzen den gazte esperientzia bat ezagutu zuten bertatik bertara: Tolosako Bonberenearena, hain zuzen ere. Bestean, Iparraldera joan ziren, eta zenbait esperientziaren berri ere jaso zuten: hango gazteekin trukea, Xiberuako Botza irratia ezagutu...

Protagonisten ahotik

Egitarau hori ikusita igartzen da Herrigintza Gaztearen ezaugarrietako bat: "Saioak eta edukiak modu parte-hartzailean gauzatzen saiatzen gara". Finean, "gure helburua herrigintzan airtzeko baliagarria izan daitekeen formazio gune bat antolatzea izan da", azaltzen du Aitzol Loyolak. Ion Etxebarriak honakoa gaineratzen du: "Arlo

DATUA

20

KIDE

Bailaran bizi edo ikasten duten 20 gazte dabiltza Herrigintza Gaztean.

Herrigintza Gaztea, labur

IKASTURTEA
Urtarrilaren 12an izan zuten aurkezpen saioa, eta ekainaren 15ean bukatuko dute.

SAIOAK
Aretxabaletan, Galartzan, hiru orduko mintegiak egin izan dituzte, eta hilean behin, Debagoieneko herri baten egin izan dute. Bi aste bukaeratan, irteerak egin dituzte.

HELBURUAK
Herrigintzaren esperientziak ezagutu, munduko klabeak ulertu, datozen desafioak ikusi eta herrigintza berri baterako tresnak lantzeko aukera ematea gazteei.

OINARRI-IPARRAK
Euskalduntasuna, iraunkortasuna, elkartasuna eta autoeraketa.

ARRASATEKOBASERRIKO PRODUKTUENAZOKA
09:00-14:00 Seber Altube Plaza
HILEKO 3. ZAPATUAN

2011
apirilak 16

maiatzak 21
ekainak 18
uztailak 16
irailak 17
urriak 15
azaroak 19

Antolatzailea: Arrasateko Udala Ayuntamiento de Mondragón – Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea: ibai-arte
Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizuete.

rtuta izandako saioa, 2011ko urtarrilean.

Hizkuntzen Ekologiaren gaineko saioa Amaia Anterorekin.

Amaiurko gazteluan, bertako gazte birekin. | ARGAZKIAK: HERRIGINTZA GAZTEA

ION ETXEBARRIA ETA AITZOL LOYOLA | ARDURADUNAK

"Testigantzak indar handia dauka, aurrekoek zer egin duten entzutea"

Herrigintza Gazteko koordinatzaileak pozik daude orain arteko emaitzekin.

Herrigintza Gazteko kideek ezagutzen zuten Bagara?

Ion Etxebarria: Entzunda bai, iazko martxoan aurkeztu zenetik; eta Herrigintza Gaztea ere bai, deialdia egin genuenetik. Gero, aurkezpen egunean berriro gogorarazi genien. Azken baten, forma hartzen dabilen proiektua da Bagara. Azaldu genienean, eurek ere bat egiten zutela ikusi zuten.

Aitzol Loyola: Bai, eta Bagara aurrera doan heinean eurekin konpartitzen dugu, eta eurek ere sortzen diren proiektuetan parte hartzea edo ideia berriak proposatzea gustatuko litzaiguke.

Zelan egiten duzue lan?

I.A.: Urtarrilaren 12an Aretxabaletako Galartza etxean batu ginen, eta harrezkero bi astean behin batzen gara. Izan gara Euskadiko Gazteria Kontseiluko bi kiderekin, Arrasateko Emakume Txokoan gaur egungo errealitateaz solasaldia izan genuen, hizkuntzen ekologiaren gaineko bi saio egein ditugu, Garabideren inguruan ere jardun dugu; bailarako bi intsumisorekin solasaldia ere egin dugu, eta bi irteera. Gero, hori dena blogean batzen dugu (*bagaraherrigintzagaztea.wordpress.com*).

A.L.: Gure ideia da ezagutza, hausnarketa eta sormena ahalbidetzen duten saioak egitea; hau da, herrigintzarako baliagarria den gaietan formatzea, modu parte-hartzaile batean egitea eta ikusitakoa praktikan erabiltzea. Zentzu horretan, testigantza pertsonalak indar handia izaten ari dira: bailarako ikastoletako sortzaile baten testigantza entzun genuen, bi intsumisorena, Iparraldean, bailaratik hara orain 40 urte joandako pertsona batena; asmoa dago kooperatibetan ardura izan duen pertsona batekin ere egoteko, munduan zehar lankidetzan aritu den pertsona bati entzuteko...

Herrigintza Gazteko bi koordinatzaileak. | LEIRE KORTABARRIA

Orain arteko gaiak eta datozenak

EGUNGO ERREALITATEA
Jendartearen azterketa kritikoa egin zuten, lau arlotan: etxebizitza, lana, aisialdia eta hezkuntza.

EUSKARA
Hizkuntzen ekologiaren ikuspuntua ikusi zuten: munduko hizkuntza bakoitzarendako lekua aldarrikatzen duen teoria.

PROTAGONISTEKIN
Protagonisten lekukotasuna jaso zuten: bailarako bi intsumiso, Bonbereneako bultzatzaileak, Iparraldeko gazteak...

DATOZEN ASTEOTAN
Saiolanen laguntzarekin, ekintzailetasuna landuko dute; aste bukaera bat eurek gestionatu beharko dute...

teorikoak jorratzen dira, baina esperientziak ere ikusi izan dira. Adibidez, Tolosan etxe autogestionatuaren eredua ikusi genuen; Eneko Aritza kultura taldearekin ere egon ginen, filmak autoeraketa bidez egiten dituena; Iparraldeko gazteekin egon ginen...".

Herri arteko topagunea

Ekainera bitartean, parte-hartze esperientzien berri jasoko dute protagonisten ahotik, eta parte-hartze teknikak entseatuko dituzte; gero, ekintzailetasuna landuko dute, Saiolanen laguntzarekin; beste aste bukaera bat gazteek eurek kudeatu beharko dute; eta, azkenik, beste gizarte mugimendu batzuk ezagutuko dituzte, Brasilgo MST (Movimento dos Trabalhadores Sem Terra, lur bako nekazarien mugimendua) kasu.

Gero, datorren urtera begira jarriko dira. "Asmoa da lehenengo edizio hau beste gazte batzuekin errepikatzea; eta, bestalde, aurtengo talde honekin datorren urtean zer egin edo nola jarraitu dezakegun guztion artean hausnartzea", azaltzen dute Ionek eta Aitzolek.

Modu batera edo bestera, Herrigintza Gazteak dagoeneko eman du fruiturik: Debagoieneko gazteen arteko topagune bihurtu da, herri desberdinetako gazteek elkar ezagutzeko balio izan du, "eta gazteek eurek asko baloratu dute hori", dioskute koordinatzaileek.

Bestalde, dagoeneko herrigintzan dabiltzan gazteak izanda, aurten ikasten dabiltzan trebeziak eta baliabideak dagoeneko erabili ahal izango dituzte euren eguneroko lanean edo dabiltzan beste arloetan.

Debagoienak ez zuen hutsik egin: milaka lagun batu ziren euskararen alde korrika

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Maitatu, ikasi, ari... Euskalakari. Kantuan sartu zen goizeko ordu txikietan Korrika 17 gurean. Elorrioarrek elgetarrei entregatu zieten lekukoa 05:00etan, hamar bat minutuko atzerapenarekin. Ume eta guraso gutxirekin baina aparteko giroarekin Asentziorantz abiatu ziren korrikalariak; Angiozarkoak urduri zituzten zain. Ilunpean, azkar jaitsi ziren Bergarara.

Ordurako jendetza zegoen plazan; indarrak hartzeko salda, txorizo eta txokolatea zuten. Harrera beroa egin ostean, Antzuolarako bidea hartu zuen, eta handik Deskargatik gora atzean utzi zuen Debagoiena. 10:00etan, Udanatik behera, Oñatin sartu zen. Harrigarria txantxikuarrek egindako harrera. Ziztu bizian Elorregirantz abiatu ziren, eta aurreratuta zebiltzanez, Fagorreko biribilgunean hainbat bueltan eman zituzten, denbora egiteko. Arrasateko sarreran ere, Epele eta Eroskiko biribilguneen artean bi buelta eman zituzten arrazoi beragatik. Arrasateko kaleetan ere jende asko batu zen, aulkitxoan zeuden umeak, gazteak, helduak, aitita-amak...

Aramaion aldapa gora bertsotan hasi zen txirrindularia izan zuten lagun. Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere jendetza batu zen eta penaz laga zuen Korrikak Debagoiena. Joan nahi ez zuela-eta, Leintz Gatzagan furgonetari bultza egin behar izan zioten.

Oskar Elizburu: "Ikaragarria da"

Debagoieneko AEKko koordinatzaile Oskar Elizbururen esanetan, "ikaragarria izan da, jende guztia harrituta geratu da parte-hartzearekin: politikoak, langileak, ikastetxe guztietako ikasleak....". Horren harira, azpimarratu du aspaldi ez zela bailaratik eguerdian pasatzen, eta horrek eragina izan duela. Dena aurreikusi bezala irten zen.

Elgetatik sartu zen Korrika bailarara; irudian, Haritz Gallastegi lekukoarekin.

Aurten lehenengoz iritsi da Angiozarrera. Irudian, Joseba Perez lekukoarekin.

Lekukoa Bergaratik pasatzen.

Euskalakariak, Antzuolan.

Goienako lankideak pozik.

Goseko Ines Osinaga, Arrasaten.

Dantzariak ere animatu ziren Aramaion.

Adina zen gutxienekoa Aretxabaletan Korrikan parte hartu zutenen artean.

Beti barre Eskoriatzan.

Gatzagarrak aldapa gogorrak igotzen.

Arratsaldean jasotako omenaldian, aurreskua egin zioten Patxi Uribarreni. | ARGAZKIAK: ANDONI GOITI, BERNAT ALBERDI, IRATI GOITIA, AMAIA TXINTXURRETA

Martitzeneko aurkezpenean parte hartu zutenak, Intxortan aurkitutako SC bonba alemanaren ondoan. | E.M.

Elgetako bonbardaketaren gaineko argazki erakusketa

Toribio Jauregi eta Indalecio Jauregiren argazkiak tartean

EDU MENDIBIL | ELGETA

Espainiako gerran Elgeta bonbardatu zutela 74 urte bete diren honetan, argazki erakusketa zabaldu zuten atzo Espaloia Kafe Antzokian. Aste Santu ostera arte izango da zabalik. Bertan, gerraren aurretik Elgeta zelakoa zen, bonbardaketek eragindako kalteak eta ondorengo herri eraikitzea ikusi ahal izango da. Toribio Jauregi bergararraren, Indalecio Oianguren eibartarraren eta Santa Maria del Villar markesaren (gobernuaren enkarguz lan egin zuena) irudiak dira, eta argazki ikusgarriak daude.

Bonbardaketako argazkiak

Intxorta 1937 kultur elkarteak, Gerediaga elkarteak eta Udalak hartu dute parte. Gernikako alkate Jose Luis Gorroño ere izan zen martitzeneko aurkezpenean. Gerediaga elkarteko Jon Irazabalek azaldu zuenez, Durangoko, Elorrioko eta Elgetako argazki batzuk topatu dituzte Italian, Erroman, 1937ko apirilaren 23an Saboya 81 hegazkin italiarretik ateratakoak. "Elgetako bi irudien artean segundo bakar bat ere ez dagoela esango nuke eta argi ikusten da Elgetako biztanleria zibila izan zela objektiboa egun hartan. Elgetako plaza justu-justu ikusten da eta inguruan bonba ugari. Aurretik, irailaren 26tik apirilaren 23ra, 209 egunez, txoko gogor bat izan zen Elgeta".

Intxorta 1937 taldeko Josuren Murgizuren arabera, alemanen eta italiarren bonbardaketaren erruz, Elgeta ia erabat suntsitu zuten eta Elgeta berreraikitzeko agindua eman zuen Franco diktadoreak 1940ko martxoaren 10ean: "Hala ere, 1944ra arte ez zuten ezer egin eta 1944ko bukaeran hasi ziren udaletxea berritzen. 1946an inauguratu zuten udaletxea eta bien bitartean elgetar asko ez ziren jaioterrira itzuli 1950eko hamarkadara arte".

Jose Luis Gorroño Gernikako alkateak hauxe adierazi zuen martitzenean: "Memoria historikoa ez da inoiz galdu behar eta transmisioa funtsezkoa da, gure ondorengoek gertatutakoa ezagut dezaten; gure aurrekoek gurekin egin zuten moduan. Alemaniako Parlamentuak 1997ko martxoan aitortu zuen orduko gertaerekin Alemaniak zuen errua eta Madrilgo Parlamentuari ere keinu bera egitea eskatzen gabiltza aspaldian". Atzoko irekiera ekitaldian Bide Ertzean musika taldea eta Elgetako Musika Eskolako ikasleak parte hartzekoak ziren.

Elgetan, 1937ko apirilean

1937ko apirilaren 20an, 22an, 23an eta 24an izan ziren bonbardaketak Elgetan. Horren lekuko, SC bonba alemana, 50 kilokoa, Intxorta inguruan topatutakoa. Euskal Herrian mota horretako bakarra da. Beste lekuko bat, argazkiak: *Elgeta, eremu suntsitua* izenburuko erakusketa apirilaren amaierara arte izango da zabalik Espaloia Kafe Antzokian.

Mankomunitatea pozik Antzuolako atez atekoaren erantzunarekin

E.M. | ARRASATE

Orain dela hilabete jarri zuten martxan atez ateko bilketa sistema Antzuolan eta Mankomunitatea pozik azaldu da jasotako erantzunarekin. "Gai organikoaren %100 bereiztuz, errefusa nabarmen jaitsi dugu eta gaikako beste bilketetan igoera oso garrantzitsuak izan ditugu. Bilketa guztietan oso kalitate handia lortu dugula; hau dena kontuan izanda, egin beharreko lehenengo gauza antzuolarrak zoriontzea da", diote Ingurumen Zerbitzutik.

Berrerabilpena bultzatu

Orain arte Antzuolan erabilitako zaborrontziak gaikako koloreekin margotu, multzoka jarri eta kaleko hondakinak gaika jasotzeko berrerabiliko dituzte. Lehengo 140 zaborrontzietatik, berritu eta margotu ondoren, 92 aprobetxatuko dira eta launaka jarriko dira herriko 23 puntutan banatuta.

Udaletxe ondoan jarritako zabor-ontziak. | MANKOMUNITATEA

Gotzainarekin ohiko erromesaldia Arantzazura bihar, Aste Santuaren atarian

E.M. | ARRASATE

Aste Santuaren atarian ohikoa denez, Donostiako Elizbarrutiak antolatuta Arantzazura erromesaldia egingo da bihar, zapatua. Martxa 09:30ean irtengo da Oñatitik eta Arantzazuko Santutegian izango du amaiera. Han, otoitzaldia eta ekitaldi xume bat egingo dira eta Jose Ignacio Munilla gotzainaren bedeinkapenak jarriko dio amaiera egunari.

Otoitzean igoera

Ibilbidean zehar 165 bozgorailu ezarriko dira, partaide guztiek otoitzean, gogoetan eta kantuan egin ahal izan dezaten igoera. Urtero bezala, autobusak irtengo dira Oñatira Gipuzkoako parrokia guztietatik. Milaka lagun batzea espero dute antolatzaileek. Oinez igotzeko zailtasunak dituztenendako, Oñatitik autobusean igotzeko aukera izango da.

Maiatzaren 8an Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute ibarreko euskara elkarteek

Herri Urratseko aurtengo ekitaldia Senperen ospatuko da maiatzaren 8an, *Laku bat munduan* lelopean. Debagoieneko euskara elkarteek autobusa antolatu dute Iparraldeko ikastolen aldeko jaira joateko. Irteera orduak hauek izango dira, ohiko lekuetan: Aretxabaletan, 08:45ean; Arrasaten, 09:00etan; eta Bergaran 09:15ean. Itzulera 19:00etan izango da. Prezioa: 10 euro euskara elkarteetako bazkideendako eta 12 euro gainerakoendako. Izenematea: euskara elkarteetan, maiatzaren 5a baino lehen.

Ospitaleko murrizketen aurka

ELA, LAB eta ESK sindikatuek osasun publikoaren aurka ezartzen ari diren murrizketen aurka elkarretaratzea egin zuten eguaztenean Debagoieneko ospitalean. Murrizketok zuzen-zuzenean ospitaleari eragiten diotela salatu zuten parte-hartzaileek.

E.M.

ZABALIK

MIKEL LEZAMIZ
'http://goiena.net/iritzia/'

Zentral nuklearrak: bat ere ez

Japoniako Fukuxima herrian gertatutako arazo larria zentral nuklearrarekin ezin dugu ahaztu eta gure bizitzarekin aurrera jarraitu, oso urrutian gertatu bezala eta hemen ezer ere ez. Japonia urruti dago, bai, baina mundu honetan zentral asko dago eta ezin dugu gure seme-alaben eta iloben etorkizuna zapuztu. Txernobil ere urruti dago, baina hango egoera latza ikusten hasiak gara jendearengan.

Beti egon naiz zentral nuklearren aurka, Deban jarri behar zutenaren aurka, Lemoizen aurka, Garoñakoaren aurka eta nuklear guztien aurka.

Eta beti esan izan dut nahiago dudala bizi kalitate okerragoa edukitzea eta egunero ordu batzuk argindarrik gabe bizitzea.

"Nahiago dut egunero ordu batzuk argindarrik gabe bizitzea"

Nahiago dut pedalei emanez argia sortzea, zentral kutsagarriak erabiltzea baino.

Energia berriak eta berriztagarriak ikertzeko ahalegin gutxi egiten jarraitzen dugu.

Duela hogei urte hasi izan bagina sektore honetan gehiago ikertzen eta inbertitzen, orain ez ginen ibiliko beldur hauekin.

Baina non dago koska sektore honetan ez inbertitzeko?

Energia berriztagarri gehienak kontrola ezinak dira botere ekonomikoengandik, eta ez zaie interesatzen ezin badituzte kontrolatu.

Eta, arez gehiago, oztopoak jartzen saiatuko dira beraien kontrola izaten jarraitu dezaten.

Garoñako zentrala itxi egin behar da lehenbailehen, eta baita beste guztiak ere, segurtasun baliabideak ez direlako inoiz nahiko izango akats pertsonalen aurrean eta naturaren indarraren aurrean (lurrikarak, tsunamiak, eta abar).

Bestalde, garbi dago interes ezkutuak (ekonomikoak batez ere) izaten direla gelditu ez daitezen nahiz eta arazoak egon, eta ez gara inoiz lasai egongo horrelako zentral bat gure etxe ondoan izanik.

USTEAK USTE

LARRAITZ ZEBERIO | 'lzeberio@goiena.com'

Lanuzteak haurreskolan

Bi lanuzte egin dituzte azken asteotan Haurreskola Partzuergoko langileek, LAB, STEE-EILAS eta ELA sindikatuek deituta. Zerbitzu horren erabiltzaileak gara etxean eta orain arte sindikatuek bidalita jaso ditugun ohar informatiboetan protestaldiekin "ulerkorrak" eta "lagungarriak" izateko eskatzen digute. Egunero 2 urteko umea uzten dut haurreskolan eta nik ere zerbitzua ona izatea nahi dut. Horregatik eta zerbitzuaren kalitateak hainbeste egin badu atzera, atentzioa ematen dit sindikatuek gurasoengana ez jotzea. Bilera bat egin, egoera zein den azaldu, aldarrien nondik norakoak agertu... Akaso, gurasoek ere badugu zer esan edo zer egin.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | 'http://goiena.net/iritzia/'



HANDIK ETA HEMENDIK

Aldatua aldatzen ez jakitea

Aitor Manterola
http://berria.info/blogak/

Okerrak zuzentzeko. Astebururako lan hauek jarri nizkion neure buruari: Realaren eta Osasunaren jarduna zehatz aztertzea. Luparekin. Aurreko jardunaldian zenbait gauza oker egin zituzten, eta zuzendu dituzten ikusi nahi nuen. Oker horien berri Jose Luis Mendilibarrek eman zuen, bere taldeaz ari zela, aurreko asteburuko partidaren ondoren. Martin Lasartek ez zuen halakorik egin, baina nabarmena zen zerbait aldatu eta asko zuzendu behar zuela igandera begira. [...]

Marrazkiaren zirriborroa. Lasartek jokalariak aldatu zituen. Marrazkia ere bai. Eta marrazki berriak taldeko taktikan eragina izan zuen. Rivasen eta Zurutuzaren ordez, Markel eta Elustondo atera zituen. Ohiko 4-2-3-1 marrazkia 4-1-4-1 bilakatu zen. Eta marrazki hori egokia denez aurkariari bere zelaian presionatzeko, aukera hori baliatzen saiatu zen taldea. [...] Marrazkiaren gaiari helduko diot. Esan dut zertarako den egokia, baina marrazki guztiak bezala, desegokia ere badu zerbait: lerroak atzeratu eta egoera horretan defendatzeko ez du balio. Lauko bi lerroen artean zulo asko gelditzen da euskarriaren bi alboetara. Ederki baliatu zuen hori Atletico Madrilek, barrutik jokatzeko, Reala ez baitzen gora iristen, presioa han egiteko. Eta lerroak atzeratuta eduki behar izan zituenez, marrazkia ez zen egokia lan hori egiteko. Hor izango naiz kritikoa Lasarterekin. Ikusirik marrazkia ez zela egokia etxekoen jokoa gelditzeko, beste zerbait marraztu behar zuen une horretan.

Euskarriei boikota. Osasunak kale egin zuen etxeko partidan, eta kale egin zuen, besteak beste, alor honetan: erasoan, jokoari hasiera ematen zaion eremuan, atzelariak eta zelai-erdikoak bat egiten duten leku horretan, makina bat aldiz galdu zuen baloia. Herenegungo jardunerako hobetu beharra zeukan hori. Hobetu ez, aldatu egin zuen, euskarriei boikota eginez. Lau atzelariek baloia zutenean, euskarriak ez ziren jaisten baloia eskatzera. Atzelarien ardura zen baloia gorago igoaraztea. Aurreko partidako arazoa kolpetik akabatzea da hori. Sportingeko aurrelariek Osasunako atzelariei presiorik egin ez izanak ere eragin zuen egoera berria. Gabezia konpontzea ez da, baina etxeko partidan baino zailtasun gutxiago izan zituen taldeak horretan. Beharko izan! Baina beste bat azaldu zen igandean: atzelariek baloia zeukatenean, baloiaren aurretik zeuden jokalariak ez ziren asko mugitu, eta ezin paserik jaso horrela, ezin jokoa lotu. Eta halakoetan erabaki bera hartzen dute ia beti atzelariek: joko zuzena erabiltzea. [...]

Denok ulertzeko moduan. Ezin nuen ikusi Athletic-Real Madril partida. [...] Emaitzaren berri izatean, hor bertan, eta gero, Mourinhoren estrategiaren berri izatean, alor horretan. Joaquin Caparrosek azaldu zuen prentsaurrekoan portugaldarrak zer prestatu zion. Ohi bezala, luzea bota zuen, bata zela, bestea zela, kontraerasoan jokatzera etorri zela Real Madril, horri aurre egiten ez zutela asmatu, talde fisikoa atera zutela kanpotarrek, Pepe euskarrian jarri zuela... Entzuten ari nintzela, pentsatu nuen neure baitan, Caparrosi hizketan ari banitzaio bezala: "Ari haiz esaten sekulako astindua eman diala Mourinhok".

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 1577-1210
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Nuklearrik? Ez! Ez hemen ez inon

Piter Encinas
(Ekologistak Martxan eta Gorripidea taldeetako kidea)
Arrasate

Hondamendi nuklear izugarri hau gertatu behar izan da, trumoien kutxa berriz irekitzeko.

Gauza bat argi geratu da, behintzat: Japoniako istripu nuklearrak erabat deuseztatu ditu energia nuklearra garbia, arriskurik gabea, ez-kutsatzailea eta abar dela diotenen argudioak. Erreaktoreetan izandako leherketek, nukleoen fusioa gertatzeko arriskuak, itxura guztien arabera hirugarren erreaktorean dagoen arrakalak, nazioarteko Segurtasun Nuklearrerako Batzordeek isuri erradioaktiboak izateko arriskua handia dela onartu izanak eta denborarekin azalduko diren beste datu batzuek argi utzi dute argudio ustelak direla horiek. Bide batez esanda: nuklearren alde daudenek energia mota hori defendatzeko erabiltzen duten argudioetako bat da energia nuklearrak ez duela CO2rik sortzen. Bada, horren aurrean, nik diot zentral nuklear bat eraikitzeko bost urte behar direla, 500.000 tona hormigoi behar direla, argindarra, garraioa eta abar behar direla. Ez dago, nik uste, besterik erantsi beharrik.

Hondamendi bat gertatzen denean, era batekoa edo bestekoa izan, gobernuek arras txikiagotu ohi dute kalteen garrantzia, hildakoen kopurua eta abar. Eta Japoniako gobernuak eta Segurtasun Nuklearrerako Batzordeak erradiazio-arriskua benetakoa dela eta zentraletik 30 kilometro baino gehiagora zabaldu dela onartu eta ohartarazi izana, edota kanilako zein iturrietako ura ez edatea eta inguruko baraziak ez jatea gomendatu izana, zerbait oso larria gertatzen ari den seinale dira. Hori dela eta, ni ziur nago hemendik ez oso luzera askoz ere kasu larriagoak agertzen hasiko direla. Baina Japonian gertatutako hondamendia gorabehera, energia nuklearrari buruzko zenbait gogoeta egin nahi nituzke orain.

Ezer baino lehen, gauza bat gogorarazi nahi nuke: Espainiako Gobernuko presidente hautatua izan eta gutxira, Zapatero jaunak beste lau urtez luzatu zuen Fukushimakoaren ia bikia den Garoñako zentral nuklearraren jarduera, eta duela gutxi Zapaterok berak zirrikitu bat irekita utzi zuen zentral horrek, zaharkituta egon arren, martxan jarrai dezan, amaiera-datarik jarri gabe. Zer esan nahi du horrek? Bada, hurrengo hauteskunde orokorretan PP alderdia garaile ateraz gero, ez litzatekeela batere harrigarria izango Garoñako zentralaren bizitza luzatzeko erabakia hartzea, nuklearren aldeko alderdia baita.

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

Garoñako zentralaren jabea Nuclenor da. 1957an Iberduerok eta Electra de Viesgo konpainiek Centrales Nucleares del Norte SA sortu zuten, eta sektore elektrikoan izan diren mugimenduen ondorioz, gaur egun, Nuclenorren gaineko jabetza Iberdrolaren eta Endesaren artean erdibana banatuta dago. Zentrala eraikitzeko lanek 1966tik 1970era iraun zuten eta indarretxea 1971ko maiatzaren 11n jarri zen martxan. Berez, zentralaren bizitza baliagarria 40 urtekoa da; hau da, 2011n amaitu beharko litzateke haren jarduera-epea, baina Zapaterok onartutako luzapenarekin, 2013ra arte, hau da, zentralak 42 urte bete arte luzatuko da.

Zentrala Burgosko iparraldean dago, Tobalina ibarrean, Miranda de Ebrotik 32 kilometrora, Gasteiztik 64 kilometrora, Burgostik 91ra, Bilbotik 96ra eta Arrasatetik 75era. Inguruko beste hiri batzuk kontuan hartuz gero, milaka biztanle gehiago bizi dira eragin-esparruan. Gaur egun, Garoña, estatuko zentralik zaharrena izateaz gain, milaka pertsonaren bizitza arriskuan jartzen duen bonba bat da ahalmenez. Egoera muturrera eraman eta Txernobilen gertatu zenari begira jartzen bagara, adibidez, galdera hau datorkigu burura: zertarako balio die larrialdi-plan batek zentral baten inguruan bizi diren pertsonei? Txernobilgo sarraskian, 30 kilometroko erradioan, biztanle guztiak aterarazi zituzten. Gaur egun inor ere ez da bizi han, eta urtero neska-mutil pila bat etortzen da gurera beren gaixotasunetatik suspertzera. Ozenago esan daiteke, baina argiago ez!

Zentralaren zuzendaritzak eta enpresa-batzordeak negozioarekin aurrera jarraitzearen alde egiten dute. Haientzat lanpostuei eusteak du lehentasuna beste ezeren gainetik. Nik, berriz, garrantzi handiagoa ematen diet egungo biztanleriaren osasunari eta belaunaldi berriei.

Zentral nuklearrek haien aldekoek aipatu ere egiten ez dituzten "oparitxo" batzuk utzi ohi dituzte: jarduera apal eta ertaineko milaka eta milaka litro hondakin, hain zuzen.Aditu batzuen ustez, hondakinok guztiz arriskutsuak dira eta ehunka urte iraun dezakete. Hondakin horiek arbuioa sortzen dute, hainbesteraino non, Britainia Handian, adibidez, tximistorratz erradiaktiboak birziklatu egin behar izan zituzten, kostu ekonomiko ikaragarriarekin. Gaur egun, Garoñako hondakin erradioaktiboak Kordobako El Cabril hilerrira eramaten dira kamioietan. Hilerri hori 15.000 upel hartzeko sortu bazen ere, gaur egun 30.000 har ditzake. Hondamendirik ez gertatzeko itxaropena izatea beste erremediorik ez zaigu geratzen. Jarduera handiko hondakin erradiaktiboak zentraletan gastatutako erregaiz osatuta daude neurri handi batean. Erradiaktibitate handiko hondakinak dira, eta oso luzaroan irauten dute. Zentral nuklearren barruan dauden aska batzuetan pilatzen dira, uretan sartuta, sortzen duten berotasun handia hozteko.

Garoñako zentral nuklearra lehen belaunaldikoa da; hau da, Three Mile Island-eko (Harrisbour) istripu nuklearra gertatu baino lehenagokoa. BWR-3 (Boiling Water Reactor) motako erreaktorea du, ur irakineko erreaktorea alegia, eta uranio aberastua erabiltzen du beroa sortzeko; bero horrek uraren tenperatura igoarazten du eta urak, irekin eta lurruntzean, turbinak mugiarazten ditu, argindarra sortuz.

Zer da uranioa? Uranioa naturan dagoen elementu kimiko bat da, oso metal dentsoa (beruna baino 1,7 aldiz dentsoagoa). Hori dela eta, jaurtigaietan erabili ohi da, Tomahawk izeneko misil ospetsuetan, adibidez. Xedea jotzen dutenean, jaurtigai horien uranioak aireko oxigenoarekin erreakzionatu eta hodei gisa barreiatzen diren uranio oxidozko zatiki txikiak eratzen dituzte. Haizeak bultzatuta, hodeiok urrutira irits daitezke, eguraldi baldintzen arabera. Azkenean, baina, zatikiok lurrean eta uretan ezartzen dira. Maila handiagoan, gauza bera gertatzen da zentral nuklear batean isuri erradioaktiboak daudenean. Japoniara itzulita, itsasoan, lurrean eta abar egiten ari diren neurketen emaitzak entzun besterik ez dago hondamendiaren larritasunaz jabetzeko.

Uranioa hiru isotopo desberdinen nahasketa da: U-238 (%99), U-235 (%0,7) eta U-234 (%0,3). Zentral nuklearretan erabilia izateko, U-235 isotopoaren kopurua handitu egin behar da, hiruren artetik nukleidoen ezaugarririk nabarmenenak dituenarena, U-238 isotopoaren kaltean. Uranioa aberasteko teknikak oso konplexuak direnez, ezinbestekoa da laborategi aurreratuak izatea eta kapital-inbertsio handiak egitea.

Bukatzeko, beste gogoeta-gai bat jarri nahi nuke mahai gainean. Munduko herrialderik boteretsuenek energia nuklearraren alde egitearen arrazoia ez da soilik energia elektrikoa lortzea; izan ere, horren guztiaren atzean botere militarra dago beti. Bestela, zergatik jarraitzen dute arma nuklearrak izaten? Zergatik ez dituzte arma horiek guztiak behin betiko desegiten?

Atez atekoa

Juan Ramon Aranguren
Antzuola

Hilabete pasatxo da "zero zabor" helburuarekin Antzuolan atez atekoa egiten hasi ginela eta gaur ematen du betidanik egin dugula. Berrikuntzen aurrean bezala, zalantzak izan genituen: gai izango ote ginen, zelako zailtasunak izango zituen... Aurreiritzi batzuk ere izan ziren herriko giroa apur bat kaskartu zutenak. Baina behin abian jarrita eta lehenengo egunetako akatsak zuzendu ondoren, dena ondo baino hobeto joan da. Helburua zen ahal den eta hondakin gehien sailkatzea eta birziklatzea, eta, denbora gutxian, %86ra heldu gara. Sistema hau ipintzeak beste onura batzuk ere ekarri dizkigu: herria garbiago, usainik ez dago, kalean arratoiak eta katuak ia desagertu egin dira, janaria falta zaielako, eta abar. Herritarroi baldintzak eta bitartekoak jartzen dizkigutenean, erakutsi dugu instituzio eta politikari asko baino arduratsuagoak garela ingurugiroarekin. Herrian lehen 40 herritarrek edo familiak egiten zuten konposta, gaur 170 izatera heldu gara. Harrokeriarik gabe, asko harro sentitzen gara emaitzekin eta, batez ere, ondo egiten ari garelako. Bi urtetan posible izango litzateke atez atekoa Gipuzkoa guztira zabaltzea, baldin eta instituzio eta alderdi batzuek kontrako jarrera ez badute izaten.

Herri txikia edo handia izan (Hernani-Antzuola), nor bere berezitasunekin, denentzako da balekoa sistema hau. Ez dago inongo arrazoirik, gutxi batzuen interes ekonomikoa salbu, erraustegia eraikitzeko. Zubieta eta inguruetako herritarrek eskubidea dute lasai bizi izateko; minbizia eta beste gaixotasun batzuen beldur barik bizitzeko.

Antzuolako kasuan %14 besterik ez da errefusa, birziklagarria ez dena; hondakin inerte kopuru baxu horrek ez du justifikatzen 600 milioi euroko gastua egitea. Are zentzu gutxiago dauka hori saihesteko alternatiba bideragarria dagoela egiaztatuta egon dagoenean. Erraustegiko errautsak %14 hori baino gehiago izango dira, eta kutsakorrak. Eskerrik asko, Usurbil, Oiartzun eta Hernaniko udal eta herritarrei, beraiek gabe gu ez ginateke hona iritsiko eta eztabaida teorikotan jarraituko genuke. Aipamen berezia Usurbili, lehena izan zelako eta medioen, instituzioen eta hainbat alderdiren erasoei aurre egiten jakin izan duelako.

Hauteskundeak datozen honetan, aukera ederra daukagu alderdiei eskatzeko gai honen aurrean jarrera arduratsua har dezaten. Gai honek arduratzen bazaituzte, etorri Antzuolara herria nola dagoen ikustera. Animo eta aurrera bolia, gure ondorengoek eta ingurugiroak eskertuko digute.

Eskerrik asko

Ane Elorza
(Elgetako Korrika Batzordearen izenean)
Elgeta

Korrika dela eta, Euskal Herriko hainbat herri eta auzotan bezala, Elgetan ere Korrika Batzordea sortu dugu. Ahalik eta egitarau zabal eta parte hartzaileena osatzen saiatu gara Elgetako eragile eta norbanakoek.

Elgetako Korrika Batzordearen izenean, antolatutako ekimenetara gerturatu eta bertsoak entzun zein bota dituzuenoi, afaria eta bazkaria prestatu duzuenoi, gerri buelta mugitu edota eztarriak urratu artean abestu duzuenoi… eskerrik asko, *euskalakari* guztioi! Baita eguen goizaldean errepidera irten eta iluntasuna zuen laster-pausoez argitzearren ere. Mila esker, zuen parte hartze eta irriaz euskara hauspotzeagatik.

Hala ere, ez ahaztu egunotan egindakoa ez dela nahikoa eta gure konpromisoa beharrezkoa dela; euskaraz bizitzeko elgetar guztion konpromisoa. Hortaz, ez dagigun datorren ediziora arte itxaron, eta egin dagigun milaka berbetako-kilometro egunero, euskaraz!

ZUZENKETA

Asteleheneko *Goiena* paperean, 11. orrialdean, Joxe Angel Antxiaren ahotan hau jarri genuen: "Deba Garapenerako Agentziara joan ginen eta kontsumo taldeen berri eman ziguten". Deba Garapenerako Agentzia beharrean Deba Garaia Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartea esan nahi genuen. Barkatu eragozpenak.

Idoia Mendia | Eusko Jaurlaritzaren bozeramailea

"Lopezen eta Basagoitiren arteko harremanak onak eta zintzoak dira"

Sortuk eta ezker abertzaleak urrats garrantzitsuak egiten dihardutela dio Idoia Mendiak

Idoia Mendia, Goiena telebistan, martitzenean. | XABIER URTZELAI

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Bilbokoa, deustuarra da Idoia Mendia. 45 urte, abokatua, familia abertzalekoa, sozialista, Lopezen Jaurlaritzaren bozeramailea. Justizia eta Administrazio Publikoetako sailburua ere bai. Goienan izan da oraingo astean.

Zelan baloratzen duzu ETAren azkeneko ekintza?

ETAk bizirik jarraitzen du; hori bagenekien. Baina argi dago ETAko kideek ez dutela borondate argirik armak uzteko. Estatua, batik bat Espainiako Gobernua eta Eusko Jaurlaritza, ez daude su-etenean. Gure lana da legea bete eta betearaztea, gaizkileak atxilotu eta epailearen aurrera eroatea. Frantziako polizia ere horretan ari da.

Ezker abertzaleak esan du gertaera larria dela eta su-eten konpromisoarekin bat ez datorrela.

Kuriosoa izan da ezker abertzalearen mundutik komunikatu ezberdinak heldu izana. Ezker abertzaleak argi eta garbi esan du gaitzesten duela ekintza hori eta ETAri bide horretatik ez jarraitzeko eskatu dio. Eta, bestetik, ikusi ditugu EA eta Alternatiba, bi alderdi demokratiko, aurrekoak baino epelago. Intentzio elektoral bat dago horren atzean.

Sortuk gaitzespen garbia adierazi du jendarmearen tiroketa dela-eta.

Sortu eta ezker abertzalea ari dira urrats garrantzitsuak egiten. Baina Auzitegi Gorenaren epaian ikusi genuen epaileak mesfidati direla ezker abertzalearen benetako borondatearen inguruan. Demokraziarako urratsak egitea, legea betetzea, indarkeria gaitzestea... hori da beti eskatu dioguna ezker abertzaleari, eta, hori egiten badu, lortuko du Sortu erregistratzea eta legezko izatea. Eta demokraziak irabaziko du.

Zelakoak dira sozialisten eta popularren arteko harremanak?

Bion artean sinatutako itunak oso helburu garbiak zituen eta helburu horiek betetzen ari gara. Balantzea positiboa da. Eta soli-doa. Etorkizuna dauka, gainera. Askotan, pertsonen artean harreman onak izatea da garrantzitsua eta Lopezen eta Basagoitiren arteko harremanak onak eta zintzoak dira, alderdien ideologien gainetik.

ETAren biktimak bere probetxurako erabiltzen ditu PPk?

Guk uste dugu auzitegiei ez zaiela presiorik egin behar. Bestetik, Zapaterori edo Rubalcabari buruz, terrorismoaren biktimen manifestazioan, Madrilen, esan zirenak erabat injustuak iruditzen zaizkit. Inoiz baino hobeto gaude, hilketa gutxirekin, ETA inoiz baino ahulago, ezker abertzalea mugitzen dabil demokraziara etortzeko... Hori da beti nahi izan duguna. Biktimak aintzat hartu behar dira, haien ahotsa entzun, justizia egin behar da haiekiko... baina haien zeregina ez da politikan jardutea.

Eusko Jaurlaritzan PPrekin daukazuen ituna beste udal eta foru aldundietara zabalduko duzue hauteskunde ostean?

Alderdi guztiak goaz hauteskundeetara irabaztera. Eta ez da oso komenigarria hauteskundeen aurretik berba egitea bozketa osteko paktuen gainean. Herritarrek zer bozkatzen duten ikusi behar da lehenbizi. Eta, biharamunean, emaitzak aztertu eta erabakiak hartu behar dira. Argi dago, edozelan ere, aldaketaren alde gaudela, eta, horretarako, batekin edo bestearekin egin ditzakegu hitzarmenak. Sozialistok edozein alderdirekin egin ditzakegu hitzarmenak.

"Argi dago ETAko kideek ez dutela borondate argirik armak uzteko"

"ETA inoiz baino ahulago, ezker abertzalea mugitzen..."

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen bezperan, Lopezek esan zuen ez zuela hitzarmenik PPrekin.

Beti pentsatzen duzu bakarrik goberna dezakezula, baina emaitzak jartzen zaituzte dagokizun tokian. Saiatu ginen jeltzaleekin gobernatzen, baina ez zuen aurrera egin.

Zein da Lopezen Jaurlaritzak euskal jendarteari egin dion ekarpenik nagusia?

Krisi handi baten erdian egon eta aurrekontu murrizketa handia egin behar izan arren, euskararekiko laguntzei eutsi diegu. Euskal kultura euskal jendarte osoari zabaldu diogu. Lehen, euskal kulturaren kontzeptua zen euskaraz egiten dena bakarrik. Eta gaztelaniaz egiten dena ere bada euskal kultura. Halere, euskarak babes berezia behar du.

Euskobarometroak erakutsi du herritarrek ez dutela begi onez ikusten Jaurlaritzaren jarduna.

Gobernu gazte samarra gara. Bestetik, gobernu batek gobernatu egin behar du, erabakiak hartu behar ditu egunero. Baina garrantzitsuena da herritarren eta herriaren alde lan egitea. Hori da gure helburua: Euskadi etorkizunerako prestatzea arlo guztietan. Krisi une hau aprobetxatu behar dugu hori guztia egiteko. Zaila da denen gustukoa egitea. Jakina, herritarren iritzia kontuan hartu behar da eta gauzak aldatu behar badira, aldatu.

EITBren audientzia datuak ez dira oso onak izan.

EITBk denona izan behar du. Hala sentitu behar dugu. EITB autogobernuaren funtsa da. Baina etorkizuna edukitzeko, zer aldatu behar dugun, gastuak zela murriztu behar ditugun, erabaki behar dugu. Zama handia da EITB gastu aldetik.

"EITBk denona izan behar du; autogobernuaren funtsa da"

"Uste dut ona dela Jon Juaristi Euskararen Aholku Batzordean egotea"

Euskararen Aholku Batzordearen osaketagatik kritika handiak entzun behar izan dituzue.

Euskararen Aholku Batzordea izan behar da tokia berba egiteko euskararen etorkizunaz. Euskara 21 dokumentua oso garrantzitsua da. Gobernu kontseiluan sarri aipatzen dugu euskararen etorkizunak erabileraren aldetik etorri behar duela, ez bakarrik jakintzatik. Belaunaldi berriak elebidunak dira, hori lortu dugu, baina orain lortu behar dugu euskaraz egitea, kaleetan entzutea... Erakunde publikoetatik herritarrak euskaraz egitera gonbidatu, lagundu, motibatu egin behar ditugu.

Jon Juaristi Euskararen Aholku Batzordeko kide da, baina hark esana du, publikoki, bost axola diola euskararen etorkizunak.

Ona da Jon Juaristi Euskararen Aholku Batzordean egotea. Haren ekarpenak garrantzitsuak izango dira eta, bestalde, Juaristirendako ere, Aholku Batzordean egotea ona izango da. Batzordea plurala da, eta hori ona da euskararendako.

Jaurlaritzaren apustua garbia da euskararen, euskarazko hedabideen, euskal kulturaren alde?

Bai. Aurrerapausoak egin ditugu. Atzera begiratzen badugu, argi dago hobeto gaudela. Euskarazko telebista publikoaz gain, Goiena bezalakoak ere badaude, unibertsitatea euskalduntzen dihardugu... Herri administrazioan erabilera bultzatzen ari gara lanpostuetan euskara erabiltzeko.

Noiz izango ditugu epaiketak euskaraz normal?

Horixe da nire kezka nagusietako bat. Lortu dugu Donostian esperientzia pilotua egitea banaketa epaiketa batean. Non epailea, prokuradoreak, abokatuak, funtzionario guztiak, diren euskaldunak. Orain arte, justizia administrazioan lan handia egin da. Izan ere, epaile euskaldun asko daude.

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

DUELA 10 URTE

2001-04-18

Urkulu: bailarako egarri asetzaile

Duela hamar urte, 20 urte bete ziren Urkuluko urtegiko lanak amaitu zirenetik. Beraz, orain 30 urte inguru bete dira Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Elgeta, Eskoriatza eta Oñatik Urkulutik edaten dutela. Aldundiaren proiektua izan zen. Ur eskasia eta behar handien Arrasatek zuen, baina beste herriei ere ur emaria ziurtatzeko jarri zen martxan Urkuluko urtegia. Lanek 380 milioi pezetako aurrekontua izan zuten.



Urkuluko araztegia, 2001ean. | GOIENA

2001-04-15

Zazpi debagoiendar Legebiltzarrerako

2001eko maiatzaren 13ko hauteskundeetan zazpi debagoiendar aurkeztu ziren legebiltzarkide izateko: Blanca Roncal arrasatearra (PSE-EE), Mireia Unamuno antzuolarra (EH), Rafa Uribarren arrasatearra (EAJ-EA), Iñaki Nafarrate aramaioarra (EAJ-EA), Xabier Zubizarreta arrasatearra (EH), Pello Urizar arrasatearra (EAJ-EA) eta Joseba Ugalde arrasatearra (EB-IU). Roncal eta Unamuno ziren aukera handien zutenak.

DUELA 5 URTE

2006-04-12

Aste Santurako eskaintza

Debagoieneko ostatuek aurreikuspen onak zituzten Aste Santuari begira. Duela bost urte 848 toki zeuden gure ibarrean ostatu hartzeko eta oporraldia baino lehen erdiak baino gehiago beteko zirela ziurtatu zuten. Bisitari gehienak Madrildik eta Kataluniatik etorri ziren, eta baita Euskal Herritik bertatik ere.

HERRITARRAK

ARAMAIO

Xabier Uribarren Zortzi urte daramatza Alaiak erretiratu elkarteko presidente lanetan. Gustura aritu dela dio, baina badela ordua lekukoa beste bati uzteko; irailean utziko du kargua. | JOKIN BEREZIARTUA

"Eguneko Zentroa ireki ostean, gure hurrengo helburua da zaharren egoitza lortzea"

Xabier Uribarren, Alaiak elkartearen egoitzako atarian. | JOKIN BEREZIARTUA

Aramaioar peto-petoa dugu Xabier Uribarren (Aramaioko Etxaguen auzoa, 1940). "Beti bizi izan naiz Aramaion", dio. Alaiak elkarteko zuzendaritza taldearen hileroko batzarrean harrapatu genuen; gustu handiz erantzun zituen gure galderak.

Nolakoa izan da erretiratu elkarteko presidente lana?

Zortzi urtez izan naiz Alaiak elkarteko presidente. Lau urte egin ostean, bazkideek berriro aukeratu ninduten, baina zortzi urte egin ostean bada garaia kargua beste bati uzteko. Ondo dago jende berriari eta ni baino gazteagoa denari aukera ematea; bai, horixe! Irailean utziko dut kargua, eta badugu hautagai posible bat; hala ere, 202 bazkideon artean erabakiko dugu zein izango den presidente berria.

Argitu behar da elkartearen egoitzan, erretiratuez gain, pentsionistak –aurre-erretiroa eskatu dutenak– eta alargunak ere badaudela. Ni horien guztien presidente izan naiz orain arte.

Zeintzuk izan dira Alaiak elkartearen lorpen nagusiak?

Hasteko, elkartearen beraren funtzionamendua kudeatzea eta hobetzea bada lorpen bat. Izan ere, egoitza bizi-bizi dago eta elkarte baten moduan funtzionatzen du. Goiz zein arratsalde, egunero etortzen den jendea dago, karta jokoan edo bestelako planen bat egiteko. Horrez gain, urtean zehar ekitaldi ezberdinak antolatzen ditugu. Martxo amaiera eta apiril hasiera artean, esaterako, Extremadura aldera egin genuen bidaia. Eta noski, bestelako ekintzak ere antolatzen ditugu: denetariko karta txapelketak, adibidez. Bestalde, Udalarekin ere kolaboratzen dugu. Hau da, talderen bat etortzen bada luncha edo dena delakoa prestatzeko lana ere hartzen dugu.

Hala ere, azken lau urteotako helburu nagusia izan da eguneko zentroa irekitzea. Hasieran ezer gutxi egin genezakeela uste genuen, halakoak gure esku ez zeudelakoan. Baina Diputazioarekin bilera bat egin genuen eta helburu hori lortzeko lan egiteko aukera eman ziguten. Horregatik asko borrokatu gara; lehen egunetan esaten ziguten ez zela jenderik egongo, baina erakutsi dugu Aramaiok bazuela eguneko zentro bat izateko behar hori. Udalak jarri zuen lokala eta egun martxan da, sei lagunekin.

Nola ikusten duzu Aramaio erretiratu batendako?

Arrasate gertu daukagu, zortzi kilometro eskasera. Egun distantzia hori erraz gainditzeko modukoa da. Hala, Arrasaten zerbitzu guztiak asetzeko moduko eskaintza dugu. Hemendik asko joaten dira, esaterako, gimnasia, yoga edo pilates egitera.

> **"Ondo dago jende berriari nire kargua hartzeko aukera ematea; bai, horixe!"**

> **"Talde on batekin eramangarria da nire lana, eta nik oso talde ona daukat"**

Erretiratuendako Aramaio nahiko ondo dago gertatuta. Edozelan ere, datozen hamar urteetarako plan orokorraren barruan zaharren egoitza bat eskatu diogu Udalari. Are gehiago, eguneko zentroaren inaugurazioan Gizarte Zerbitzuetako diputatuak adierazi zuen hurrengo pausua egoitza izango zela. Hori asko gustatu zitzaidan. Beraz, gure hurrengo eginkizuna hori da, egoitza lortzea, hain zuzen.

Aramaiok ba al du beharrik zaharren egoitza bat izateko?

LKS enpresak ikerketa bat egin zuen eta bertan Aramaiok oso puntuazio handia lortu zuen. Lekua dela, distantzia dela... Horrek esan gura du beharra egon badagoela. Adibidez, Aretxabaletakoaren estilokoa nahiko genuke, txikiagoa akaso, baina estilo horretakoa. Aurreikusita badago, hau da, plan orokorrean badu bere lekua. Gure lana orain, hori jarraitzea eta bultzatzea izango da.

Zein da zure eguneroko lana?

Elkartetik egunero pasatzen saiatzen naiz baina esandako moduan, zuzendaritza taldeko kide barik ezingo nuke guztia ondo eraman. Sei lagun gara taldean, hiru gizon eta hiru emakume. Bakoitzak bere betebeharra dauka: biltegiko arduraduna, diruzainak, idazkariak... Hilean batzar bat egiten dugu elkartearen gaineko gorabeherak eguneratuta eramateko. Gaur [eguaztena] egin dugu apirileko batzarra.

Azken finean, presidente lana ez da berezia, talde on batekin oso eramangarria da. Eta talde ona baino hobea daukat.

NIRE HERRIAN

:) 'SUITZA TXIKIA' DA ARAMAIO

Aramaiok duen onena da herri txikia dela. Gu ez gara monarkikoak, baina Alfontso XIII.ak bere garaian *Suitza txikia* moduan bataiatu zuen. Bat nator adierazpen horrekin; oso gustuko dut herri txikia, lasaia eta oso polita delako. Gazte asko etorri da eta horrek bizia ematen dio. Hori bai, horrek zerbitzuak hobetu beharra ere ekarri du.

:(EZ DAGO ONDO KOMUNIKATUTA

Txarrena da ez dagoela ondo komunikatuta. Aramaiok bi irteera ditu, besterik ez. Orain Arrasaterako irteera zabaldu digute, eta nahiko ondo dago. Hala ere, bidegorri bat beharrezkoa da, bizikletan jende asko ibiltzen da-eta. Bestalde, Gasteizerako bidea ez dago ondo. Duela 40 urteko bidea da, eta nahiko estua.

HERRIAK

ONATI

Erosketa publiko arduratsuarekiko konpromisoa hartu du Udalak

- Aurrerantzean, erosketa etikoa, soziala eta berdea egingo dute udal arduradunek
- Urtebeteko epean egindako kontratazio guztien azterketa egin beharko dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko Udalak erosketa publiko arduratsuarekiko konpromisoa onartu zuen martxoko osokoan. Testu horretan aipatzen da "erosketa publiko arduratsuak, etika, gizarte eta ingurumen hausnarketa ezberdinak dituzten erosketa eta kontratazio publikoaren prozesuan sartzeari buruzko konpromisoa". Konpromiso horrekin, Udalak erosketa etikoak eta ingurumenari errespetua diotenak egingo ditu. "Azken urteotan administrazio publikoan geroz eta kontzientziatuago gaude giza garapen iraunkor eta ardura sozialaren sustapenean dugun aktore paperaz, bai tokiko mailan, eta baita orokorrean ere", esan digu Lourdes Idoiaga alkateak.

Iñigo eta Marga bonboiak egiten Bidebarri zentroan. | MIREIA BIKUÑA

1996a ezkero enplegua sortu

Bidebarri enplegu zentroa 1996an sortu zuten. Helburu nagusia zen minusbaliatuei eta bazterketa egoeran zeudenei laneratzen laguntzea. Ordutik hona, 90 bat pertsona pasa dira handik. Egun, 18 langile dituzte: 8 minusbaliatuak eta 7 laneratzeko hitzarmena dutenak. Horiek hiru urteko tartea dute beste enplegu bat topatzeko. Lau jardun ditu Bidebarrik: bi okindegi, *vending* zerbitzua, tailerra, eta bonboiak eta pastak egiteko tailerra.

Etikoa, soziala eta berdea

Ikuspuntu horretatik, erosketa publiko etikoa, soziala eta berdea egingo dute aurrerantzean udal arduradunek. Etikoa nazioarteko lan erakundearen hitzarmenetan jasotako hizpideak eta lan baldintza duinak –gutxieneko soldata, langileen eskubideak eta umeen lanaren kontrako borroka– barneratzen dituelako, "banka etikoa edo bidezko merkataritza bezalako ereduen aldeko apustua egiten duten hornitzaile, banatzaile eta produktuei lehentasuna emanda".

Bestalde, erosketa soziala izango da, "hainbat alderdi" hartuko ditu-eta aintzat: enplegua, minusbaliotasunen bat eta gizarte-bazterketa egoera dauden pertsonen eta laneratzeko enpresen kontratazioa. "Orain onartu dugun konpromiso horren aurretik, hasita geunden erosketa soziala garatzen. 1996an sortu genuen Bidebarri zentroa Caritasekin, minusbaliotasuna zuten edo egoera ekonomiko larrian zeuden pertsonen gizarteratzea bultzatzeko", esan digu Idoiaga alkateak.

Azkenik, erosketa berdea egiterakoan, "ondasunak eta zerbitzuak erosteko konpromisoa" hartu du Udalak. Baina ez bakarrik produktu, zerbitzu edo lanen irizpide ekonomiko edo teknikoak kontuan hartuz, baita horiek inguruarekiko duten jarrera kontuan hartuz.

Ikuspegi orokorretik, udalerriko garapen sozial eta kulturalari laguntzen dieten jarduerak barneratzen dituzten enpresak lehenetsiko dituzte.

Esperientzia aitzindaria

Hitzarmenean adostutako konpromisoak aurrera eramateko, urtebetean, Udalak egindako kontratazio publiko guztien azterketa egin beharko du. Ondoren, etika, gizarte eta ingurumen irizpideak nola sartu landuko dute. Irizpide orokorrak prestatuko dituzte. Horiek guztiak eginda, esperientzia pilotua abiaraziko dute.

Hitzarmenaren lau puntuak

HOBEKUNTZA Etika, gizarte eta ingurumen hirukoak Udalaren ardura sozialaren jarrerari dagokion hobekuntzaren instrumentu gisa jokatuko du, baita garapen iraunkorraren sustapen gisa ere.

FORMAZIOA Erakunde eta pertsona espezializatuekin elkarlanean, udal langile teknikoen sentsibilizazioan eta formazioan oinarritutako ekintzak garatu beharko ditu.

URTEBETE Kontratazio publikoen prozedura guztien azterketa egin beharko du urtebeteko epean.

MARTXAN IPINI Azterketa egin ondoren, *egitasmo-pilotu* edo *ibilbide-orri* esperimental bat ezarri beharko du Udal Gobernu Taldeak.

Sarrera duina egingo diote Amaia Udal Antzokiari, urrirako

Gaur egun antzokia "ezkutuan" geratzen da, automobil, edukiontzi eta beste oztopo batzuen atzean; sarrera "garbitu" egin gura du Udalak

UBANE MADERA | ARRASATE

Inguruko aparkaleku batzuk kendu (15 bat) eta plazatxo bat, bi berdegune, zoladura berezitua eta argidun ikurra izango duen zutoina eraikiko dituzte Amaia Udal Antzokiaren aurreko aldean. Hori guztia egin gura du Udalak herriko antzokiak "sarrera duina" izan dezan. Izan ere, gaur egun, ezkutuan geratzen da antzokirako sarrera, aparkaleku, edukiontzi, eta bestelako "oztopoen" artean.

Aparkalekuak kendu

Antzokirako sarrera berria gauzatzeko egingo dutena da Arizmendi ikastolako patioko aparkalekuen zati bat antzokirako erabili, "garajeetako eskaileren etxolatxorainoko zatia", Elena Lete aparejadorearen esanetan. Horrek esan gura du patio barruko zortzi bat aparkaleku eta kanpoko zazpi kendu egingo dituztela.

Antzokirako egin gura duten sarreraren infografia. | ARRASATEKO UDALA

Edukiontziak lekualdatu

"Gaur egun antzokiaren aurrean dagoen berdegunearen pareko edukiontziak ere kendu egingo ditugu, eta garajeen eskaileren parera eraman; espaloia luzatuz egingo diegu lekua. Eta berdeguneari berari ere altuera txikitu egingo diogu, antzokiarendako bista irabazteko. Bestalde, oinezkoen bidearen albo bietan berdeguneak eraikiko ditugu, eta erdian beste lorategitxo bat. Lorategi horretan, gainera, jarlekua ipiniko dugu, eta erdiguneko berdegunearen ondoan, berriz, argidun farola moduko bat, burdinazkoa, *Amaia Antzokia* ipintzen duena", gaineratu du udal aparejadoreak.

Harlauza bereziak

Sarrera berria, gainera, harlauza bereziekin jantziko dute, oinezkoen gunea dela adierazteko; bizikletak lagatzeko "aparkalekutxoa" eraikiko dute bertan, eta inguruan dagoen zebrabidea, Correostik ateratzen dena, lekuz aldatu eta antzokirako sarreraren pareraino eramango dute: "Helburua da jendea espaloitik bertatik bideratzea antzokira", argitu du Letek.

Hiru hilabete bukatzeko

Asteon onartu dute hori guztia eraikitzeko plegua. Lehiaketara aterako dute orain, 223.585,24 euroko aurrekontuarekin. Behin obrak hasita, hiru hilabeteko epean bukatuko dituzte.

Udalaren helburua da ekainerako lanak adjudikatzea, eta modu horretan urrirako obrak bukatuta izatea, ikasturte hasieratik ahalik eta gertuen.

Igogailua eta txarteldegia

Bestalde, antzokiaren barruan egiten dabiltzan obrak Pazko Aste osterako bukatuta izango dituzte. Igogailua eta txarteldegia dabiltza egokitzen.

Beheko solairutik lehen solairura joango da igogailua, aretoaren sarrerara, hain zuzen ere. Txarteldegiak, bestalde, leku berria hartuko du lanak amaitzen direnean. Eskumako aldean beharrean, ezkerraldean joango da eta orain arteko txarteldegia baino handiagoa izango da. Gainera, elbarriendako egokituta ere egongo da; hau da, altuera txikiagoa izango du.

Urtarrilaren 10ean hasi zituzten obra horiek, 100.000 euro pasako aurrekontuarekin.

Gazteendako doke txapelketa, galtzear

Azkenaldian baino gazte gehiago agertu ezean, erretiratuendako antolatuko dute

U.M. | ARRASATE

Baliteke aurtengoa gazteen doke txapelketaren azkenekoa izatea. Ohiturari jarraituz, Aste Santu aurreko domekarako egin dute hitzordua, oraingo honetarako, beraz. Baina iaz baino gazte gehiagok parte hartu ezean (iaz zortzi gaztek jokatu zuten dokean), SUDC elkarte antolatzaileak erabaki du aurtengoa azkena izango dela. "Aurten nahi genuen bertan behera utzi, baina batzar orokorrean komentatu genuenean eskatu ziguten aurtengoari eustea. Beraz, eutsi egingo diogu, baina gazte gutxi badator, bagabiltza pentsatzen datorren urtean erretiratuendako-edo antolatzea Aste Santu aurreko txapelketa", adierazi du Juan Luis Arkauzek, SUDC elkarteko presidenteak.

10-14 urte bitartekoak

Domekako hitzorduari dagokionez, 11:00etan hasiko da gazteen txapelketa. Komeni da, baina, izena emateko 10:30erako bertan, Monterron ondoko zelaian egotea, bikoteak antolatu, txapelketarako zozketa egin eta 11:00etan jokoan hasi ahal izateko. Aurreikuspena da eguerdi ingururako bukatuta izatea txapelketa.

10-14 urte bitarteko gazteei zuzendutako deialdia da domekako hori, eta "neskak zein mutikoak" daude gonbidatuta.

SUDC elkarteak sariak iragarri ditu aurreneko lau irabazleendako.

Ezohiko hiri batzarra eta beste alkartetxean

U.M. | ARRASATE

Apirilaren 19rako hitzordua egin du EAk ezohiko hiri batzarra egiteko, 19:00etan, alkartetxean.

Bestalde, iragarri du apirilaren 24rako Aberri Egunera joateko autobusa antolatu dutela. Gernikako manifestazioarekin egingo dute bat, Independentistak sareak antolatutakoarekin, 12:00etan. Gero, Jai Alai pilotalekura joango dira bazkaltzera. Izena alkartetxean eman behar da.

Bukatzeko, posta bidez bozkatzeko, martitzen, eguazten eta eguenean 18:00-20:00ak arte izango dira alkartetxean.

OHARRAK

LITERATURA LEHIAKETAK
Gaur, egubakoitza, 18:00etan banatuko dituzte AEDren aurtengo literatura lehiaketen sariak. 70 lanen artean, 14 iritsi dira lehiaketako finalera. Kulturateko Loramendi aretoan da hitzordua, 18:00etan, eta Miren Agur Meabe idazle ezaguna izango da gonbidatu.

SANTA MARINA, LUDOTEKA
Gaur, egubakoitza, Santa Marinako ludotekaren 19. urteurrena ospatzeko jaialdia egingo dute. Jolas erraldoiak izango dira, aurpegia margotzeko aukera, giltzatakoak egingo dira, eta merendola ere iragarri du Txatxilipurdi elkarteak. Ludotekako bazkideak zein bazkide ez direnak gonbidatu gura ditu Txatxilipurdik jaialdira. 17:00etan hasi eta 20:00etan bukatuko dira ekitaldiak.

BASERRITARREN AZOKA
Apirilaren hirugarren zapatua izanik, baserritarrek azoka ipiniko dute bihar Seber Altube plazan. Ohi moduan, 09:00etatik 14:00ak arte izango da baserriko produktuak erosteko aukera. Eta erosleen artean baserriko produktuekin osatutako otarrea zozketatuko dute amaieran.

Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.
Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Ekitaldiaren amaieran talde argazkia atera zuten Kulturate kanpoan ekitaldira joan ziren protagonistek. | JOKIN BEREZIARTUA

Aspaldiko Arrasateren testigantza utzi digutenei esker ona eta oparia

Ahotsak proiektuan parte hartu duten arrasatearrei omenaldia egin zieten

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Eguaztenean aurkeztu zuten Arrasateko Ahotsak proiektua Kulturateko areto nagusian. Udalak 85 gonbidapen bidali zituen eta protagonista guztiak agertu ez ziren arren, asko izan ziren omenaldi ekitaldian. Ekitaldiaren antolatzaileek –Badihardugu euskara elkarteko eta Udaleko ordezkariak izan ziren aurkezpenean– eskerrak eman zizkieten Mondragoeko hizkera eta ondarea mantentzea helburu duen ekimenean parte hartzeagatik.

"Zuek ez duzue altxorra gorde"

Esker on hitzak besterik ez zuen Badihardugu Aintzane Agirrebeñak: "Ahotsak proiektuaren helburua da zuek barruan duzuen altxor hori jasota uztea. Altxorrak gorde egiten dira, baina zuek ez duzue gorde, zuen euskara, zuen ezagutza eta zuen bizipenak denon eskura utzi dituzue. Hori biziki eskertu gura dizuegu".

Izan ere, lehengo Arrasate nolakoa zen erakusten duen testigantzak dira proiektu honen emaitza, betiere Arrasateko hizkera jatorrean jasota. Badihardugu euskara elkarteak aspaldi jarri zuen martxan Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak katalogatzeko proiektua. Arrasateren kasuan, azken hiru urteetan hainbat elkarrizketa egin dituzte, AEDrekin eta Udalarekin elkarlanean. Proiektuan parte hartu duten adinekoek informazio asko dutela zioen Agirrebeñak: "Askotan galdetzen zenuten: 'Eta nik zer konta dezaket?'. Asko dakizue, kontatu diguzuen hainbat kontu sinesgaitzak dira guretako; pelikula bateko parte balira bezala ulertzen ditugu. Eta kontu horiek guztiak zuek bizi egin dituzue; guretzako oso interesgarria izan da hori jaso eta jendearen eskura uztea".

Ekitaldian zenbait grabazio ikusi zituzten eta amaieran nork bere grabazioa eta diplomatxoa eraman zuen etxera. Arrasateko historia bizia dira eta esker onez jaso zuten oparia; ekitaldia bera ere asko gustatu zitzaien.

ESTHER GOIKOLEA
OMENDUA

"Ezer gutxi gogoratzen dut nire elkarrizketaz. Gogoan dut espero baino hobeto joan zela. Grabazio horiek inork erabili gura baditu, hortxe egongo dira."

BITORIANO ETXAGIBEL
OMENDUA

"Ikaragarri gustatu zait ekitaldia, oso gustura egon naiz. Lan hori hartu duenak bete-betean asmatu du, bai horixe. Grabazioa etxera eramatea opari on bat da, gainera."

J.B.

PATXI GOIKOLEA
OMENDUA

"Grabazioak bihar edo etzi datozen gazteendako ondarea dira"

Adi-adi jarraitu zuen omenaldi ekitaldia Patxi Goikoleak. Ekitaldiaren aurretik gustura erantzun zituen Arrasate Irratiko lankideen galderak.

Gogoan duzu Badihardugukoek egindako elkarrizketa?

Nahiko ahaztuta daukat. Badakit mutil bat etorri zela eta hainbat galdera egin zizkidala. Batez ere nire gazte denborez egin genuen berba. Gaztetako gure bizimodua nolakoa zen, neskatan nola egiten genuen, gure orduko zaletasunak... hamaika kontu. Etxean egin genuela akordatzen naiz.

Zein iritzi duzu halako ekimenen gainean?

Grabazio horiek bihar edo etzi datozen gazteendako ondare moduan ikusten ditut. Bai euskara aldetik eta baita garai bateko kontuengatik ere. Izan ere, asko aldatu dira gauzak. Orduko xelebrekeriak berreskuratzeko modu bat ere bada.

Arizmendiko ikasleen moda desfilea gaur Amaian (18:00)

Arizmendiko batxilergoko lehen mailako ikasleek moda desfilea egingo dute gaur Amaia antzokian, 18:00etan. Datorren urtean egingo duten ikas bidairako dirua lortzeko asmoz egingo dute desfilea. Sarrera bost euro da; gainerako ikasleendako, berriz, hiru euro da sarrera.

Santa Marinako ludotekak 19 urte bete dituela ospatuko dute

Santa Marina auzoko ludotekak 19 urte bete dituela ospatuko dute gaur. Haurrek jolas erraldoiak egingo dituzte, aurpegia margotzeko aukera izango dute, baita giltzatakoak egiteko ere. Merienda ederra ere izango dute. Urteurren jaia 17:00etan hasi eta 20:00etan amaituko da.

Udalekuetan izena emateko azkar ibiltzeko eskatu du Txatxilipurdik

J.B. | ARRASATE

Txatxilipurdiren udalekuetako izenematea maiatzaren 6ra arte dago zabalik. Hala ere, ohar garrantzitsu batzuk eman gura dizkiete izena emateko asmoa dutenei. Almikera joan gura dutenen txanda –orain Arrasatekoak ez direnek ere eman dezakete izena– "berehala" beteko dela diote. *Kosta ala Kosta*-n izena emateko ez da arazorik, oraingoz, eta antolatzaileek 14 eta 16 urte artekoak izena ematera animatu ditu: "Esperientzia ahaztezina da". Garaiongo udalekuetarako plazak betetzen doaz eta Oriokoetarako uztailetik 1etik 11rako txanda bakarrik dago libre.

Udaleku irekietarako, berriz, izenematea azken egunerako ez uztea aholkatu dute, ez dira-eta epez kanpoko eskaerak onartuko. Azken horietan izena ematen dutenek, gainera, *Bila eta pila* mahai jokoa jasoko dute.

Gogora ezazue non dagoen Txatxilipurdiren egoitza berria: Nafarroa etorbideko 23. zenbakian, udaltzaingoaren egoitza berriaren atzealdean eta INEMen parean. Hau da, gazteendako egokitu den parke berrian.

Leintz Eskola Kirola seigarren Gipuzkoako atletismo txapelketan

Joan den asteburuan egin zuten Gipuzkoako eskolarteko atletismo txapelketa, Ordizian, eta LEKeko neska-mutikoak seigarren sailkatu ziren. Hain zuzen, Eider Luengo, Alba Etxeandia, Nora Agirre, Ainhoa Merino, Nerea Elortza, Jone Uriarte eta Nerea Goñi lehiatu ziren atletismoko zortzi modalitatetan.

Oraingo asteburuan, berriz, Tolosan izango dira, bakarkako eskolarteko txapelketan parte hartzen, Alba Etxeandia, Maitane Iria, Eneko Carrascal eta Dani Martinez atleta gazteak.

Markel Moronek Zizur Nagusiko torneoa irabazi du

Arrasateko AGT Pilota Taldeko ordezkari Markel Moron pilotariak Zizun Nagusiko (Nafarroa) pilota torneoa irabazi zuen joan den domekan. Txapelketa lau t'erdikoa izan zen, eta finalean Burlatako Andoni Agirre izan zuen aurrean (16-6).

Bestalde, alebin mailako Ander Murua, Imanol Elkorobarrutia eta Ander Llodio ezingo dira Diputazioak antolatutako txapelketako finalean egon, finalerdietan kanporatu zituztelako. Hala ere, hilabete hauetan sekulako lana egin dute torneo horretan.

Liher Urrutia bigarren geratu da Gipuzkoako xake txapelketan

Arrasate-Arlutz taldeko Liher Urrutia Gipuzkoako txapeldunorde izan zen joan den asteburuan, banakako modalitatean. Alebin mailako xakelariak lehen aldiz hartu zuen esku txapelketan, eta lau partidatatik hiru irabazi zituen.

Domekan taldekako Gipuzkoako eskolartekoa jokatu zuten Donostian eta Arrasate Herri Eskolako taldea hirugarren sailkatu zen. Taldean, Liher Urrutia, Eneko Carrascal, Asier Etxeberria eta Mikel Murua izan ziren.

Saskibaloi entrenatzaile izateko ikastaroa abian, uztailera bitartean

Arrasateko eta Bergarako klubek antolatu dute, federazioaren laguntzarekin

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Ointxe! eta Bergarako saskibaloi taldeak antolatuta saskibaloi ikastaroa jarri dute abian, Aste Santuan hasi eta uztailera bitartean. Hala, ikastaroarekin eskuratuko duten tituluaz, ikasleak lehenengo mailako entrenatzaile izan ahalko dira, eta horrek probintzia mailako senior kategoriara arte entrenatzea ahalbidetuko du.

Entrenatzaile kurtsoak hiru orduko 25 saio izango ditu eta alde teorikoa eta praktikoa tartekatuko ditu. Ekaineko azken asterako Iturripen campus teknikoa antolatu dute neska eta mutil gazteentzat, eta bertan izango dute ikasleek ikasitakoak praktikatzen jartzeko aukera.

Larreategi entrenatzailea, jokalariei aginduak ematen. | ARTXIBOA: JULIO CALLEJA.

Maila handiko entrenatzaileak

Irakasle lanetan, Debagoieneko entrenatzaileekin batera, federazioko teknikariak arituko dira. Bertan izango dira lehenengo mailako ibarreko bi taldeetako entrenatzaileak, Josu Larreategi (MU) eta Xabier Igartua (Sustrai Aloña Mendi). Eta eurekin batera parte hartuko dute Ointxe!-ko kirol arduradun Gorka Zurututzak, ACBko epaile Ruben Sanchezek, Euskadi Irratiko saskibaloi aditu Aitor Uriondok eta ACBko Fuenlabrada taldeko entrenatzaile laguntzaile Jose Angel Samaniegok. Entrenatzaile izateko kurtsoaren gaineko informazio gehiago, *www.ointxe.org* webgunean.

MUk etxean jokatuko du

Bestalde, Mondragon Unibertsitateak zapatuan jokatuko du, 18:00etan, Centro de Estudios Mikeldi taldearen kontra. Liga amaieraz gozatzeko partiduak dira, helburua beteta dago-eta.

Alex Aranburu lehenengo, selekzioaren maillotarekin

Mugarri–Jay taldeko ziklista Tuteran gailendu zen

X.U. | ARRASATE

Joan den domekan Dorletako Ama Eskolako Mugarri-Jay taldeko Alex Aranburu eta Jon Ander Kortabarria eta Lizarralde Kirolak taldeko Mikel Iribecanpos mendiko bizikletako euskal selekzioaz egon ziren korritzen, Tuteran. Eta eurekin batera Beñat Burgi eta Aitor Pagaldai ere egon ziren lasterketan.

Gazte mailan Alex Aranburu izan zen azkarrena; irteeratik egin zuen ihes, eta bakarrik helmugaratu zen. Kortabarria 5. izan zen eta Burgi 11. postuan helmugaratu zen. Kadeteetan, berriz, Iribekanpos 7. izan zen eta Aitor Pagaldai 9.

Asteburuan, berriz, Alex Aranburu eta Jon Ander Kortabarria Gipuzkoako Klasikoan izango dira, errepideko lasterketan.

Alex Aranburu, alde nabarmenarekin, lehenengo helmugaratzen. | I.KORTABARRIA.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Fuxxion-Portaboleiros	2-4
Steua del Grifo-Fidel&Discipu.	4-9
McAwenDauen-Ekaitz	7-2
Abokajarro-Dublin	5-5
Iluntz-Betrayer	5-4
Dribling-Betrayer	3-6

PARTIDUAK

APIRILAK 16, ZAPATUA
11:30 Cipris-Iriztu / **Antolatzaileak**
*Partidu bakarra jokatuko da oraingo astean.

Oporraldi luzea, Aste Santuak direla-eta

Antolatzaileek egutegia burutzeko orduan, ez zuten kontutan eduki Aste Santutan jokalari askok bi asteko oporraldia izango zutela. Ondorioz, apur bat berandu bada ere, egutegia eguneratu dute eta asteburu honetan atzeratutako partidu bat baino ez dute aurreikusi, zapatu goizean Ciprisek eta Iriztuk jokatuko dutena.

Egutegia dagoenetan geratuko da

Azken orduko erabaki honen ondorioz, behin -behineko egutegia dagoenetan geldituko da, baina aste bete atzeratuta. Talderen batek egutegi berriarekin arazoren bat baldin badauka, jar dadila harremanetan antolatzaileekin (634 447 592), ahalik eta azkarren –apirilean zehar–, arazoari lehenbailehen irtenbidea emateko.

Entrenamendu ibiltaria egingo dute errugbikoek Ibarran

Arrasate Errugbi Taldekoak Aretxabaletara joango dira domekan (10:00-11:30) entrenamendu ibiltariaren beste saio bat egitera. Bestalde, errugbi taldeei dagokienez gazte mailakoek baino ez dute asteburuan jokatuko, zapatuan (18:30) Durangon.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

PUB HAIZEA
arrasate

Arrasate literatura sariak banatuko dituzte gaur

A.E. | ARRASATE

24. literatura lehiaketako sari banaketa gaur egingo dute Kulturaten. 18:30ean izango da ekitaldia eta hamalau sari banatuko dituzte. AEDk antolatzen du literatura lehiaketa.

70 lan aurkeztu dituzte

Lau atal izan ditu lehiaketak: ipuina, poesia, bertso-papera eta komikia izan dira atalak. Denera, 70 lan aurkeztu dituzte aurten.

Finalistak eta gaur saria jasoko dutenak izan dira: ipuinen sailean, Maria Oses, Alazne Zuazubiskar, Maialen Gallardo, Garazi Romero eta Maddi Labayen; poesia sailean, Garazi Romero eta Jon Iraola; komikia sailean, Aitor Gonzalez eta Aritz Irigoien; eta bertso-paperean, Jone Perez Moreno, Marixe Ruiz de Austri, Ane Zuazubizkar Iñarra, Arantzazu Letona Elizburu eta Asier Delgado Gartzia.

Miren Agur Meabe

Literatura lehiaketako sari banaketara idazle bat gonbidatu izaten dute. Hala, gaurko emanaldiko idazle gonbidatua Miren Agur Meabe bizkaitarra izango da. Asteon birritan egin du bisita Meabek Arrasateko Kulturate aretora.

A.E.

Miren Agur Meaberen saioa

Poesia errezitaldi musikatua egin zuen Miren Agur Meabe idazle lekeitiarrak eguaztenean Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan. *Bitsa eskuetan* liburua oinarri hartuta egin zuen saioa Meabek. Apirilaren 23an ospatuko den Liburuaren Egunaren harira antolatutako ekitaldia izan zen eguaztenekoa.

'Liburu fantastikoak' erakusketa hilaren 20ra arte ikusgai

Liburuaren Egunaren harira antolatutako erakusketa da –apirilaren 23an da Liburuaren Eguna–. Kulturateko klaustroan daude ikusgai Carmen Domech egilearen lanak. Martitzenetik domekara arte, 17:30etik 20:30era. *Liburu fantastikoa* da erakusketaren izenburua.

Arrasate Musikaleko ikasleen Aste Santuko kontzertua gaur

100 ikasle inguru batuko dira gaur Kulturaten Aste Santuko kontzertua eskaintzeko, 18:30ean. Lau taldetan banatuta joko dituzte musika lanak. Hainbat instrumentu entzuteko aukera egongo da, eta, duda barik, musika pieza politak eskainiko dituzte. Sarrera doan izango da.

Arrakasta izan dute eskolarteko antzerki jardunaldiek

Jardunaldien bigarren fasea maiatzean izango da; antzerki talde profesionalek ikasleen aurrean eskaini dituzte antzezlanak Amaian

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Eskola antzerkiaren 21. jardunaldia egin dute asteon. Martitzenean eta eguaztenean eskoletako taldeen antzezpenak egin zituzten eta eskolako ikasleak eurak izan ziren protagonistak.

Juanito Barberan Udaleko Hezkuntza teknikaria gustura zegoen jardunaldiok izandako erantzunarekin. Bost taldek jardun zuten eskolako antzezpenetan. Martitzenean, 10:30ean hasita, Arizmendi (Gaztelupe A), Arrasate Institutua eta Arizmendi (Almen gunea) antzerki taldeek eskaini zituzten euren obrak. *Gaixo Tranpatiak*, *Ibilian ibilian* eta *Irakasle gaiztoak* lanak eskaini zituzten, hurrenez hurren. Arratsaldean berriro ere errepikatu zituzten. Eguaztenean, aldiz, Arizmendi (Gaztelupe B) eta Arrasate Institutua B taldeek *Bederatzi ez da bederatzi* eta *Musu baten bila* aurkeztu zituzten.

Antzerki profesionala

Jardunaldiok hiru fase izango dituzte: lehenengoa eginda, maiatzean izango da bigarrena. Antzerki talde profesionalak etorriko dira Amaia antzokira, ikasleen aurrean antzeztera. Maiatzaren 3an, 10ean eta 16an izango dira antzezpenak.

Azkeneko fasean Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek Amaia antzokia bisitatuko dute. Lehenengo, gidoi didaktikoa egingo dute eta gero, ordubeteko bisita. "Antzerkiaren atzeko mundua eta baliabide teknikoak ezagutzea izango da helburua", azaldu du Barberanek.

Harrituta geratzen dira

1996an hasi ziren eskola antzerkiaren topaketak modu honetara egiten, eta arrakasta izan dute. Orain arteko esperientzia kontuan hartuta neska-mutikoak gustura geratzen direla azaldu du Barberanek: "Harritu egiten dira atzealdean dagoen muntaketarekin: altuera, sokak... baliabide tekniko asko daude atzealdean". Hala, tresna pedagogiko interesgarria da ikasleendako.

Arizmendi ikastolako ikasleak *Irakasle gaiztoak* antzezten. | A.E.

2.000 ikasle inguru

Antzezpenetan 70 gaztek inguruk parte hartu dute, eta talde profesionalak ikustera beste 2.000 joango dira. Maiatzeko jardunaldietan nabarmentzekoa da Dar-dar taldeak eskainiko duen *Etzi* antzezlana. Ikasleek unitate didaktikoa egingo dute antzezlanaren gainean, eta hori landuko dute.

ANTZERKI TALDE PROFESIONALAK

ANTZEZLANA	EGUNA	IKUSLEAK
Txirulari magikoa	Maiatzak 3	LHko 1., 2. eta 3. mailetakoak
Ogro txikia	Maiatzak 10	LHko 4., 5. eta 6. mailetakoak
Etzi	Maiatzak 16	DBHko 3. , 4. eta 5. mailetakoak

Antzezpenak Amaia antzokian izango dira 10:30ean eta 14:45ean.



Herriko feria handiena bihar, Erramu-zapatua

Eguneko ekitaldietan mahoi jantzita parte hartzeko gonbidapena egin die Udalak herritarrei

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Bihar, Erramu-zapatuko feria egingo da herrian, eta, ohi bezala, gauza asko egongo da ikusteko. 09:30ean irekiko dute eta bazkalordura arte ganadua, artisauak, bertako jakiak... egongo dira erdigunean. Kontuan izan behar da, bestalde, Udalak mahoi janzteko gonbidapena egin diela herritarrei.

Ibargarai kalean ganadua egongo da ikusgai; Seminarioko jolaslekuan hegaztiak, animalia bitxiak eta baserriko makineria; San Martin plazan artisauak egongo dira eta Fraiskozurin eta Simon Arrietan bertoko produktuak, besteak beste.

Azokarekin batera...

Saiheski dastatzea ere egongo da. 11:00etan hasiko da, Munibe plazan, Giokelaren eskutik. Ibargarain txorimalo erakusketa eta lehiaketa egingo dute Jardunekoek. 11:30ean hasiko da erakusketa eta sari ematea 13:00etan egingo dute.

Ganadua Ibargarai kalean. | GOIENA

14:30ean herri bazkaria egongo da, Udal Pilotalekuan, eta 400 bat lagun espero dira. Txartelak erosteko azken eguna gaur, egubakoitza, da, eta eskura daitezke 16 eurotan –12 euro 12 urtetik beherakoek– Depor, Bule, Euxebio eta Frontoiko tabernan. Txartelik soberan geratuz gero, bihar goizean salduko dute Udal Pilotalekuko leihatilan.

Arratsaldean, 17:30ean, umeendako zezentxoak egongo dira Seminarioko jolaslekuan.

Udaltzaingoaren oharrak

Azoka dela-eta bihar zirkulazioan hainbat aldaketa egingo direla jakinarazi du Udaltzaingoak: batetik, Ibargarai kalea zirkulazioari guztiz itxita egongo da, lur azpiko aparkaleku publikoko sarreratik Miguel Altuna instituturaino. PESAko autobusak ez dira herri barruan ibiliko; beraz, Ibargarai 7ko eta Oxirondoko geltokiak zerbitzuz kanpo geratuko dira. San Lorentzoko geltokia Mutualiaren aurrean egongo da. Urbanoari dagokionez, palmondoko biribilguneraino helduko da, han buelta hartu eta saihesbidetik joango da Matxiategi aldera. Beste aldeko ibilbidea Zurradero kaletik egingo du urbanoak.

Aparkaleku bereziak ere antolatuko dituzte Martinez de Irala eta San Martin ikastetxeetako jolaslekuetan.

Argazkioinaxxxx. | ARGAZKILARIAXXX

"Herriaren garapenerako lantalde sendoa" aurkeztu du EAJk

M.B. | BERGARA

Eguaztenean aurkeztu zuen EAJk maiatzeko hauteskundeetarako hautagai-zerrenda, Aintzane Oiarbide buru duela. Alderdikideen eta GBBko presidente Joseba Egibarren babesarekin aurkeztu zuten.

Aurkezpenean Oiarbidek esan zuenez, datozen lau urteetan Bergararen etorkizuna dago jokoan, eta eurek Bergarari "garapen ekonomiko, industrial eta komertziala sustatzeko lantalde sendoa" eskaintzen diote. Eta gehitu zuen: "Gure seme -alabek Bergaran bizi izateaz gain bertan lan egitea nahi dugulako, industria proiektu berritzaileak bilatu eta bultzatuko ditugu Aldundiarekin batera. Herri lehiakor, dinamiko, kulturazale, bizi izateko atsegin, zerbitzu onak dituena eta ahulenekin solidarioa nahi dugu. Pertsonak bizi izateko herria".

Aintzane Oiarbide buru dutela honako hautagaiek osatuko dute EAJren zerrenda: Rafa Amasorrain, Juan Jesus Alberdi, Maite Barrena. Ander Alberdi, Irune Galarraga, Lander Arregi, Maite Agirre, Iñigo Jauregi, Irune Ureta eta Oier Bolibar, M. Eugenia Igartza, Iñaki Arregi, Miren Idigoras, Ignacio Arriola, Itziar Zabala, Iñaki Arrondo, Miren Lazkano, Isabel Suinaga eta Jose M. Ormaetxek.

Djembe eta sendabelar ikastaroak antolatu dituzte maiatzerako

M.B. | BERGARA

Djembea jotzen ikasteko ikastaroa egingo dute Osintxun maiatzaren 5etik ekainaren 2ra. Eguenetan izango dira eskolak, 18:00etatik 20:00etara, Osintxuko ludotekan. Prezioari dagokionez, 10 euro balio du ikastaroak.

Edonork har dezake parte, baina lehentasuna izango dute bergararrek, eta izena emateko epea gaur, egubakoitza, bukatuko da. Ikastaroa antolatu dute Osintxuko herri batzarrak, Udalak eta Bizikasik. Izena emateko, deitu 943 76 93 94 telefono zenbakira edo idatzi *info@bizikasu.com* helbidera.

Sendabelar ikastaroa ere bai

Bestalde, sendabelar ikastaroa ere antolatu dute Udalak eta Bizikasik. Hain zuzen ere, maiatzaren 10ean, 17an, 24an eta 31n izango dira saioak, 17:00etatik 19:00etara, kultura etxean. Prezioa 20 euro da, eta, interesa duten guztiei zuzenduta badago ere, bergararrek lehentasuna izango dute.

Ikastarorako izena emateko azken eguna maiatzaren 3a da. Bada, horretarako, kultura etxera joan behar da, edo 943 77 91 59 telefono zenbakira deitu.

MONIKA BELASTEGI

Txikienek ere euskalakariak direla erakusi dute

Eguaztenean, Korrika 17 herrira iristeko bezperan, Korrika Txikia egin zuten Mariaren Lagundiko, Aranzadiko eta San Martingo ikasleek. Euskalakari txikienek erdiguneko kaleak zeharkatu zituzten euskararen alde korrika eginda. Egindako esfortzutik errekuperatzeko, San Martin plazan San Joxepeko erretiratuek egindako txokolatea hartzeko aukera izan zuten; baita jolas egiteko ere.

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

JOXAN
ARRAINDEGIA
Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

Berritutako Irizar jauregira bueltan, hainbat ikastaro eskaintzen ditu KZguneak

Ohiko ordutegiari eutsiko diote Barrenkalen; 20 ordenagailu dauzkate Irizarko hirugarren solairuan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Dagoeneko itzuli da Irizar jauregira KZgunea. Hain zuzen ere, hirugarren solairuko bi gela hartu ditu KZguneak. Apirilaren 5a ezkero dihardute Barrenkaleko jauregian eta telefono zenbakia aldatu egin dute. Hauxe da berria: 943 76 38 65. Ane Untzurruntzaga da hango arduraduna eta Kristina Hernandez ari da laguntzaile lanetan. Ohiko ordutegiari eutsiko diote Irizarren: aste barruan 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Bergarako KZgunean 20 ordenagailu dauzkate, zortzi erabiltzaileendako eta 12 ikastaroetarako. Ane Untzurruntzagaren arabera, batez beste, 35-40 erabiltzaile izaten dituzte egunero: "Egunaren arabera, zenbaitetan jende gehiago dator, baina orokorrean jende ugari dator, adin guztietakoak. Beharbada, ikastarotan jende nagusiagoa dabil, eta Interneten nabigatzera datozenen artean gazteak dira nagusi".



Eguazten arratsaldean Internet ikastaroan ateratako irudia. | E.M.

Ikastaroak datorren astean

Datorren astean egun bateko pare bat ikastaro izango dira, biak euskaraz: metapostarena (doaneko posta eta kutxa gotor elektronikoa izateko) astelehenean 16:00etatik 18:00etara; eta picnik (argazkien oinarrizko tratamendua) martitzenean 11:00etatik 13:00etara.

Era berean, Aste Santuko oporren ostean honako ikastaro hauek emango dituzte: Google Calendar; metaposta; irudi digitalen tratamendua; eta Flickr. Azken bi ikastaro horien kasuan bi egunekoak dira, lau ordukoak denera. Edozein argibidetarako telefonoa edo e-maila erabil dezakezue: *tutor.bergara@kzgunea.net*. KZguneko ordenagailuak erabili ahal izateko nahikoa da doaneko bazkide txartela eskuratzea.

San Pedro parrokia itxiko dute gaur, berritze lanetarako

Stolz organoari behin-behineko agurra egiteko, emanaldia izango da gaur San Pedron, 17:00etan

E.M. | BERGARA

San Pedro parrokia berritze lanetarako bi urtez itxiko dutela eta, gaur, egubakoitza, kontzertu berezia izango da bertan: Bergarako Stolz organoari "behin-behineko agurra emateko", Musika Eskolako lagunak batuko dira San Pedron, 17:00etan. Hainbat pieza eskainiko dituzte.

Hasiera baten, berritze lanek bi urte iraungo dute. Lehenbizi, kanpo aldetik egokituko dute eliza. Lehen faseko aurrekontua 1,2 miloi euro da. Diputazioak 400.000 euroko dirulaguntza agindu du. Besteak beste, nabearen teilatua eta dorrea konponduko dituzte. San Pedro parrokiako lehen faseko lanekin batera, Sierbetan ere obrak egingo dituzte eraikina birmoldatzeko.

San Pedro parrokiko berritze lanek bi urte iraungo dute. | GOIENA

Musika Eskolakoak, Iruñera

Bestalde, *Apirilean musika* egitarauarekin jarraituz, Musika Eskolako Orkestrako kideak Iruñera joango dira bihar, zapatua. Joaquin Maya Musika Eskolan egingo dute kontzertua, 19:30ean. Bergararrek aurreko zapatuko bisita itzuliko diete nafarrei. Akordeoi ikasleak, berriz, Hernanin ospatuko den akordeoi topaketara joango dira bihar.

Bilduren aurkezpena martitzenean Irizarren

E.M. | BERGARA

Bergarako Bilduk udal hauteskundeetarako hautagaien zerrenda eta programaren aurkezpen ekitaldia egingo du martitzenean, apirilak 19, Barrenkaleko Irizar jauregian, 19:00etan. Ekitaldia ordu erdi ingurukoa izango da eta alkategaiak hitza hartuko du, programaren ardatz nagusiak azaltzeko.

Bestalde, posta bidezko botoa eman ahal izateko bulegoa zabaldu dute Barrenkaleko Biltokin. Ordutegia honako hau izango da: astelehenetik egubakoitzera 10:30etik 12:30era eta 18:00etatik 20:00etara. Herritar guztiak gonbidatzen dituzte bulegotik pasatzera eta posta bidezko bozka tramitatzera. Era berean, maiatzaren 22ko hauteskundeei buruzko informazioa eskainiko dute.

OHARRAK

URPEKARITZAKO HASTAPEN IKASTAROA MAIATZEAN

Nazioarteko urpekaritza baimena eskuratzeko ikastaroa izango da Agorrosinen maiatzaren 3tik aurrera. Itsas praktikak Getarian egingo dira. Izenematea eta arbigideak: 943 14 01 85, 678 90 36 78 eta *ksub@ksub.net*.

ERIZAINEN LAN-POLTSA MIZPIRUALDE EGOITZAN

Mizpirualde zaharren egoitzak jakinarazten du erizainen lan-poltsa sortu nahi duela. Informazio gehiago *www.bergara.net* webgunean edo zaharren egoitzan (943 76 13 68).

SAN JOXEPEKOAK CADIZERA IRAILEAN

San Joxepe erretiratuen elkarteak Andaluziara, Cadizera bidaia antolatu du irailaren 19tik 26ra. Izenematea, maiatzaren 31ra arte zabalik. Argibide gehiago erretiratuen egoitzan: 943 76 21 40.

AIERDI S.A.
Aholkulariak

2010eko ERRENTA AITORPEN KANPAINA

AHOLKULARITZA FISKALA, LAN AHOLKULARITZA ETA KONTABILITATEA ETA ASEGURU OROKORRAK

Artekale 1 behea - Tel.: 943 76 03 50 - Faxa.: 943 76 03 95 - BERGARA • Atzeko kalea 1 - Tel.: 943 71 60 96 - Faxa.: 943 71 61 13 - OÑATI

Soraluce BKEko mutilak, Arrasaten jokatutako joaneko partiduan; kategoria dute jokoan. | XABIER URTZELAI

Soraluce BKEk argi gorriak piztuta ekingo dio derbiari

Domekan Labegaraietan erabakiko da Bergarak kategoriari eusten dion, Ford Mugarriren kontra

XABIER URTZELAI | BERGARA

Azken jardunaldietan nahita ere ezin zitzaizkion Soraluce BKEri gauzak horrenbeste okertu, eta ligako azken partidua baino ez da geratzen. Lehia erabakigarrietan huts egin dute bergararrek, jokalariak ez daude urtarrilean edo otsailean egon ziren gorputzaldian, eta gainera, atzetik datozen kontrarioak inoiz baino hobeto jokatzen ari dira –eta partiduak irabazten dabiltza. Egoera horretan daudela jokatuko dute domekan kategoriako talde onenetakoaren kontra, Arrasateko Ford Mugarriren kontra.

Joan den domekan, Bergarak (21 puntu) Leioaren kontra galdu berri –eta Deustuk (20) eta Basaurik (19) irabazi egin zutela jakinda, Muniategi ez zegoen baikor, baina egoera horri buelta eman behar izan dio, talde osoak: "Ez zaigu besterik geratzen, guk atera behar dugulako hau aurrera".

ESANAK

"Gure esku dago dena, baikorrak izan behar dugu"

JOSETXO MUNIATEGI | ENTRENATZ.

Hil edo bizikoa

Kazetariok sarri erabiltzen ditugu termino nabarmenak: hil edo bizikoa. Domekako derbia, baina, halakoxea izango da, atzetik estutzen dabiltzan bi kontrarioetako batek irabazi egingo duelako, ia seguru, eta Bergarak, gutxienez, puntu bat behar duelako: "Arrasatekoek ez dute ezer jokoan, badakit ez direla kantxan bizia ematera etorriko, eta taldeko jokalari askok ere atsedena behar dutela. Baina, partidu serioa egin nahiko dute, eta guk ere maila serio hori erakutsi beharko dugu, partidua irabaztera irten, liga amaitu, eta datorren urtekoa prestatzen hasi".

Boluntarioak behar dituzte martxa zikloturista antolatzeko

X.U. | ARRASATE

Maiatzaren 1ean egingo dute Bergarako 5+3 zikloturista martxa, eta egun horretarako boluntarioak behar dituzte, egunean bertan egin beharko diren lanetan laguntzeko. Hala, animatzen denak *lokatzabttsaila@gmail.com* helbidera idatz dezala, izena ematen. Bestela, Bergarako I2 eta Igartua dendetan ere eman ahal izango da izena boluntario moduan lan egiteko.

Izenematea zabalik

Eta boluntario moduan lan egiteko izena eman daitekeen neurrian, egunean bertan zikloturista irteeran parte hartzeko ere zabalik dago izenematea. Izena emateko eta probaren gaineko informazio gehiago izateko, jo *www.biciprecisionigartua.com* webgunera. Bestela, Bergarako bizikleta dendetan ere eman ahal da izena. Izena aurrez emanda, federatuek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta ez federatuek, 24 euro. Egunean bertan izena ematea, berriz, garestiagoa izango da: federatuek 20 euro eta federatuta ez daudenek, berriz, 29 euro.

Aurten zikloturismo martxetan aldaketa nabarmenak egongo dira: ez dute inondik inora lasterketa izaera izango, ziklistak ez dira batera irtengo eta proban zehar ez da tarte kronometraturik egongo.

Infantil mailako saskibaloi taldeak Gipuzkoako txapelketako finala jokatuko du Astigarragan

Domeka eguerdian (12:15) jokatuko dute Oiartzabalen eta Garitanoren gaztetxoek infantil mailako txapelketako finala. Finalerdia Añorgako Interren kontra jokatu zuten, eta emozio handiko norgehiagoka izan zen (38-32). Hala, Bergarako klubean orain dela hiru urte hasi zuten proiektua –harrobia behar den moduan lantzea– hasi da fruituak ematen. Bestalde, talde nagusiak kategoriaz igotzeko borrokan dihardu oraindik. Urbinaren mutilek gaur, egubakoitza, jokatuko dute (20:15), Zumarragan.

Sumofic Lokatzako mutilak Gipuzkoako Klasikoan izango dira bihar, zapatua, Zumaian

Bihar, Zumaian, Sumoficeko txirrindulari gazteak Gipuzkoako Klasikoan lehiatuko dira –iaz Bergaran izan zen lasterketa– Estatuko gainontzeko selekzio autonomikoko txirrindulariekin batera –Ulmakoak eta Dorletako Amakoak ere izango dira–. Lasterketak, beraz, izugarrizko maila izango du. Bestalde, aipatzekoa da joan den astean Egian Sumoficeko mutilek egindako lana, eta azpimarratzekoa Eneko Lizarraldek lortutako podiuma.

Hip-hop eguna antolatu dute gaztetxekoek Erramu-zapatua girotzeko

Bergarako gaztetxean Norte Apache taldeak kontzertuak eskainiko du, 22:30ean hasita

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Grafitiak, kontzertua, dantzak... denetarik izango da bihar, zapatua, herriko kaleetan. Gaztetxeko lagunek antolatuta hip-hop eguna egingo dute. Erramu-zapatuak giro berezia izango du horrela.

Arratsalde partean hasiko dituzte ekitaldiak. Hainbat artistak grafiti erakustaldia egingo dute herriko kaleetan.

Doako kontzertua

Gauean Norte Apache taldeak kontzertua eskainiko du gaztetxean. 22:30ean izango da emanaldia, eta doan, gainera. Bilboko taldea da Norte Apache eta gaur egungo musika panoraman euskal rapero bakarrenetakoak dira. *Hesiaren beste aldean* diskoa aurkeztuko dute Bergarako gaztetxean. Ray Sai MC bilbotarrak eta Gaizka MC santurtziarrak sortu zuten taldea 2008an; gerora, Aitor batu zitzaien DJ lanetan.

Euskal Rap Euskaraz lelopean eskaintzen dituzte kontzertuak bilbotarrek.

Break dance erakustaldia

Norte Apache taldearen emanaldiaren ondoren, Shai Shin Kru taldeak break dance erakustaldia egingo du. Festa jarraitzeko, Mufasah artistak beat-box erakustaldia egingo du. Gainera, gaua girotzen hainbat disko-jartzailek jardungo dute gaztetxean.

Domekan, ostera, gaztetxeko zineklub emanaldia egingo dute: *Los edukadores* filma.

Norte Apache taldekoak Santutxuko herrikoan. | MYSPACE

Munduko musiken emanaldia Zabalotegin

A.E. | BERGARA

Apirilean Musika egitasmoaren barruan hainbat ekitaldi antolatu dituzte aste bukaerarako. Musika Eskolako neska-mutikoak jo eta su ibiliko dira emanaldiak egiten; ez bakarrik herrian, baita Bergaratik kanpo ere.

Gaur, esaterako, musika tailerreko eta gitarrako ikasleek emanaldia egingo dute Zabalotegi aretoan. Munduko musikak eskainiko dituzte. Gainera, ekitaldi berezia izango da; izan ere, proiekzioak erabiliko dituzte euren musika jendearengana heltzeko. Ekitaldia 18:00etan izango da.

Iruñearekin elkartrukea

Musika Eskolako orkestran dihardutenak Iruñean izango dira gaur, Joakin Maya musika eskolakoekin jotzen, 19:30ean. Elkartrukea egin dute bi eskolok.

Bestalde, gaur, egubakoitza, Debagoieneko musika eskolen kontzertua izango da Oñatin. 18:30ean izango da kontzertua, Santa Ana aretoan. Bergarako ordezkaria Konbo taldea izango da.

Bihar, zapatua, Bergarako akordeoi ikasleak Hernanira joango dira han egingo duten akordeoi topaketara. Goizean kalejira egingo dute herriko kaleetan eta arratsaldean kontzertua eskainiko dute musikari guztiek batera.

Puntako bertsolarien saioa gaur pilotalekuan

A.E. | BERGARA

Gaur, Erramu-zapatuko bezpera, puntako bertsolarien saioa izango da Udal Pilotalekuan. 22:30ean hasiko da saioa eta sarrera bost euro kostako da.

Sarrerak ordubete lehenago

Parte hartuko duten bertsolariak izango dira: Andoni Egaña, Aitor Sarriegi, Jexux Mari Irazu, Oninza Enbeita eta Odei Barroso. Gai-jartzaile lanetan Irati Agirreazaldegi elgoibartarrak jardungo du.

Sarrerak erosteko ordubete lehenago zabalduko dituzte pilotalekuko leihatilak.

Ohiko bilakatu den ekitaldia

Erramu-zapatuko bertso-saioa dagoeneko ohiko bilakatu da herrian. Garai baten, zapatuan bertan izaten zen saioa, baina, azkenaldian, egubakoitzera pasa dute eta arrakasta izan du egun aldaketak.

Bertso-saioan, lau urtez jarraian Euskal Herriko txapeldun izan den Andoni Egañak parte hartuko du. Ikusmin handia pizten duen bertsolaria da zarauztarra.

Avilesko margolarien lanak maiatzaren 1era arte ikusgai

Avilesko (Asturias) margolarien lanekin osatutako erakusketa zabaldu zuten apirilaren 8an eta maiatzaren 1era arte egongo da ikusgai. Aroztegi aretoko ordutegia da: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan 12:00etatik 14:00etara.

Mieresko orfeoiak kontzertua eskainiko du Santa Marina parrokian

Bihar, zapatua, Mieresko orfeoiak kontzertua eskainiko du Santa Marina parrokian, 20:00etan. Izan ere, Asturiasko abesbatza zaharrena da Miereskoa, eta Espainiako zaharrenetarikoa. Vicente J. Sanchez Garcia da abesbatzako zuzendaria eta presidentea Juan Rionda Mier da. Bada, ekitaldi berezia egingo du abesbatzak.

Hasi dira Telesforo Monzonen gaineko pastorala gertatzen

Zuberoako Larraine herriko biztanleek egingo dute Telesforo Monzoni buruzko pastorala. Dagoeneko hasi dira Jean Bordaxa idazle zuberotarrak idatzitako pastorala entseatzen. Abuztuan eskainiko dute pastorala Larrainen; ondoren, Bergaran eskainiko dute Monzoni buruzko lana.

Luis Alberto Muñoz / Julen Iñurrieta

(Karate eta defentsa pertsonal irakasleak jolasean karatean dabiltzan ume batzuekin)

"Karateak zeure buruarekiko segurtasuna ematen du"

Luis, 1986an hasi zinen karatean eta Espainiar Karate Federazioak eta Kirol Batzorde Nazionalak emaniko titulu ofiziala duzu.

Bai hala da. Gaztetatik izan ditut arte martzialak gustuko eta oraindik ere horretan dihardut.

Zer eskaintzen du karateak?

Arte martzialek orokorrean diziplina, seriotasuna, autokontrola, segurtasuna... eskaintzen dute. Ez bakarrik defendatzeko izan dezakezun segurtasuna baita ere zure buruarekiko segurtasuna. Denondako da ona karatea, baina batez ere oso ona da umeendako. Bost urterekin has daitezke karatea praktikatzen.

Eta fisikoki?

Fisikoki ezaugarri asko ematen ditu: indarra, oreka, koordinazioa... kirol askok eskaintzen dutena teknika bakarrean.

Juan Mari Belategi

(Jiu-Jitsu defentsa pertsonal irakaslea)

"Edonork praktikatu dezake defentsa pertsonala, ez dago mugarik"

Juan Mari, zergatik uste duzu, defentsa pertsonala eskoletan irakastea derrigorrezkoa izan beharko litzatekeela?

Defentsa pertsonala praktikatzen dutenek segurtasun gehiago izaten duten euren buruarengan. Segurtasuna kalean baina baita lanean, adibidez.

Nori zuzenduta dago?

Edonork egin dezake. Ez dago ez adin mugarik ezta muga fisikorik ere. Norberak bere egoerari hobeto dagokion teknika erabiltzen du.

Defentsa pertsonala gehiagora doa?

Bai hala da. Gero eta jende gehiago animatzen da defentsa pertsonalera, esan bezala, zure buruarengan segurtasuna sortzen baitu. Gainera, teknikak samurragoak dira.

Zer eskaintzen du?

Entrenatu egiten baduzu elastikotasuna, indarra... irabazten duzu. Hasteko ez dira beharrezko ezaugarriak baina praktikatuta irabazi egiten dituzu.

GIARTZU gimnasioa / estetika zentroa

Tel.: 943 76 30 05 / 943 76 35 71 BERGARA www.giartzu.com

Irati Goionaga, Isma Zubia, Lierni Axpe, Jone Larrea eta Joxean Larrea. | ARGAZKILARIAXXX

Irati, Isma, Lierni, Joxan eta Jone | Eskola kiroleko koordinatzaileak

"Eskola kirola osasungarria eta erakargarria da umeendako"

- Ekainera arte udaberri txapelketa egingo dute zapatuetan
- Herriko ikastetxeetako 500 bat neska-mutiko eta gaztek jardungo dute

MIREIA BIKUIÑA | OÑATI

38. udaberri txapelketako bigarren jardunaldia jokatuko dute bihar Lehen Hezkuntzako 3. mailatik DBHko 4. mailara arteko neska-mutiko eta gazteek. Eskola kiroleko koordinatzaileak martitzenero biltzen dira aste bukaerako partiduak eta kirolak zehazteko. Eurekin egin dugu berba.

DBHko gazteak udaberri txapelketan lehiatuko dira.

Urritik apirilera egiten ditugun jardueretan ez dute parte hartzen, federatutako kiroletan jokatzen dutelako. Baina orain, txapelketa gehienak bukatzear daude, eta aukera ematen diegu kirola egiten jarraitzeko.

Udaberri txapelketaren asmoa hori da, kirol jarduera luzatzea. Ikasturtea bukatu arte kirol ekintzak antolatzea.

Zenbat neska-mutikok dihardute udaberri txapelketan?

Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara arte 350. DBHko datuak ez ditugu oraindik, baina, horiek batuta, 500 inguru izango dira.

Dena den, neguan zehar eskola kirolean jarduten dutenek parte hartzen dute udaberri txapelketan.

Nola antolatzen duzue eskola kirola urtean zehar?

Bi ataletan banatzen dugu: irailetik Aste Santura arte egiten dugu lehena. 3., 4., eta 5. mailetakoekin ez dugu sailkapenik egiten, baina bai 6. mailakoekin. Horien kasuan, talde onenak Gipuzkoako txapelketarako sailkatzen dira. Bigarren atala izaten da udaberri txapelketa.

Bi ataletan eskaintzen ditugu taldekako eta banakako kirolak.

Ikastetxe bakoitzak koordinatzaile propioak ditu.

Hala da. Une honetan gaude Errekalde Herri Eskolan Borja Moiua, Txantxiku ikastolan Lierni Axpe, Zuazola-Larraña institutuan Jose Mari Pereda eta Elkar Hezin Joxan Larrea eta Isma Zubia. Elkarrekin egiten dugu lan, eta agenda antolatzen dugu.

"Udaberri txapelketaren asmoa da kirol jarduera luzatzea"

"Gurasoen lana inportantea da; eurak dira taldeen arduradunak"

Zeintzuk dira eskola kirolaren helburu nagusiak?

Gaztetatik kirola ezagutzen dute. Oñatin kirola egiteko ohitura handia dago, eta gehien egiten diren kirolak ezagutzea inportantea da. Hortik hasten gara, kirolak nolakoak diren erakusten.

Gainera, kirolak onura asko ditu: fisikoki ondo egoteko eta hartu-emanak egiteko. Hori ere helburu inportantea da. Eskola kirolaren bidez beste ikastetxe batzuetako neska-mutikoak ezagutzen dituzte. Taldetan banatzen ditugu eta lagun berriak egiten dituzte.

Eskola kirola erakargarria eta osasungarria da.

Behin izena eman ondoren, nolako parte-hartzea izaten dute umeek eta gurasoek?

Ona. Taldekako jarduerak egiten ditugunean guztiak etortzen dira. Banakako kirolak direnean, parte-hartzea jaitsi egiten da, batez ere ohikoak ez diren kirolak direnean.

Bestalde, gurasoek ez dute kalerik egiten. Eurak dira taldeen arduradunak, entrenatzaileak. Euren laguntza ezinbestekoa da. Orain dela urte batzuk entrenatzaileak izaten genituen, baina badira urte batzuk ardura hori gurasoengan uzten duguna.

Manoli Barrenetxea izango da PSE-EEren zerrendaburua

M.B. | OÑATI

Manoli Barrenetxea (Bergara, 1959) izango da alderdi sozialistak Oñatirako osatu duen zerrendako buru udal hauteskundeetan. PSE-EEk zinegotzi bat izan du azken agintaldian.

Manoli Barrenetxeak adierazi du kudeaketa "garden eta efizientea" egin nahi duela, Oñatiko herriak dituen benetako beharrei erantzungo diena. Bestalde, esan du oñatiarren bizi kalitatea hobetzeko lan egingo duela, eta herriarekiko "dedikazioa eta konpromisoa" erabatekoak izango direla. Asmo eta helburu horiekin aurkeztuko da maiatzaren 22ko udal hauteskundeetara.

Manoli Barrenetxea. | GOIENA

Blanca Roncalen ordez

Manoli Barrenetxeak Blanca Roncal ordezkatu zuen Oñatiko Udalean, 2010eko otsailean. Bergarako alderdi sozialistako alkategai Mari Karmen Barrenetxearen ahizpa da.

Hainbat ekitaldi preso politikoen nazioarteko egunean

Oñatiko Askapenak hainbat ekitaldi antolatu ditu domekan, hilak 17, nazioarteko preso politikoen eguna ospatzeko. Egitarau zabala prestatu dute, Jaengo espetxean dagoen Joseba Arregi oñatiarrak egindako marrazki batekin. Egitarauaren helburua da Kolonbiako presoen egoera erakustea. Gaurtik 30era arte erakusketa egongo da Arranon eta gaur elkarretaratzea egingo dute plazan, 20:00etan. Bestalde, domekan, Arregiren marrazkiarekin egindako postalak idazteko aukera egongo da, 18:00etan hasita.

Espeleoabentura irteera egingo dute bihar Arrikrutzera

Bihar hasiko dituzte Gesaltza-Arrikrutz-Jaturabe konplexu karstikoa ezagutzeko espeleoabentura irteerak. 3-4 orduko irteera da eta beharrezkoa da material erosoa, katiuskak eta frontala eroatea. Gehienez 16 urtetik gorako 20 pertsona onartuko dituzte, eta interesatuek aldez aurretik eman behar dute izena, 943 08 20 00 telefonoan.

Orain hasi eta urrira bitartean *Arrikrutz barne-barnetik* ezagutzeko hainbat irteera egingo dituzte; hain zuzen ere, maiatzean, ekainean, uztailean, abuztuan, irailean eta urrian.

OHARRAK

DEIALDIA

Oñatiko odol-emaileen taldeak odol-ateratzea egingo du gaur. 18:00etatik 20:00etara egongo dira ikastolako aretoan.

POSTA BIDEZKO BOTOA

Maiatzaren 22an botoa eman ezin dutenek batzokian egin ahal dituzte tramiteak. Astelehenetik egubakoitzera egongo dira, 18:00etatik 20:00etara, posta bidezko botoa ematen laguntzeko. Informazio gehiago gura dutenek 943 78 01 17 telefonora dei dezakete edo batzokitik pasa daitezke bulegoa zabalik dagoen orduetan.

KZGUNEA

Apirilean ikastaroak egingo dituzte KZgunean. Informazio gehiagorako, mezua bidali *tutor.onati@kzgunea.net* helbidera.

Gezalaga Margoak
Pintura eta osagarrien salmenta
Era guztietako margolanak.
Kale barria 31
Tel. eta faxa: 943 76 64 07
Poltsikokoa: 616 277 999
OÑATI

Ika, ika, ika, hemen dago Korrika!

"Maitatu, ikasi, ari... euskalakari" oihukatu zuten ikastetxeetako neska-mutikoek eguaztenean. Korrika Txikia egin zuten. Ibilbide hau egin zuten: plaza, Etxaluze, Euskadi etorbidea, Bakardadeko Ama kalea eta plaza.

MIREIA BIKUÑA

Bergarako igerilariek Oñatikoekin batera dihardute aurten. | GOIENA

200 herritar batuko dira Guriaren omenezko bazkarian

Ekitaldi herrikoia egingo dute bihar eta etzi tabernaren kanpoko plazan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Tabernaren itxierak badauka data: apirilaren 30a. Azken txanpan sartuko dira Guria tabernaren omenezko ekitaldiak. Herritar talde bat buru-belarri ibili da azken hilabeteotan aste bukaerarako ekitaldiak antolatzen. Egitarau zabala prestatu dute biharko eta etziko.

Festa Guria tabernaren aurrean hasiko dute, bihar, 12:30ean. Triki-txarangak girotuta salda banatuko dute. Ondoren, herri bazkaria egingo dute Etxeberria jatetxean. "200 lagunendako tokia dago, eta 200 lagun batuko gara. Txartel guztiak banatu dira", esan digu Guriako Anton Azpiazuk.

Musika, musika eta musika

Bazkalostea girotzeko, kontzertua egingo dute hainbat taldek tabernaren aurreko parkean; alegia, Kale Barriko plazatxoan. Besteak beste egongo dira Saz le Bolo talde mitikoa, Joxe Mari Anduaga bakarlaria, Hertzainak taldearen bertsioak egiten dituen taldea eta egungo musika egiten duten Drakes eta CC627 taldeak. Nork bere emanaldia egingo du. Zuzeneko jaialdia 17:00etan hasi eta 22:00ak aldera bukatuko dute.

Bestelako musika gustuko dutenendako, DJ Soraluzek disko -festa egingo du toki berean. 22:00etan hasita. 1970eko eta 1980-ko hamarkadetako kantuak jarriko ditu.

Ekitaldi herrikoiaren azken hitzorduak etzi, domekan, egingo dituzte: alde batetik, 17:30ean, erraldoi eta buruhandien kalejira egingo dute; beste alde batetik, 19:00etan, Los Numeros Uno taldeak kontzertua egingo du. Bertsioak izango dira zuzenekoaren muina.

Azkena hilaren 30ean...

Ekitaldi herrikoiarekin bukatutzat emango dituzte Guriaren omeneko ekintzak. Edo ez. "Ateak itxiko ditugu hilaren 30ean, zapatua. Akaso egun horretan zerbait berezia egingo dugu. Baina, ez daukagu ezer lotuta", dio Azpiazuk.

Azken hilabeteotan lepo bete da taberna barrua eta kanpoaldea han egindako kontzertuak jarraitzeko. Pettik egin zuen lehena 2010a bukatu aurretik. Haren ondoren etorri dira Mara, Sorkun, Airean, Boni Offogo, Txuleton's, Kepa Zelaia eta Ander Etxaniz, Ruper, Quimi Portet, Mursego eta Jabier Mugurutza. Luxuzko musikariak.

Oñati Turismok 27. Alimara saria irabazi du Bartzelonan

M.B. | OÑATI

Oñati Turismok beste sari bat irabazi du. Oraingo honetan, 27. Alimara saria eskuratu du Bartzelonan. Ikerne Altube Oñati Turismoko arduradunak eta Ernesto Murgiondo Oñatiko zinegotzi eta Gipuzkoako Turismo zuzendariak jaso zuten saria.

Turismoaren sustapeneko materiala katalanez editatzeagatik irabazi du saria Oñati Turismok. Kataluniako Generalitatek eta beste hainbat erakundek bultzatutako sariketa da. Hain justu ere, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzak eta Turismo Zuzendaritzak. Eta erakundeek eta enpresek katalanaren ohiko hizkuntza-eremutik kanpo katalanez materiala sortu eta editatzeko egindako esfortzua aitortu nahi du.

Erakunde ezberdinak

Bartzelonako Alimara hotelean banatu dituzte 27. edizioko Alimara sariak. Aitorpen hori turismoaren sektorean eta ostalaritzan egiten duten ahaleginagatik saritzen du Alimarak, SITC edo Kataluniako nazioarteko turismo jaialdiarekin batera. Erakunde publiko nahiz pribatuek jasotzen dituzte sariok.

Hilaren 8an egindako sari banaketan beste hainbat enpresa eta erakunde saritu zituzten; besteak beste, *Asturias lo dice todo* kanpaina, *www.zaragozaturismo.es, www.buscounviaje.com* eta *www.andalucia.org*. atariak, Costa Bravak egindako braille gida eta Sagrada Familia Fundazioaren batzordea. Guztiek jaso dute egindako lanarengatik aitorpena.

Ikerne Altube eta Ernesto Murgiondo sariarekin. | GOIENA

Bilduk udal hauteskundeetarako zerrenda aurkeztuko du bihar, herriko plazan, 13:00etan

Udal hauteskundeetarako Oñatiko Bildu koalizioa aurkeztuko dute bihar, 13:00etan, herriko plazan. Ekitaldian, bertsolariek, dantzariek eta trikitilariek hartuko dute parte. Bestalde, Oñatiko koalizioaren alkategaiak hitza hartu eta zerrendako kide guztiak aurkeztuko ditu ondoren. Ekitaldiaren amaieran, txorizo egosia eta ardoa egongo da bertaratzen diren guztiendako.

Osakidetzak agintzen duen garbiketa egiteko igerilekua itxita egongo da hilaren 18tik 25era

Igerilekuak hustu eta garbiketa sakona egitea agintzen du Osakidetzak urtean bitan. Hori horrela, Aste Santuko oporrak aprobetxatuko dituzte Zubikoako igerilekuak garbitzeko; hain justu ere, itxita egongo dira hilaren 18tik 25era, biak barne. Bi igeriluak hustu, garbitu, eta berriro beteko dituzte. Atzerapenik ez badago, hilaren 26an normaltasunez zabalduko dituzte.

Erramu-domeka ospatuko dute umeekin: meza aurretik erramuak bedeinkatuko dituzte

Erramu-domeka ospatuko dute etzi. 12:00etan parrokian egingo duten meza hasi aurretik erramuak bedeinkatuko dituzte plazan: hain justu ere, 11:45ean. Segidan, elizkizunean parte hartuko duten neska-mutikoek katekistekin prestatuko dute elizkizuna koro azpiko kaperatxoan. Ondoren, aldarera igoko dira ume guztiak parrokoarekin eta elizan dauden gainerako pertsonekin mezaren bukaera ospatzera.

Beteranuen ligako eta kopako finalerdiak bihar

Finalak hilaren 30ean jokatuko dituzte

M.B. | OÑATI

Beteranuen futbol txapelketa azken txanpan sartu da: bihar, kopako eta ligako finalerdiak jokatuko dituzte Azkoagainen.

Joxelyk ezin izango du iazko txapela berretsi. Hori horrela, Txarrixak, The Gibel Boys, Xaguxar eta Dollygans-en artean egongo da aurtengo irabazlea. Eurak izan dira azken faseko talde onenak, eta elkarren kontra jokatuko dute: Txarrixak-Xaguxar (zapatuan, 16:00etan) eta Dollygans-The Gibel Boys (zapatuan, 17:30ean).

Finalak hilaren 30ean

Ligako partiduen aurretik kopako finalerdiak jokatuko dituzte: Indar 85-Etxaixat (zapatuan, 13:00etan) eta Zorrobero-Txuskos (zapatuan, 14:30ean). Iaz, Gaur Baik irabazi zuen kopa.

Biharko lau partiduetako irabazleek finalak jokatuko dituzte Aste Santu ondoren. Hain zuzen ere, hilaren 30ean. Egun berean, ligako finalerdiak galtzen duten taldeen artean, hirugarren eta laugarren lekuak erabakitzeko lehia jokatuko dute. Bukatzeko, sari banaketa egingo dute.

Sustrai Aloñak Zubikoan jokatuko du bihar

M.B. | OÑATI

Sustrai Aloñak etxean jokatuko du bihar, 18:00etan, Fincas Bilboetxe La Peña taldearen kontra. Xabi Igartuaren taldeak Zubikoan duen boladarekin jarraitu gura du. Helburua da partidua irabaztea zaleen aurrean, eta Lizuanek zer egiten duen ikustea.

Azpeitiarrek galdu egiten badute, Aloña EBA ligako taldea izango da; bestela, hurrengo jardunaldian erabakiko da. Bi aste barru Sustrai Aloñak eta Lizuanek Azpeitian jokatuko dute.

Abian da elkarte arteko olinpiada: gaur, berakatz-zopa txapelketa

Herriko sei gastronomia elkartek jardungo dute norgehiagokan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gastronomia elkarteen arteko II. olinpiada egiten dabiltza, Loramendi Elkarteak antolatuta. Sei elkarte dabiltza aurten norgehiagokan –iaz hiru izan ziren–, eta gaur berakatz-zopa txapelketa egingo dute Larrino auzoko San Kristobal elkartean (21:00).

Aurretik, baina, txikiteoa egingo dute Eguzki Alde elkartetik irtenda (19:30), trikiti doinuak lagun dituztela.

Lehen puntuak Uratz Aldek

Uratz Alde, San Kristobal, Eguzki Alde, Basotxo, Urbaltz eta Muru Alde –iazko txapelduna– dira norgehiagokan jardungo duten elkarteak.

Hiru probak osatuko dute aurtengo olinpiada: berakatz-zopa txapelketa, gaur, Larrinon; bolo txapelketa, maiatzaren 14an–Euskerien Eguna–, bolatokian; eta afari-merienda, ekainaren 23an, –San Juan bezpera–. Gainera, San Juan kantua indartzeko asmoarekin entsegua egingo dute egun horretan eta gero Herriko Plazara joko dute guztiek San Juan sua bitartean kantuan egiteko, herritarrekin batera. Kantua, baina, ez dute kontuan hartuko puntuatzerakoan.

Proba horiez gain, martxoaren 26an jokatutako elkarte arteko mus txapelketa ere hartuko dute kontuan Loramendiko kideek puntuak banatzerakoan. Orduan, Uratz Alde elkarteko bikotea izan zen nagusi; bigarren geratu ziren Muru Aldekoak; eta hirugarren Hibai Gain elkartekoak. Azken horiek, baina, ez dute parte hartuko olinpiadan; hortaz, lehenengo puntuak Uratz Aldera eta Muru Aldera joan dira.

II. olinpiadaren sari banaketa ekitaldia uztailaren 15ean, egubakoitza, egingo dutela iragarri dute antolatzaileek; Durana kalean (19:30) izango da.

Udalak egindako memoria salatu du oposizioak

Gobernuak dio "hauteskunde atarian" datorrela

M.A. | ARETXABALETA

Udaleko oposizioa osatzen duten taldeek –EAJ, EA, PSE-EE eta Alternatiba– orain dela hilabete pasatxo Udalak kaleratutako *2007/2011 Jarduera memoria* salatu dute, esanez ez dutela izan horren inolako berririk eta dirua herriaren alde gastatu behar dela, eta ez alderdiaren onurarako.

"Foileto hori ezagutu genuen gure etxeko postontziak zabaltzerakoan", esan dute oposizioko kideek. Memoria horretan 4.800 euro inbertitu direla diote eta horri gehitu behar zaiola *Arratabe* udal aldizkariaren kostua, 30.000 euro. Eta gaineratu: "Hori guztia, krisi egoeran inbertitutako euro bakoitza aretxabaletarren onurarako izan beharko litzatekeenean".

Udal Gobernuaren erantzuna

Udaleko Gobernu batzordeko kideek adierazi dute hauteskunde kanpaina buruan baten batzuk ukondokadak ematen ari direla. Eta gaineratu dute agintaldian inolako inplikazio, interes eta konpromiso barik jardun duten batzuk kontu eske datozela orain: "Antolatutako batzorde informatiboetara sarritan agertu ez, batzuk ezta osoko bilkuretara ere, eta orain, norberaren erantzukizun falta kamuflatzeko, herritarrak informatzeko gobernuak hartutako konpromisoa eta jarrera salatu".

Udalak herritarrei banatutako jarduera memoria. | UDALA

Moda desfilea egin eta taberna jarriko dute gaur UDAk eta Belar Metak Durana kalean

M.A. | ARETXABALETA

Gaur, egubakoitza, moda desfilea egingo du Belar Meta jantzi-dendak Durana kalean (19:00). Arratsaldea girotzea da helburua, eta, bide batez, Aretxabaleta Kirol Elkarteari laguntzea. Hala, taberna jarriko dute horiek, mokadutxoa eta edatekoa eskainita dirua batzeko.

Ainhoa Sanchezen laguntza

Jantzi-dendako arropak erakutsiko dituzte desfilean, ekitaldia disko-jartzaile batek girotuko du, eta Imanol Gallego kazetari arrasatearrak aurkeztu. Herritarrak ibiliko dira modelo lanetan, eta Ainhoa Sanchez Miss Euskadiren laguntza izango dute antolatzaileek.

OHARRAK

OSTEOPOROSIAREN GAINEKO BERBALDIA

Astelehenean, hilak 18, osteoporosiaren gainean jardungo dute Basotxon (17:30).

BILDUKO KIDEAK BASOTXON

Bildu alderdiko kideak joango dira Basotxora martitzenean, hilak 19, erretiratuek aurrez gertatutako galderak erantzutera (18:00).

ERRETIRATUAK PARISERA

Parisera bidaia antolatzen dabiltza Basotxoko kideak. Ekainaren 25etik 30era joango dira eta ikusiko dituzte, besteak beste, Eiffel dorrea, Louvre museoa eta Notredame. Bidaiarako txartelak Basotxon salduko dituzte maiatzaren 6a artean (11:00-12:00). Prezioa: bazkideek, 650 euro; eta gainerakoek, 675 euro.

NIRE USTEZ

OIER ETXEBARRIA

Urrutira joan gabe

Badira urte batzuk noizean behin munduko leku desberdinetara bidaiak egiten hasi nintzena; gehienetan bidaia motzak izan dira: astebete eta hiru aste bitartekoak. Hain egun gutxi izanda, leku berriei gainbegiratu bat emateko aukera bakarrik izan dut, eta bertakoekin harremana sortzeko denborarik ez dut hartu. Kasu gehienetan paisaia edo herrien oroitzapenak dauzkat, baina pertsonak ere gogoratzen ditut: gibela berunez beteta zeukan Errumania iparraldeko gizona; todoterrenoan lau egunetan gidari izan genuen boliviarra; Salvador de Bahia ezagutzen lagundu zidan mutil bizkorra; Poloniako Czestochowa hirian etxean hartu ninduten fraide marianistak; Asia erdialdeko hiri bateko parkean hizketaldi luzea eman zigun mozkorra; Mauricio uhartean astebetez etxean hartu gintuen familia;... Oroitzapen benetan onak dira guztiak, baina ez dut horietako inorekin harremanik mantendu.

Azkenaldian kalean nabilenean, kanpoan ezagutzeko aukera izan ez dudan pertsonak bezalako asko ikusten ari naiz gurean. Animatuko ote naiz horiei "egun on!" esatera? Beraiekin harremanen bat lantzera? Gogotsu nago, baina ausardia falta zait. Lortuko ote dut? Ni ezagutu nahi izango naute?

Beste kultura batzuetako pertsonak ezagutzeko kanpora joan beharrik ez dagoela konturatu naiz orain, bazen garaia.

"Animatuko naiz 'egun on' esatera? Harremanen bat lantzera?"

BENGOA
URDAITEGIA
Bertako okelak eta odolosteak
Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

Garbittu
Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net
Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
Obra bukaerako garbiketak
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
Kristalen garbiketak
Arropa garbiketak

Informatika ikastaro bereziak jarri dituzte abian

M.B. | ESKORIATZA

Arrasateko Bastida akademiak, KZgunearen eta Eskoriatzako Udalaren laguntzarekin, esperientzia aitzindaria jarri du martxan, hamar prestakuntza ikastaro emateko liburutegian dauden KZguneko ordenagailuak erabilita. Ikastaroak *on line* izango dira eta goizez zein arratsaldez egiteko aukera egongo da.

Kultura etxean, liburutegian eta Bastida akademian eman daiteke izena. Behin taldea osatutakoan, telefonoz deituko zaie ikastaroa noiz hasiko den jakinarazteko eta matrikula egiteko. Hasiera baten, ikastaro guztiak maiatzaren 2an hasiko dira; martitzenetan eta eguenetan izango dira, 09:00etatik 11:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

ESKAINTZA

IKASTAROA		PREZIOA
Windows / Word hastapena	20	80 €
Windows XP sistema	20	80 €
Word, oinarrizko maila	20	80 €
Word, maila aurreratua	20	80 €
Excel, oinarrizko maila	20	80 €
Excel, maila aurreratua	20	80 €
Power Point	20	80 €
IT txartela	20	80 €
Photoshop	30	140 €
Dreanweaver	30	140 €

Asier Arregi | Uhin elektromagnetikoetan aditua

"Kanpokoekin baino gehiago, arazoa etxeko gailuekin sortzen da"

- Uhin elektromagnetikoak eta osasuna izan zituen hizpide martitzenean
- Osasunarendako kaltegarriak izan daitezkeen gailuez egin zuen berba

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Martitzenean izan zen Asier Arregi eibartarra Ibarraundi museoan, elektromagnetismoaz eta osasunaz berba egiten. Hitzaldi horren helburu nagusia zen eskoriatzarrei uhin elektromagnetikoen gaineko informazioa eta hainbat aholku ematea.

Zer-nolako eragina dute uhinek gizakiengan?

Zientzian dagoen eztabaida nagusia sortzen du gai horrek. Legeek diote ionizatzaileak ez diren uhinetan eragina termikoa bakarrik dela. Gradu batetik gora berotuz gero, azaletik zentimetro batera kaltegarriak direla onartzen du. Zientzialari talde handi batek, dena dela, uste du eta ikerketekin frogatu du bestelako eraginik ere badutela: buruko minarekin eta lo egiteko zailtasunarekin hasten da hori.

Etxeetan erabiltzen ditugun tresnek eremu elektromagnetikoak sortzen dituzte. Zeintzuk dira adierazgarrienak?

Esaterako, instalazio elektrikoa begiratzekoa da. Azken urteotan, dena dela, mikrouhinek sortu dute polemika handien. Ezagutza falta dago horren harira. Hari bako telefonoetan, energia aurrezteko aitzakiarekin, hitz egiten duzun bitartean emititzen dituztenak merkaturatu dituzte orain; beste batzuek ere, beti basean egonda, emititzen dituzte. Komeni da horiek distantzia jakin batera izatea.

Asier Agirre, martitzenean, Ibarraundin. | MIRIAN BITERI

"Wi-fia 24 orduz piztuta eta ohetik gertu izanez gero, arazo bihurtuko da"

Wi-fiarekin ere berdin gertatzen da. Haren emisioa ez da oso indartsua, baina 24 orduz piztuta izan eta gauean ohetik gertu izanez gero, arazo bihur daiteke. Poltsikoko telefonoarekin berdin gertatzen da. Ez da komenigarria ohetik gertu piztuta izatea; itzali edo lineaz kanpo utzi beharko genuke. Hainbat minutun behin, gertuen dagoen antenarekin konektatzen dira, deirik ez badago ere.

"Lege komuna egin beharko litzateke, baina presio handia dago horren harira"

Lehengo hodi-telebistek ere frekuentzia txikiko kutsadura sortzen dute, atzerantz eremu elektromagnetiko handia sortzen dute eta arazoak eman ditzake ondoko gelan edo etxebizitzan. Horiei guztiei, etxe kanpokoak gehituko zaizkie.

Zelan jokatu behar dugu horien aurrean?

Dosia kontrolatu beharra dago; bakoitzaren esku dago hori. Gaur egun guztiok daukagu poltsikoko telefonoa, eta erabiltzea gustatzen zaigu. Baina jakin behar dugu noiz eta zenbat denboran erabiliko dugun. Esan behar duguna esan eta hizketaldia luzatzen baldin bada, hariko telefonotik deitzea izan daiteke irtenbidea. Askotan, kanpoan dauden antenekin eta horrelakoekin paranoia sortzen da, eta benetako arazoa etxe barruan dugu.

Eta ez gara jabetzen kaltegarriak izan daitezkeela...

Nik zalantzan jartzen dut hori; ez dugu zalantzan jarri nahi gure erosotasunerako dendan erosten ditugun gailuak kaltegarriak izan daitezkeela.

Araudi batetik bestera alde handia dago horren harira, ezta?

Hala da. Esaterako, goi tentsioko lineendako hemengo muga 100.000 nanotesla da eta Suedian, lan araudian, gehienezko balioa 250 nanotesla da. Telefonia mugikorrean berdina da. Lege komuna egin beharko litzateke, baina presio handia dago horren harira.

Bestelako aholkurik?

Higiene elektromagnetikoa bultzatu behar dugu. Dosia kontrolatzean, distantziak neurtzean, gaueko emisioak zaintzean eta babes neurriak erabiltzean datza, besteak beste. Azken horren harira, poltsikokorako, esaterako, gailu bereziak daude. Kasu larrietan, gelak babes daitezke.

Euskal dopinaz jardungo duen antzezlana

M.B. | ESKORIATZA

Korrikaren harira antolatutako ekimenen barruan, Ez Dok Hiru antzerkilari bikoteak *Euskarazetamol* izeneko antzezlana aurkeztuko du gaur, egubakoitza, gauean unibertsitatean. 22:30ean hasiko den emanaldirako sarrera debalde izango da.

Dibertimentuak izenez bataiatutako trilogiaren azken alea da *Euskarazetamol*. *Euskera Sencilloaren Manifiestoa* -rekin hasi ziren, eta jarraian, *Larruaizetara* lana etorri zen. Hizkuntzak berebiziko garrantzia hartzen du Patxo Telleria eta Mikel Martinezen trilogia horretan. Euskara tresna bada ere, ez da jorratzen duten gai bakarra; azken obran, euskal dopina hartzen dute oinarrian.

OHARRAK

MARGOAK LUDOTEKAN

Gaur, egubakoitza, akuarelekin margotuko dute neskamutikoek Tortolis ludotekan, 18:00etan.

DANTZA LUDIKOAK

Bihar, zapatua, taldeko dantza ludikoen saioa egingo dute pilotalekuko gimnasioan. 17:30ean hasiko da.

KIROL HITZORDUA

Norgehiagoka bakarra dago asteburuan. Areto-futbolean, Ohorezko Ligan, etxekoen eta Los Profesionalen arteko lehia dago kiroldegian, 18:00etan.

KIROL HITZORDUA

Bihar, Korrikarekin lotutako ekintzak egingo dituzte gazteek Herriko Plazan. Etzi, Eskoriatza eta Aretxabaletako gaztelekuen arteko areto-futbol txapelketa jokatuko dute.

MARGO ERAKUSKETA

Gaur arte bisita daitezke Ibarraundin jarrita dauden margo lehiaketako artelanak.

Gipuzkoako kostaldera joango dira bihar erretiratuak

Olazar erretiratuen elkarteak antolatuta, egun osoko irteera izango dute bihar, zapatua, herriko erretiratuek. Goizean Gipuzkoako hiriburua bisitako dute, eta jarraian, Aginagako sagardotegi baten bazkalduko dute. Eskoriatzara itzuli aurretik, Zarautzen egingo dute geldiunea.

Liburu azoka eta umeendako tailerra daude gaur plazan

Urteroko *2x1* liburu azoka egingo dute gaur, egubakoitza, herrian. Liburutegira eroandako liburu bakoitzeko bi bale jaso dituztenek gaurko azokan izango dute aukera ale bakoitzeko liburu bat hartzeko. 18:00etan jarriko dute azoka, plazan. Bitartean, umeendako tailerra egingo dute toki berean.

Intxaurtxuetako udal etxebizitza errentan hartzeko aukera dago

Intxaurtxueta auzoko 26. zenbakian Udalak daukan etxebizitza errentan emateko baldintza ekonomiko-administratiboen plegua eta deialdia jendaurrean daude. Interesatuek hilaren 27ra arteko epea izango dute, etxebizitza errentan hartzeko eskaera aurkezteko.

Villar
Ile apaindegia
Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

Errege kateatua; uste oker batetik, gaurdaino

Antzuolako armarriko errege kateatua Gipuzkoako armarritik hartu zela frogatu du Rosa Aierbek

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Antzuolako armarriko errege kateatuaren esanahia zalantzan egon da orain arte. Mairuen erregea izan zitekeela esaten zen, Alfonso VIII.a Gaztelako erregea, Nafarroako erregeren bat... baina teoria horietako bat ere ez zegoen frogatuta. Rosa Aierbe historialari eta heraldikako sari nazionalak errege kateatuaren esanahia frogatzen duen aurkikuntza egin du Madrilgo Liburutegi Nazionaleko artxiboan: 1635eko kronika bat eta 1660ko Gipuzkoako nobiliarioa topatu ditu.

1635ean Juan Fernandez de Villalongak idatzitako kronikaren arabera, gipuzkoarrek Aragoiko erregea preso hartu zuten nafarrei laguntzera joanda, aragoarrek Nafarroako erregea preso hartu baitzuten: "Y en memoria d'este gran sucesso que la Provincia de Guipúzcoa hizo, tienen en sus escudos y armas a este rey preso". Aierberen arabera, "hori zen garai hartako ustea eta hortik erregearri lepotik katea jartzea urrats bat besterik ez dago". Eta horixe egin zuen 1660an goiko irudian agertzen den nobiliarioa idatzi zuenak.

Rosa Aierbe, Antzuolako udaletxean dagoen armarria seinalatzen. | U.A.

Arma-erregeak egina

Gipuzkoako armarriak, beraz, garai horretan kateatutako erregea izan zuen, armarriko erregea preso hartutako Aragoiko erregea zela uste baitzen (gero jakin zen Enrique IV.a Gaztelako erregea zela). Antzuolarrek, 1745ean, herriko armarria egiteko eskatu zioten Felipe V.aren arma-erregezen On Juan Alfonso Guerra Sandovali. Haren liburutegian zegoen 1660an egindako Gipuzkoako nobiliario hori, erregea kateatuta zuena, eta hori oinarri hartuta egin zuen armarria arma-erregeak.

1660an idatzitako nobiliarioa. | U.A.

Aurkikuntza garrantzitsua

Patxi Olabarria Kultura zinegotziaren arabera, aurkikuntza garrantzitsua da antzuolarrendako: "Orain arte uste zen mairuen erregea zela, baina frogatu ahal izan da, dokumentuekin, Gipuzkoatik hartutakoa dela irudi hori. Horrek alardea ulertzeko beste bide bat zabaltzen du". Aierberen lana ere eskertu nahi izan du: "Eskertzekoa da horrelako lana egin izana Rosak onginahi hutsez".

Bestalde, eguazteneko osoko bilkuran onartu zituzten Antzuolako armarria berritzeko ideia lehiaketako oinarriak. Ebazpena GAOn argitaratu eta hurrengo egunean zabalduko da lanak aurkezteko epea.

Zapatuan inauguratuko dute parrokia berritua

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Zapatuan, 18:00etan egingo dute Antzuolako parrokiako inaugurazio-meza. Munilla gotzainak emango du meza, oraingo eta lehen egondako apaizek lagunduta. Abesbatza ere izango da; Bergarako San Joxepeko abesbatzak eta Antzuolakoak batera abestuko dute.

Elizkizuna bukatu ostean ateak irekita utziko dituzte herritar guztiek eliza berritua ikus dezaten. Domekan ere, mezaren ostean zabalik egongo da. Eliza barrutik nola geratu den ikusteaz gain, lanek izan duten eboluzioaren erakusketa ere jarriko dute eta lanen berri jasoko duen liburuxka banatuko dute.

Bigarren faseko lanak

Barruko lanak egin dituzte elizako lanen bigarren fase honetan: argiteria eta berogailua berritu; koruko egitura eta zorua konpondu; hormak atzera margotu; eta elementu artistikoak garbitu egin dituzte. Sakristia eta korurako pasadizoa ere berritu dituzte.

OHARRAK

ANTZERKIA

Un día cualquiera izeneko antzezlana egongo da zapatuan Marijo Moreno antzuolarra eta bere taldearen eskutik. Eider Conde, Izaskun Peña, eta Ritxar Zumalabek (zuzendaria) osatzen dute taldea. Zapatuan, 22:00etan, Torresoroan.

IKASTAROAK

Zabalik dago izen-ematea memoria lantzeko tailerra eta ezinduak zaintzeko formaziorako. Gaur, egubakoitza, da lehenengoan izena emateko azken eguna. Ezinduak zaintzeko formazioan izena emateko azken eguna apirilaren 20a da.

Herriko gaztetxoak, Korrika Txikian

Eguaztenean Korrika Txikia egin zuten eskolako neska-mutikoek herrian zehar, hurrengo egunean iristekoa zen Korrikarako motorrak berotze aldera. Eguerdian Errekaldetik irten eta herria zeharkatu zuten lasterka 2 urtetik hasi eta 6. mailara artekoek. Gela bakoitzak pankarta eta guzti eraman zuen lekukoa herriko kaleetan barrena.

ARGAZKILARIAXXX

Carlos Urrestarazu izango da PSE-EEren alkategaia Antzuolan

Carlos Urrestarazu donostiarra izango da Antzuolako sozialisten alkategaia. Urrestarazu abokatua da, eta, une honetan, Goierriko Industrialdeko gerentea da. Andoainen zinegotzi izana da. "Ilusio handiarekin aurkezten naiz; lanerako eta ikasteko gogoz nator", esan du. Bestalde, atez ateko zabor bilketaren "aurka" agertu da. "Etxebizitza sozialak, ondo urbanizatutako herria, aisialdi eskaintza erakargarria eta auzo egokiak" nahi ditu.

Getariako Keta hartuko du zapatuan Eztalan futbol taldeak

Bihar, zapatua, jokatuko du erregional mailako futbol taldeak Getariako Ketaren kontra. 16:30ean hasiko da partidua, Eztalan. Joan den astean galdu egin zuten antzuolarrek zestoarren kontra, 2-0. Hala, 4. postuan daude sailkapenean, 44 punturekin.

Infantil mailari dagokionez, etxean jokatuko dute mutilek zapatuan, 11:00etan, Antigua-Luberriren kontra. Neskek Beasaingoak bisitatuko dituzte zapatuan, 10:00etan.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

ELGETA

Oxel Erostarbe eta Patxi Basauri alkategai atzera ere

Astelehenean amaitzen da udal hauteskundeetarako zerrendak aurkezteko epea eta orduan jakingo dugu zehatz-mehatz zenbat hautagai eta zein zerrendarekin aurkezten diren Elgetako udal hauteskundeetara. Oraingoz, bi zerrendabururen berri izan dugu: Oxel Erostarbe izango da Aralarren alkategaia eta Patxi Basauri, berriz, jeltzaleena. Alkatetzarako lehian, beraz, aurrez aurre izango dira atzera ere Erostarbe eta Basauri.

Ludoteka zerbitzua zabalik egongo da datorren astean

Apirileko oporretan ludoteka zerbitzua zabalik egongo da. Datorren astean, astelehenetik eguaztenera, zabalik egongo da, eta Pazko Astean ere bai. Zerbitzua ohiko ordutegian emango dute: 16:00etatik 19:00etara.

Astelehenean, hilak 18, hezitzaileek psikomotrizitate gelara eramango dituzte umeak. Martitzenerako, hilak 19, mendi irteera aurreikusi dute eta eguaztenerako, hilak 20, henna tailerra proposatu dute.

Eguneko zentroa: zabalik 60 urtetik gorako herritarrei

Zazpi erabiltzaile har ditzake eta momentuan lau besterik ez du

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udalak eta Eulen enpresak antolatuta ate irekiak egin zituzten martitzenean Elgetako eguneko zentroan. Hitzaldi informatiboa egin zuten Ozkarbi elkartean eta jarraian bisita eta luncha Domingo Iturbe kaleko eguneko zentroan.

Zentroak zazpi erabiltzaile har ditzake, eta, itxaron-zerrenda egon bada ere, momentuan lau erabiltzaile besterik ez du. "Zerbitzua ezagutzera eman nahi dugu; izan ere, sentsazioa dugu Elgetan badaudela eguneko zentroa erabiltzeko profila duten pertsonak", adierazi du zentroko arduradun Nerea Gartziak. Ematen den zerbitzua ez ezagutzea, aurreiritziak edukitzea edo zeresanen beldur izatea izan daitezke lehenengo pauso hori emateko oztopo nagusiak, Gartziaren esanetan. "Badago ustea eguneko zentroa oso gaizki dauden pertsonendako dela, baina uste hori okerra da. Hemen ekintza asko egiten ditugu, eta ondo dauden bitartean aterako diote zerbitzuari etekin handien erabiltzaileek".

Elgetako eguneko zentroa egunero zabaltzen dute 09:30etik 17:30era, aste bukaerak eta jaiegunak kenduta. Garraio, jangela eta psikologia zerbitzuak eskaintzen dituzte. Gainera, erabiltzaileen gaitasunetara egokitutako ekintzak antolatzen dituzte. "Elgetan malgutasun handiz jokatzen dugu eta erabiltzaileen beharretara egokitzen saiatzen gara", adierazi du Gartziak. "Badauzkagu arratsaldez bakarrik etortzen diren erabiltzaileak edo astean hirutan etortzen direnak".

Zinegotziak, langileak eta herritarrak, martitzenean, eguneko zentroan. | L.Z.

Erabiltzaileen ezaugarriak

Eguneko zentroa 60 urtetik gorako erabiltzaileendako da eta gizarte laguntzailearen bitartez egin behar da eskaera. Diputazioak diruz lagundutako zerbitzua da eta eskatzaileei mendekotasun balorazioa egiten diote aurretik. Elgetako Udalak, bestetik, hiru lagunendako etxebizitza tutelatua ere badauka. Epe motzeko eta luzeko egonaldiak egin daitezke bertan.

L.Z.

Debarroko briska txapeldunak

Arantza Arrieta eta Juanita Beretxinaga kopa banarekin itzuli ziren Elgoibartik hilaren 8an. Debabarreneko erretiratu elkarteek egiten duten mahai-joko txapelketan izan ziren eta nagusitu egin ziren briska jokoan. Elgoibarko eta Eibarko bikoteak kanporatu zituzten, eta, hala, hilaren 28an Donostian jokatuko den Gipuzkoako txapelketarako txartela eskuratu dute. Zorionak, bikote, eta zorte on!

FRONTENIS

Final atarian

Honezkero erabakita daude apirilaren 30ean jokatuko diren bi finaletarako sailkatu diren bikoteak. Lerrook idazterakoan finalaurreko bat falta zen jokatzeko. Hemen beste hiru finalerdien emaitzak.

FINALERDIETAKO EMAITZAK

Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi/Asier Untzetabarrenetxea-Ibon Untzetabarrenetxea	**25-10**
. Maider Osa-Anartz Agirre/Olaia Jimenez-Aitzol Jimene	**25-12**
. Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo/Idoia Serna-Mikeldi Garmendia	**25-09**

OHARRAK

BOLO TXAPELKETA

Bihar, zapatua, Gipuzkoako hiru txirlo txapelketako bosgarren jardunaldia jokatuko dute Elgetako bolatokian. 85 bolari inguru espero dituzte, tartean Elgetako taldea. Jardunaldia 17:00etan hasiko da.

'HERRIXA DANTZAN'

Domekan, hilak 17, egingo dute Espaloian apirileko dantza saio irekia. "Hileko azken domeka Aste Santukoa izanda, aurreratu egin dugu", adierazi dute antolatzaileek. Ohikoa den moduan, Patxi Monterok gidatuko du saioa eta 19:00etatik 20:30era egingo dute.

NIRE USTEZ

IGOR ARIZMENDIARRIETA

Mundumirara begira

Denok dakigun moduan hauteskunde osteko asteburuan, maiatzaren 27tik 29ra, Mundumira dugu Elgetan. Aurten elgetarroi tokatu zaigu festaren antolakuntza aurrera eramatea. Ez da txantxa gisa honetako jai bat antolatzea. Aurreko Mundumirako jaialdietan egon bazarete ikusiko zenuten zer-nolako antolakuntza dakarren. Komunikabide batean, jaiaren antolaketan ia 100 boluntario behar direla irakurri dut. Elgetako biztanleria kontuan hartuta, elgetarron %10 izango litzateke (hamarretik bat). Nire harridurarako, behar den pertsona kopuruaren herenak soilik eman du izena. Nahiko datu kaxkarra, nire iritziz.

Ez dakit zeintzuk izan daitezkeen arrazoiak. Agian, gaizki egin da boluntarioen eskariaren prozedura edo jendeak urruti ikusi du Mundumirako data eta azken ordurako utzi du izenematea, edo jendeak ez du interesik...Suposatzen dut izena eman nahi duenak oraindik ateak zabalik izango dituela. Inoiz ez da berandu izango. Asko jota, hiru orduko txandak izango dira, oso eramangarriak eta festa beste ikuspuntu batetik bizitzeko aukerarekin.

Kanpoko jendea lanera etorriko den arren, tristea izango litzateke inguruko herrietatik jendea ekarri behar izatea guk beteko ez ditugun zeregin hauek burutzeko. Lerro hauek baliatu nahiko nituzke zalantzan dagoen jendea animatu eta deialdi honen berri izan ez dutenengana iristeko.

"Behar den jende kopuruaren herenak soilik eman du izena"

LEINTZ GATZAGA

Eugenio Otsoa alkategaia da berriro

Mexikotik etorri eta zazpi laguneko taldea osatu du datozen lau urteotarako

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gatzagako Hautesle Taldeak osatu du udal hauteskundeetarako zerrenda eta Eugenio Otsoa Ugalde da alkategaia. Hiru agintalditan alkate (1987 eta 2000. urte artean) eta beste baten zinegotzi (2003-2007) izanda dago Otsoa, eta dio "ilusio handiarekin" egingo diola aurre erronka berriari

Eskarmentua eta gaztetasuna

Azken urteotan herritik kanpora ibili da lan kontuengatik, lehenengo Polonian eta orain Mexikoko Celaya herrian. Herrira itzuli da egunotan, eta, udal hauteskundeak gainean direla ikusita, herritarrez osatutako zerrenda osatu du. Hona hamen harekin batera egongo diren sei lagunak datozen lau urteotan herriaren gidaritza hartzeko gertu: Mikel Gonzalez Antxia; Iñaki Agirreurreta Zeziaga; Asier Ugarte Burgos; Imanol Saiz de Biteri Fernandez de Troconiz; Montserrat Valerio Campoy; eta Juan Luis Zabala Bruña. Eta ordezkoak izango dira: Edorta Arana Arrieta eta Nerea Bogajo Modino.

Herriarengatik lan egiteko gogoz dagoela esan du Otsoak, "nekazari giroko herriak bultzatzeko gogoz", eta ilusio hori sorrarazi die zerrenda osatu duten gainerako herritarrei.

Hala, bada, talde gaztea osatu du, udal jardunean ibili gabekoak guztiak, eta Otsoak duen eskarmentuarekin uztartuko dute herriarengatik lan egiteko ilusio hori. Kideen artean daude Gatzagan bertan enpresa munduan eta ostalaritza zerbitzuetan lan egiten dutenak.

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

Aguazil plaza ateratzeko beharra ikusi du Udalak

Agintaldi hasieratik dator beharra; hainbat eginkizun izango ditu

Gaizki aparkatuta dauden autoen berri Ertzaintzari ematea izango da udaltzainaren arduretako bat. | JOKIN BEREZIARTUA

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Udalak agintaldia hasi zenetik zuen udaltzaina jartzeko asmoa. Honelaxe azaldu du Asier Agirre alkateak: "Agintaldi hasieratik udaltzain baten beharra ikusi du Udalak, orain arte Udalak bete dituen funtzio batzuk betetzeko eta oraindik betetzen ez diren beste eginbehar batzuk betetzeko". Deialdiaren oinarrietan jasotzen denez, "aguazil balio anitzeko" langile plaza da Udalak bete gura duena.

Izan ere, egun Udalak betetzen dituen hainbat eginbehar udaltzain batek egin ditzakeela uste du Udal Gobernuak. Esaterako, udal mezularitzaren banaketa eta udal instalazioen mantentze kontrola. Azken horien artean egongo lirateke ur sareak, saneamendu sareak, errepideak eta eraikinak, besteak beste. Bada, Udalak horien guztien kontrol minimo bat eramateko pertsona baten beharra ikusten du.

Ardura horiez gain, egun betetzen ez diren beharrak ere bete beharko lituzke udaltzain berriak. Adibidez, ospakizunetan edo jendetsuak diren ekitaldietan autoen zirkulazioa bideratu eta haien antolakuntza lanetan laguntzea, obra txikien –Aramaion hainbat lan egiten dira Udalak kontrolatzen ez dituenak– kontrola, mendietako bide publikoen jarraipena, udal zerbitzuetako kontuen kudeaketa –lorategiak, kale garbiketa...

Beharren araberako ordutegia

Hala, Agirrek dioenez, zinegotziak euren borondatearen arabera betetzen dituzten hainbat eginkizunez libratuko dira. Horrek zinegotziek udal kontuetarako denbora luzeagoa izatea esan gura du.

> **ESANAK**
>
> **"Garrantzitsutzat jotzen dugu zirkulazio arauak errespetatzea"**
>
> **ASIER AGIRRE** | ALKATEA

Plaza bakarra aterako du Udalak eta udaltzain berriak egun osoko jarduna izango du. Hori bai, larrialdi kasuetan, eguneko 24 orduetarako prestutasuna izatea eskatzen dute deitzaileek. Hau da, lan jarduna eguneko eginkizunen arabera zehaztuko da. Honela azaldu du Agirrek: "Arratsaldean hileta elizkizunetara joan behar badu, goizean hartuko du jai; hau da, eguneko eginkizunen arabera antolatuko da haren lan jarduna". Noski, deskantsurako egunak izango ditu.

Isunak: oraingoz ez, baina...

Aramaioar asko kexatu dira askok gaizki aparkatzen dutelako. Bada, aguazil berriak, hasiera baten, ez du isunik jarriko, baina eskumena izango du gaizki aparkatuta dauden autoen berri Ertzaintzari emateko, gero ertzainek isuna jar dezaten. Udalak erabaki du hori haren ardura izango dela: "Udalak jartzen dituen isunak sinbolikoak dira eta udaltzainari herritarrek dioten errespetuaren arabera neurriak hartuko ditugu. Oso garrantzitsutzat jotzen dugu kale batzuk oinezkoendako egin direla, zirkulazioa mugatzea edo aparkaleku batzuk egokitzea erabaki denean hori errespetatzea. Eta hori errespetatzen ez duena kontsekuentea izan dadila", azaldu du alkateak. Interesatuek plazaren gaineko informazio gehiagorako baldintza -agiria kontsulta dezakete udaletxean.

ITZIAR BENGOA
HERRITARRA

"Aramaion udaltzaina izatea beharrezkoa da. Bi adibide jarriko ditut: askok edozein tokitan aparkatzen dute eta txakur-kakak ere nonahi aurki daitezke."

GORKA URBINA
HERRITARRA

"Ez dago beharrik, baina jartzen bada ez naiz kexatuko. Gaizki aparkatzen dugu auto gehiegi daudelako herri txiki honetarako; udaltzaina jartzeak ez du hori konponduko."

BLANCA MENDIALDUA
HERRITARRA

"Ondo ikusten dut. Askotan falta da nori deitu edozein arazo dagoenean. Adibidez, istripu baten lekuko izan nintzen eta ez nekien nori deitu. Hutsune hori badago."

JOSE PARRA
HERRITARRA

"Udaltzaina izatea beharrezkoa dela uste dut. Udaltzain bako herria txakur bako baserria dela esango nuke. Nik neuk ez dut behar, baina herri batek behar du."

Uztailaren 6tik 19rako udalekuetarako begiraleak behar dira

Uztailaren 6tik 19ra egingo diren udalekuetan begirale lanak egiteko eta horiek prestatzeko begiraleak behar dira. Begirale guztiek formazio berezia jasoko dute maiatzaren 28an; derrigorrezkoa da saio horretara joatea.

09:30etik 13:30era egingo dute lan eta ezinbesteko baldintza da 17 urtetik gorakoa izatea. Horrez gain, baloratuko da begirale edo irakasle -eskola eta EGA tituluak izatea, umeekin esperientzia izatea eta Aramaiokoa izatea. Interesatuek Ana Muñoarekin egon beharko dute –945 44 53 74–. Izena eman behar da maiatzaren 6a baino lehen.

Mendi martxa eta sagardotegian bazkaria, Orixoli esker

Orixol mendizale elkarteak plan berezia antolatu du biharko, apirilak 16. 08:30ean elkartu dira autobus geltokian. Deba da lehen geltokia eta bertatik Zumaiara egingo dute oinez, hiru edo lau ordu iraungo duen ibilaldian. Kostan egingo dute martxa eta eguraldi ona izatea espero dute. Zumaiara heldu ostean Hernanira joango dira autobusez, hango sagardotegi baten bazkaltzeko. Bazkalostean poteoa egingo dute Hernanin eta 21:30erako Aramaion egotea espero dute. Izena eman dutenen artean 30 urtetik beherakoak dira gehienak. 29 lagunek eman dute izena.

Ander Axpe GRAVN txapelketako finalean izango da hilaren 30ean

J.B. | ARAMAIO

Ander Axpe pilotari aramaioarra eta haren bikotekide Mikel Isasmendi zigoitiarra GRAVN trinkete txapelketako finalerako sailkatu dira, gazte mailan. Txapelketa horretan Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako eta Errioxako bikote onenek hartzen dute parte eta finalerako lau lehia jokatu ostean sailkatu dira. Hiru partidu irabazi –Bizkaia, Gipuzkoa eta Errioxaren aurka– eta bakarra galdu dute –bikote nafarraren aurka, hiru tantogatik.

Apirilaren 30ean Iruñean jokatuko den finalean ez dakite oraindik noren kontra jokatuko duten; izan ere, bigarren eta hirugarren sailkatuek –Gipuzkoa eta Bizkaiko bikoteak– elkarren artean beste partidu bat jokatu beharko dute finalera nor doan erabakitzeko. Txapelketan zehar egindako lan onagatik zuzenean joango dira finalera Axpe eta Isasmendi. Eta txapela ekartzeko asmoz doaz Iruñera: "Bizkaiko eta Gipuzkoako bikoteen aurka irabazi egin genuen, eta, beraz, badakigu zer den haiei irabaztea. Hala ere, ezin gara fidatu", azaldu du Axpek.

Ezin Bilbokoa estreinatu

Finala Bilboko pilotaleku berrian jokatu behar zen, baina, azken orduko erabaki baten ondorioz, Iruñean jokatuko da. Axperendako "pena handia" izan da hori: "Ez dakit zergatik ez den Bilbon jokatuko, baina oso ondo legoke Bilboko pilotaleku berria estreinatzeko aukera izatea".


Ander Axpe jokoan. | GOIENA

Ramon Urrizalki eta Agustin Arantzabal | Jon Agirreren aldeko plataformako kideak

"Bizi osorako zigorraren doktrina desaktibatzea lortu behar dugu"

- Gobernuak espetxe politika konpontzera behartu behar direla diote
- Maiatzaren 7rako manifestazioa antolatzen dabiltza hainbat eragilerekin

MIRARI ALTUBE | ARAMAIO

Espetxean 30 urte egin dituen Jon Agirre aramaioarraren aldeko plataformako kideak dira Urrizalki eta Arantzabal. Laster kalean izango da Agirre eta pozik daude, baina espetxe politika salatzen jarraitu beharra dagoela diote.

Maiatzaren 3an aterako da espetxetik Jon Agirre. Pozik?

Gu pozik gaude, azkenean, Jon kalean egongo delako. Baina, behin hori esanda, Jonekin eta beste presoekin egindakoa salatu nahi dugu. Jonek orain dela zazpi urte bete zuen bere zigorra eta kalean egon beharko luke. Horretaz gain, espetxe araudiak esaten duena jarraituz, kanpoan egon beharko luke, osasun arazo larriak dituelako aspalditik.

30 urte egin ditu kartzelan. Urte gehien eman dituen presoa da?

Ez, Jose Maria Sagardui *Gatza* da denbora luzeen daramana, eta hau ere astean atera da kalera 31 urte bete ondoren.

Espainiako eta hemengo kartzela askotatik pasatu da 30 urteotan.

Carabanchel, Puerto de Santa Maria, Herrera de la Mancha, Alcala de Henares, Ocaña, Sevilla, Tenerife, Valdemoro eta Huelvan egon da Espainian, erabaki politiko horrek senideei ekarri dien guztiarekin. Gaixotasunen ondorioz Langraitzera ekarri zuten eta gero Basaurira; bertan dago.

Hainbat osasun arazo izan ditu eta ospitalean ere sarri egon da. Ze arazo izan ditu?

Hipertentsio arteriala, hiperkolesterolemia eta bigarren motako diabetes mellitusa du 1998a ezkero. L4-L5 ornoen foramena txikitua zuen eta honek nerbioa konprimitzen zion, eta mina hanketaraino jaitsi. Artikulazio sakroiliakoa ankilosatua du eta mokorrean, bizkarrezurrean eta belaunetan, artrosia. Hainbat ebakuntza egin dizkiote azken urteotan, eta koadro kliniko honekin kalean egon beharko luke aspaldi.

Une honetan, ze egoeratan dago?

Gaixotasun horiek ez dira desagertzen. Zaintza handia eskatzen dute eta espetxean ezin da ziurtatu zaintza hori. Eta adina beste faktore bat da.

Zenbat urte ditu Jonek?

Martxoan 69 egin ditu.

Berez, 2006ko urriaren 28an laga behar zuen kartzela.

2000n bete zituen zigorraren hiru laurdenak eta aske gelditzeko eskubidea zuen legea zintzo aplikatuta. Gero, Parot doktrina aplikatu zioten euskal preso politikoen kolektiboari, eta, horren arabera, erredentzioak espetxe zigor osoari aplikatzen zaizkionez, presoak 30 edo 40 urte bete behar ditu bere osotasunean, zigorra hori baino handiago baldin bada.

Parot dotrina aplikatu eta beste bost urtez luzatu zioten zigorra. Zer deritzozue?

Ez dugu kalkulatu zehatz, baina, gure ustez, erredentzioak aplikatuz, bost urte baino gehiago luzatu diote. Espainiako Estatuan botere legegilea, exekutiboa eta judiziala inoiz ez direla egon bereizirik eta gobernuaren interesen arabera erabili dituztela pentsatzen dugu. Horren guztiaren atzean biziarteko zigorraren aplikazio garbia dago, preso politikoak xantaiarako txanpon moduan erabil ditzaten estatuek.

Jon Agirre 1981eko maiatzaren 11n atxilotu zuten. Zer leporatu zioten epaiketan?

ETAko talde bateko partaide izatea eta hainbat ekintza egin izana. Dena dela, Jon hamar egun inkomunikatua egon zen eta torturatua izan zela salatu zuen. Beraz, torturapean egindako deklarazioetan oinarritutako epaiketa bat izan zenez, zein zilegitasun du epai horrek? Hala ere, euren legeen arabera, aspaldi behar luke kalean.



Urrizalki eta Arantzabal, Jon Agirreren argazkiarekin. | GOIENA

Espetxetik irteten dela-eta, ekimenen bat antolatu duzue?

Hori ez da gure eginbeharra. Hala ere, Jonen askatasuna espetxean beste inor hainbeste denbora ezin dela egon aldarrikatzeko erabiliko dugu. Bide horretan, Arrasate eta Aramaioko eragileekin manifestazio baten antolakuntza lanetan gabiltza maiatzaren 7rako. Bizi osoko zigorraren doktrina desaktibatzea lortu behar dugu guztion artean.

"Espetxe araudiak dioena jarraituz, kanpoan beharko luke aspaldi"

"Distentsio garai hauetan euskal presoek urrun jarraitzen dute"

Azken urteotan plataformakook hainbat ekimen antolatu dituzue Jon Agirreren egoera salatzeko. Pozik jasotako babesagatik?

Bai, herritarren parte-hartzea oso handia izan da; garbi zuten Jonek kalean egon beharko lukeela eta babes eta elkartasun handia jaso du. Bide honetan, herritarrak gonbidatu nahi ditugu, Jon etxeratu arren, gainontzeko preso politikoen eskubideen alde eta bereziki zigorra beteta duten presoen etxeratzea eskatzeko antola daitezen. Arrasateko presoen artean, Gaztañaga dago egoera horretan eta *Garratz* eta *Gautxori*-k 25 urtetik gora daramatzate espetxean, zigorraren 3/4ak aspaldi beteta.

Halako osasun arazoak izanda, zela uler daiteke aske ez lagatzea?

Sakabanaketa, jipoiak, urruntzea... taktika ugari erabili dituzte espetxeetan euskal preso politikoa txikitzeko asmoz eta damutzea bilatuz. Ez dutenez lortu, azkenean, mendeku huts bilakatzen da, eta, gaixorik egon arren, azken muturreraino eramaten dute guztia. Ezin dugu onartu gaixorik daudenak espetxean mantentzea.

Eta kartzela zigorra luzatzea?

Lehen esan bezala, mendeku ikuspuntutik besterik ezin da ulertu. Nahiz eta gero giza eskubideen defendatzaile sutsu direla esan, gaur egun Euskal Herrian dagoen indarkeria handienetakoa, handiena ez bada, espetxe politika hori indarrean mantentzea da.

Ezker abertzaleak ziklo politiko berri baten aldeko apustua egin du, politikaren alde...; ETAk su-etena aldarrikatu du... Distentsio egoera honetan Espainiako Gobernuak erakutsitako jarreraren gainean zer diozue?

Distentsio garai hauetan presoek urrun jarraitzen dute, eta senideen istripu arriskua biderkatu. Bizi osoko zigorraren doktrina aplikatuta, isolatuta eta sakabanatuta daude presoak. Neurriok inoiz ez dira legezko izan, baina egoera politiko honetan gutxiago. Beraz, gizarteak, herriak, behartu behar ditu gobernuak espetxe politika konponbide parametroetan kokatzen.

Ze eskatzen diozue Espainiako Gobernuari?

Euskal Preso politikoak Euskal Herriko espetxeetara ekartzea eta bizi osoko zigorraren doktrina bertan behera uztea. Horrekin batera, hiru laurdenak bete dituztenak eta gaixo daudenak kaleratzea, bizi baldintzak hobetzea, inkomunikazioa eta isolamendu alboratzea. Lehen urratsak behar luke espetxe politika konponbidearen norabidean jartzea. Ondoren, normalizazio prozesu batean aurrera egin ahala, preso guztiak kaleratzen joan beharko lukete.

Eta jendarteari?

Esango genioke gaur egun indarrean dagoen indarkeria bakarra gobernutik datorrela; beraz, presioa egin behar dugula indarkeria horiek erabat desaktibatuak gera daitezen. Eta hori antolakuntzaren eta mobilizazioren bakarrik bidez lor daiteke. Datozen egunotan herriz herri bilguneak antolatuko ditugu norabide horretan denok batera bultzatzeko. Beraz, sentsibilizatuta dagoen herritar orori bilgune hauetan parte hartzeko gonbita egin nahi diogu. Bide horretan, maiatzaren 7ko manifestazioan parte hartzea garrantzitsua dela uste dugu.

Urdaibai inguruak bisitatzeko irteera egingo du Zuiako Koadrilak

M.A. | ARAMAIO

Zuiako Koadrilak familia osoarendako moduko irteera antolatu du, Bizkaira: Urdaibai ingurua ezagutu eta Madariaga dorretxea bisitatu. Maiatzaren 21ean izango da, zapatua; bisita gidatua egingo dute dorretxean. Izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 6ra arte.

Bisita eta ibilaldia

Urdaibaiko paraje dotoreetan ondo pasatzeko egun-pasa izango da. Goiz partean, Busturian dagoen Madariaga dorretxea ezagutzera joango dira; biodibertsitatearen garrantzia eta naturaren ezagutza sustatzeko helburuarekin sortutako gunea. Bisita gidatu horren ostean, Txatxarramendiko irlara ibilaldia egingo dute eta ondoren Laidara joango dira itsasontzian. Arratsaldean, ostera, umeek tailerrak egingo dituzte, eta gurasoek libre izango dute.

Autobusean joango dira (09:00 -20:00) eta bazkaria norberak eroan beharko du. Hona prezioak: 2 urte artekoek, debalde; 3 eta 12 urte artekoek, sei euro; eta 13 urtetik gorakoek, zazpi euro. Zuiako Koadrilaren zenbakian egin behar da ordainketa: 2097 0224 98 0102679817. Gero, ordainagiria udaletxean aurkeztu behar da.

'Gela irekia' egitasmoarekin, informatika ikastaroak egingo dituzte KZgunean

M.A. | ARAMAIO

Udalak Bastida akademiarekin lankidetzan zenbait ikastaro egiteko aukera eskainiko die herritarrei, *Gela irekia* izeneko egitasmo barruan. Maiatzean izango dira ikastaroak, KZgunean, eta izena emateko epea zabalik dago: udaletxean, liburutegian edo Arrasateko Bastida akademian.

Ikastaroak 20 ordukoak dira (80 euro). Hona: Windows XP sistema eragilea; Word (oinarrizkoa eta aurreratua), Excel (oinarrizkoa eta aurreratua), Power Point; eta IT txartelaren prestakuntza. Gainera, Photoshop eta Dreamweaver programak ezagutzeko aukera dago. Ikasle eta langabeek %50eko deskontua izango dute.

SARRERAK

Juan Tamariz ikuskizunerako sarrerak

Juan Tamariz kartomagian espezializatutako ilusionista ikusteko 4 sarrera (irabazle bakoitzari bi).

ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA

KORRIKA-KO ARROPA

17. aek korrika · eskalera · aek WWW.KORRIKA.ORG

Bazkide egiteko

Tel.: 943 25 05 05
e-postaz: *kluba@goiena.com*
www.goienakluba.com
Urteko kuota: 48€

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

PILOTA

Aitor Mendizabal | Lau t'erdiko Soraluce sariko irabazlea

"Ikasle gaztetxoei txapela eraman diet, eta handia iruditu zaie"

Aitor Mendizabal, finalaren ostean, txapelarekin

- Finalean ez zuen kontrariorik izan (22-8)
- Lau t'erdi barruan bigarren txapela du aurten

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Martitzenean Aitor Mendizabalek erraz irabazi zuen Bergarako Lau t'erdiko Soraluce saria. Aiherrako Etcheverri ez zen kontrario izan, eta Mendizabalek sasoi oso onean dagoela erakutsi zuen. Eguaztenean, berriz, agindutakoa beteaz Mariaren Lagundiko haurrei eraman zien txapela –irakasle praktikak egiten dabil bertan–. Ikastetxean zegoela, atsedenaldian egon ginen txapeldunarekin.

Egon da garaipena ospatzeko astirik?

Bueno, finalaren ostean afaltzera joan ginen finalistak eta antolatzaileak, baina formal ibili ginen, hurrengo egunean ikastetxera joan behar nuen-eta. GOIENA paperean irakasleak ikusi zuen finala jokatu behar nuela, eta txapela irabaziz gero eskolara eramango nuela agindu nien gaztetxoei. Txapel handia iruditu zitzaien [Barre], eta ospatzeko modu polita izan zen. Pentsatzen dut asteburuan lagunekin ospatu ahal izango dudala, aste barruan ez dut-eta apartekorik egin.

Dagoeneko bi txapel irabazi dituzu aurten; orain zaude aspaldiko gorputzaldi onenean?

Baietz esango nuke. Lesioekin azkenaldian ez dut inongo arazorik izan, eta sasoi onean egoteko horrek ere laguntzen du. Aurrekoan kontuak ateratzen ibili nintzen, eta aurten 25 partidu jokatu ditut, eta bi baino ez ditut galdu.

Finalean ez zen kolorerik egon.

Ez nuen uste horren erraz irabaziko nuenik, Etcheverrik pilotari onak utzi dituelako bidean eta finalak beti direlako partidu bereziak; hau da, edozer gerta zitekeen. Finalean, baina, ni oso indartsu hasi nintzen, eta Etcheverrik ez zuen partidu onik egin. Zortea ere aldeko izan nuen, hainbat tantotan pilotak pasatik gertu egin zuelako botea.

> **"Lehen mailan aukera bat izateko ilusioarekin jarraitzen dut"**

Baieztatu zen Garraldaren kontra jokatutako finalerdia final aurreratua zela.

Garralda pilotari osoagoa da, kontrario arriskutsuagoa izango litzateke.

Antzuola eta Aiherra senidetuta daude, baina kantxa barruan ez dago senidetzerik.

Kantxa barruan ez dago lagunik. Takoak jartzen ibili ginenean, baina, ibili ginen senidetzearen kontua komentatzen, giro onean ibili ginen, eta normalean aldageletan halaxe ibiltzen gara. Hori bai, tarteka egoten dira pikeak. Kuriosoa da, nik pilota mundutik ezagutzen nuelako Etcheverri, baina ez Antzuola eta Aiherra senidetuta daudelako. Hau da, inoiz ez dugu bat egin. Eta hori, kontuan hartuta gazteagotan sarritan joaten ginela Aiherrara, trinketean jokatzera...

Soraluce saria irabazita, zein da hurrengo erronka?

GRAVN txapelketan finalerako sailkatuta gaude, eskuz binaka. Aitor Elkoro eta Aritz Berraondo dira gure hautatzaileak, eta maiatzaren 6an jokatuko dugu final hori, Laudion. Orain momentuan finalerdien zain gaude, finalean gure kontra egiteko nor sailkatuko den ikusteko.

Martitzeneko finala amaituta hainbat iritzi batzen ibili ginen harmailetan, eta, hain zuzen, ondo ezagutzen zaituen Aitor Elkorok mezua bidali zien enpresa handietako ordezkariei -pilotalekuan zeuden–, Aitor Mendizabalek aukera bat merezi duela esanda.

AITOR ELKORO
GIPUZKOAKO HAUTATZAILEA
"Orain momentuan Aitorrek sekulako jokoa du. Pilotalekuan bi enpresetako ordezkariak ikusi ditut, eta ea aukera bat ematen dioten, maila oso polita du-eta"

ARITZ BERRAONDO
PILOTARI OHIA
"Kolore bakarra egon da kantxan, Aitorrek partidu biribila egin du-eta. Aspaldian joko oso onarekin dabil, eta lau t'erdian oso ondo defendatzen da".

JOSE MARI ZEZEAGA
PILOTARI OHIA
"Aitorrek urteak daramatza aurreko koadroetan oso pilotarik ona dela erakusten. Lehenago ere garbi zegoen Garralda eta Aitor zirela finalerako hautagaiak, eta finala erraz irabazi du".

JOKIN ETXANIZ
ASPEKO KIROL TEKNIKARIA
"Emaitzak garbi erakusten du Aitor kontrarioa baino gehiago izan dela. Aukera bat? Nire esku egongo balitz, ez nuke inongo zalantzarik izango".

INAXIO ERRANDONEA
ASPEKO ZUZENDARI KOMERTZIALA
"Aitor pilotari moduan askoz ere eginago dago. Egoera zaila da, baina oraindik gaztea da, eta ilusioz jarraitzen badu iritsiko zaio aukera".

MIGEL ETXANIZ
PILOTARI OHIA ETA ESATARIA
"Finalerdietan baino askoz hobeto ibili da Aitor finalean, gehiago gustatu zait. Gainera, tantoak amaitzen ondo dakiela erakutsi du".



eta Antzuolatik joandako zale gaztetxoekin. | XABIER URTZELAI

Bueno, ilusioa ez da sekula ere galdu behar, eta nik badut ilusio hori, onartzen dut. Ez da batere erraza, ekonomikoki egoera ez delako batere ona eta enpresa handietan geroago eta pilotari gutxiagorekin daudelako, baina, esandakoa, esperantza ez da galdu behar. Aukera hori iristeko lanean jarraitzea baino ez da geratzen, eta horretan jardun beharko dugu.

ATLETISMOA

Berdintxiketan lasterketa gaur, 19:30ean, Oñatin

Izena aurrez eman ez duzuenok ere garaiz zaudete gaur, egubakoitza, 19:30ean Oñatin egingo duten berdintasunaren aldeko Berdintxiketan lasterketan parte hartzeko. Antolatzaileak 17:30ean hasita egongo dira izenak hartzen, Unibertsitate parean –Unibertsitate etorbidean. Ibilbideak 5 kilometro izango ditu, Enpresagintza Fakultatean irtengo dira korrikalariak, eta Foruen Enparantzan amaituko dute proba. Bikoteka egin beharko da korrika.

FUTBOLA

Aloñaren eta Bergararen arteko derbia domekan

Bergarak bigarren derbia jokatuko du jarraian, domekan. Oraingoan, baina, Aloña Mendiren kontra (16:30). Aitor Oruetaren mutilek puntu bat ekarri zuten joan den astean Oiartzunen zelaitik, eta Bergarak azken unean hartu zuen mendean Mondra (1-0). Aretxabaletak, berriz, kategoriako liderraren, Real Unionen zelaian jokatuko du zapatu arratsaldean (17:30) eta Mondrak Tolosaren bisita izango du zapatu arratsaldean Mojategin, 16:30ean.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

LEHENENGO MAILA
Reala-Gijongo Sporting
Domeka. 17:00. Anoeta.

GAZTEEN LIGA NAZIONALA
Athletic-Aretxabaleta
Eguaztena. 18:00. Lezama.

GAZTEEN EUSKAL LIGA
Antiguoko-Bergara
Domeka. 13:15. Berio.

OHOREZKO ERREGIONALA
Aloña Mendi-Bergara
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Mondra-Tolosa
Zapatua. 16:30. Mojategi.
Real Union-Aretxabaleta
Zapatua. 17:30. Irun.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Aretxabaleta B-Mondra B
Zapatua.16:30. Ibarra.
Antzuola-Getariako
Zapatua. 16:30. Estala.

ERREGIONALA, IGOERA
Landetxa-Bergara B
Zapatua.15:30. Irun.

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA
Real Union-Aloña Mendi
Domeka. 11:15. Irun.
Ordizia-Mondra
Zapatua. 17:45. Altamira.

GAZTEAK, IGOERA FASEA
Betio Ona-Arizmendi
Zapatua. 16:15. Renteria.

GAZTEAK, KOPA
Arizmendi UDA B-Aretxabal. B
Domeka. 12:00. Almen.
Zestoa-Bergara B
Zapatua. 16:30. Iraeta.

EMAKUMEZKOEN IGOERA
Arizmendi-Hondarribia
Zapatua. 16:00. Almen.
Touring-Mondra
Domeka. 16:00. Fanderia.

EMAK. GAZTEAK, TXAP.
Bergara-Orioko
Domeka. 18:00. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Gernika Naturgas-Eskoriatza
Zapatua. 17:00. Gernika.

GIPUZKOAKO BIGARREN M.
Aretxabaleta-Laskorain C
Gaur. 20:45. Almen.

HIRUGARREN MAILA
Orixe Tolosa-Aloña Mendi
Egubakoitza. 20:45. Tolosa.

GAZTEAK
Gamon Informa.-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Errenteria.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Soraluce BKE-Ford Mugarri
Domeka. 12:15. Labegaraieta.

GIPUZK. EMAKUME.KOPA
Atez Ate Usurbil-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Usurbil.

GIPUZKOAKO KOPA
Amenabar-Izarraitz Aloña
Zapatua. 16:00. Zarautz.

FORU ALDUN. KADETE. MUT
Talleres Chap.-La Bacaladera
Zapatua. 11:00. Iturripe.
Soraluce Berg.-Hondarribia
Zapatua. 10:30. Labegaraieta.

FORU ALDUN. KADETE. NESK
Ordizia-Aloña Mendi B
Domeka. 09:30. Majori.

SASKIBALOJA

LEHEN NAZIONAL MAILA
Sustrai Aloña Mendi- Fincas B.
Zapatua. 18:00. Zubikoa.
Mondragon Uniberts.-Mikeldi
Zapatua. 18:00. Iturripe.

SENIOR GIZONEZKOAK
MU-Beiztinberri
Zapatua. 16:00. Musakola.
Aluminios Franc.-Soraluce BKE
Gaur. 20:15. Zumarraga.
Sustrai Aloña-Kostkas
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

SENIOR EMAKUMEZOAK
Internacional-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Donostia.

GAZTEAK, PARTAIDETZA
Aloña Mendi-BKL
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

ERRUGBIA

GAZTEAK
Arrasate/Durango-Getxo
Zapatua. 18:30. Durangon.

ATLETISMOA

BERDINTXIKETAN
Egubakoitza, 19:30, Oñatin.

BOLOAK

GIPUZKOAKO HIRU TXIRLO TXAPELKETAKO SAIOA
Zapatua, 17:00. Elgetan.

Aukerazko **IBILGAILUAK** salgai

14.500€-tik aurrera

> **FORD FOCUS**
2011 | Diesela | 0 Km

MUGARRI
Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

- **Ford Galaxy TDCI** 21.900 €
  2009 | Diesela | Granatea | 59.000 Km
- **Ford Fiesta 70 ZP** 10.300 €
  2010 | Diesela | Urdina | 11.000 Km
- **Ford Focus TDCI 140 ZP** 20.500 €
  2011 | Diesela | Urdina | 0 Km.
- **Ford Kuga TDCI 140 ZP** 28.900 €
  2011 | Diesela | Beltza | 4.000 Km
- **Ford Focus STI 225 ZP** 14.500 €
  2006 | Diesela | Urdina | 80.000 Km
- **Audi A3 TDI 140 Sportbreak-SPORT** 18.900 €
  2008 | Diesela | Gorria | 89.000 Km
- **Seat Leon TDI 105 ZP Sport** 11.700 €
  2008 | Diesela | Beltza | 48.000 Km
- **Volkswagen Passat TDI 140 ZP Avant Trend** 12.800 €
  2006 | Diesela | Marroia | 98.000 Km
- **Mini Couper 1.6I - 115 ZP** 8.800 €
  2004 | Gasolina | Urdina | 89.000 Km
- **Seat Leon TDI 140 ZP** 9.700 €
  2006 | Diesela | Zuria |110.000 Km

28.700 €

> **Audi A4 2.0 TDI 143 DPF AVANT**
2010 | Diesela | 29.649 Km

Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70

- **Audi A3 1.9 TDI E DPF ATTRACTION** 18.400 €
  2010 | Diesela | Grisa | 24.634 Km
- **Volkswagen Bora 1.9 TDI CONCEPTLINE 100BHP** 7.900 €
  2005 | Diesela | Grisa | 131.000 Km
- **Renault Clio CAMPUS AUTHENTIQUE 1.5 DCI 65** 6.600 €
  2007 | Diesela | Txuria | 103.932 Km
- **Fiat Punto 1.9 JTD DYNAMIC** 3.900 €
  2002 | Diesela | Urdina | 176.372 Km
- **Audi A4 2.0 TDI E 136BHP DPF** 26.900 €
  2010 | Diesela | Beltza | 22.552 Km
- **Volkswagen Polo 1.2 ADVANCE** 10.500 €
  2010 | Gasolina | Txuria | 13.805 Km
- **Seat Exeo 2.0 TDI 120 PS DPF REFERENCE ST** 20.500 €
  2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- **Seat Altea XI 1.6 TDI 105 PS STYLE ECOMOTIVE** 19.500 €
  2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- **Skoda Scout 2.0 TDI Quattro** 25.500 €
  2010 | Diesela | Beltza | 5.300 Km
- **Seat Leon 1.6 TDI 105** 16.500 €
  2010 | Diesela | Grisa | 50 Km

17.250 €

> **Citroen C5 Hdi Premier 110**
2009 | Diesela | 38.000 Km

CHAPIME
San Andres auzoa 5.
ARRASATE
Tel.: 943 79 45 22.
CITROËN
Debagoieneko
Kontzesionario ofiziala

- **Citroen C3 Hdi SX PLUS 70** 5.250 €
  2004 | Diesela | Gorria | 78.000 Km
- **Citroen C3 Hdi Cool 70** 9.300 €
  2009 | Diesela | Grisa | 33.800 Km
- **Citroen C4 16i Colection110** 7.300 €
  2006 | Gasolina | Grisa | 37.700 Km
- **Citroen C4 Hdi Sport 110** 17.750 €
  2011 | Diesela | Txuria | 1.250 Km
- **Citroen Grand C4 Picasso Hdi SX 110** 14.7500 €
  2008 | Diesela | Beltza | 68.500 Km
- **Citroen Grand C4 Picasso EXCL Stop&Start** 24.500 €
  2011 | Diesela | Beltza | 500 Km
- **Citroen C5 Hdi Premier 110** 17.500 €
  2009 | Diesela | Beltza | 37.000 Km
- **Citroen C5 22Hdi EXCL CAS 200** 31.750 €
  2010 | Diesela | Grisa | 150 Km
- **Peugeot 307 Hdi SW 110** 13.250 €
  2008 | Diesela | Beltza | 33.500 Km
- **Peugeot 308 Hdi Sport 110** 12.500 €
  2008 | Diesela | Beltza | 58.500 Km

Iragarkia jartzeko: **943 25 05 05**

Bakearen aldeko kontzertua

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

LARUNBATA, APIRILAREN 30 EAN, 12:00 ETAN

Haurren lau koruk oso abesti ezagunak abestuko dituzte bakearen alde

Easo Eskolania (Donostia)
Donostiako Orfeoi Txikia
Bilboko Kontserbatorioko korua
Amici Musicae haurren korua (Zaragoza)

300 haur kantari

Sarrerak salgai:
· Servikutxa eta Kutxaren kutxazainetan
· Arantzazuko dendan
· Oñatin kultura etxean eta Turismo Bulegoan

Sarreraren prezioa:

15 €

Sarrera salmenta - Venta de entradas
CAJEROS SERVIKUTXA
943 00 12 00
www.kutxa.net

Azken eguna: apirilak 19!

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

bazkideendako 100 sarrera doan*
Deitu: 943 25 05 05
*Pertsona bakoitzeko bi sarrera.
Sarrerak agortu arte. Sarrerak jasotzeko azken eguna: apirilak 19

Babesleak: gizarte kutxa · ULMA · FAGOR INDUSTRIAL · IRIZAR

Antolatzailea: IPD MANAGEMENT

Laguntzailea: OÑATIKO UDALA

Hedabide laguntzailea: goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

KULTURA

Dantzak kalera atera eta herria dantzan jartzea izango da helburua

- Dantzari Eguna ospatuko dute bihar Arrasaten Arrostaitz eta Lore Gazteak taldeek
- Parte hartuko dute Antzuolako, Oñatiko eta Arrasateko bi dantza taldeek

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Beste behin ere dantza giroak hartuko du gure bailara. Aurten, Arrasaten ospatuko dute Dantzari Eguna. Arrasateko Arrostaitz eta Lore Gazteak taldeek dihardute biharko eguna antolatzen. Laguntzaile lanetan Arrasateko Udala eta Arrasateko gaitariak eta txistulariak dabiltza.

Antzuolako Oinarin, Oñatiko Oñatz eta Arrasateko Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeek parte hartuko dute biharko ospakizunean. Soraluzeko Urrats taldeak azken unean erabaki du ekitaldian parte ez hartzea.

Kalejira, guztiek batera

10:30ean hasiko dute eguna. Arrasatera etorriko diren dantza taldeei harrera egingo diete Herriko Plazan. Ondoren, kalejira egingo dute herriko kaleetan. Denek batera egingo dute kalejira.

Eguerdian alardea egingo dute. Dantzak izango dira: agurra, Bizkaiko dantzak, Markiña-Xemein eta gorulari, Gipuzkoako zintadantza, Lesakako dantzak, itaidantzak eta Arabako potpourria. Dantza batzuk guztiek batera egingo dituzte eta beste batzuk, taldeka. Hala, Markiña-Xemein eta gorulari Oñatz dantza taldeak egingo ditu; eta itai-dantza Antzuolakoak. Gainera, Bizkaiko dantzak eta Lesakako dantzak mutilek dantzatuko dituzte eta Gipuzkoako zinta-dantza, neskek.

Arratsaldean, berriro

Sara Merenderuen bazkaldu ondoren, 18:00etan berriro egingo dute alardea. Jota fandago (Arrostaitz), korrontxi (Lore gazteak), soinu zaharrak (neskak), Gipuzkoako dantzak, uztai handia (neskak), domingillo eta gorulari, Tuterako jota eta larrain-dantza egingo dituzte. Aurtengo berritasuna soinu zaharrak izango da: "Gipuzkoako pauso ezberdinekin muntatutako dantza da. Ikastaro baten izan ginen, soinu zaharrak ikasten", azaldu du Itziar Ruiz de Azuak, Lore Gazteak taldeko kideak. Oñatz dantza taldeko Jesus Irizar *Txutxin*-ek gaineratu du talde bakoitzak bere berritasuna izaten duela, eta horrelako ekitaldiak aprobetxatzen dituztela erakustaldiak egiteko.

Lore Gazteak taldeko neskak azken entsegua egiten. | A.E.

Ondoren, 'Herrixa dantzan'

Dantzari Eguneko ekitaldiak amaitu ostean, 19:00 inguruan, *Herrixa dantzan* ekitaldia egingo dute Herriko Plazan. Herritarrak dantzan jartzeko asmoarekin antolatutako ekitaldia da, eta horretarako plaza giroa sortuko dute Arrasaten.

Dantza tradizional herrikoiak egingo dituzte; horretarako, Jainaga eta Narbaiza trikitilarien laguntza izango dute dantzariek. Gainera, horrelako ekitaldietan ohikoa den moduan, Patxi Montero dantza irakasleak gidatuko du saioa.

Ez da lehenengo aldia *Herrixa dantzan* ekimena Arrasaten egiten dutena. Azkeneko aldiz Santamas jaietan egin zuten. Eguraldiak lagundu ez zuen arren –4 graduko tenperatura egin zuen–, 100 lagun inguru batu ziren Herriko Plazan dantza egiteko gogoz. Hortaz, antolatzaileek haur, gazte eta helduak animatu gura dituzte zapatuko ekitaldian dantzan egin dezaten.

DANTZARI EGUNEKO EGITARAUA

10:30 Harrera, Herriko Plazan.

12:00 Kalejira, herriko kaleetan zehar.

12:30 Alardea, Herriko Plazan.

15:00 Bazkaria.

18:00 Alardea, Herriko Plazan.

DATUA

140

LAGUN

Dantzari Egunean parte hartuko duten dantzari, txistulari, gaitari eta laguntzaileak izango dira.

Izan ere, erakustaldiak egitea izan zen Dantzari Eguna antolatzen hasteko asmoa.

Ezagutzera ematea

"Erakustaldiak egitea eta dantza taldeak ezagutzera ematea izan zen Dantzari Eguna antolatzeko helburua", azaldu du *Txutxin*-ek. Izan ere, dantza taldeek ez zuten herrian dantza erakustaldirik egiten. Hala, Dantzari Egunean zazpi talde hasi ziren; gaur egun, lau taldek jarraitzen dute: Oinarin, Oñatz, Arrostaitz eta Lore Gazteak. "Lanean bagabiltzala erakutsi gura diegu herritarrei", azaldu du Ruiz de Azuak. Herritarren aldetik harrera ona izaten duten ekitaldiak direla gaineratu du. "Baldintza bakarra euria izaten da. Euria eginez gero, Uarkapen izango dira ekitaldiak, eta horrelakoetan jende gutxiago batzen da", dio.

Orain dela bi aste Oñatin egin zuten entsegu orokorra dantza talde guztiek. Dena prestatuta dute, hortaz, Arrasateko kaleak dantza eta musikaz girotzeko.

(Sok)2 ikuskizuneko irudi bat. | KUKAI

Kukai dantza taldearen ikuskizuna domekan Amaia antzokian

Zazpi dantzarik eta hiru musikarik hartzen dute parte '(Sok)2' lanean; Jon Maya zuzendariak eta Pantxika Telleriak landu dute koreografia

EDU MENDIBIL | BERGARA

Dagoeneko hamar urte bete dira Kukai dantza taldea jatorri tradizionaleko ikuskizunak sortzen. *Deiadarra* izenburuko koreografiarekin ekin zion taldeak eta ondoren etorri dira, besteak beste, Tanttaka Teatroarekin elkarlanean ekoiztutako ikuskizunak: *1937, gogoaren bidezidorretatik* (Donostia Antzerki Saria 2003an), *Otehitzari Biraka* (2005) eta *Hnuy illa…* (2008).

Domekan *(Sok)2* ikuskizuna eskainiko dute Amaia antzokian, 20:00etan. Zazpi dantzari eta hiru musikarirendako pieza koreografikoa da *(Sok)2*. Hain zuzen, Jon Maya eta Pantxika Telleria koreografoen ikuspegia eta esperientzia batu dituzte eta musika orijinala da, Iñaki Telleriak sortutakoa. Esan bezala, zazpi dantzarik hartzen dute parte: Alain Mayak, Eneko Gilek, Ibon Huartek, Nerea Vesgak, Urko Mitxelenak, Vanesa Castañok eta Vivien Ingramsek. Iñaki Telleriaz gain, Oihane Igerabide eta Amaiur Cajareville dira musikariak. Arpa, kontrabaxua eta perkusioa jotzen dituzte hirurek.

Lokarri intimoak

Telleria eta Mayaren elkarlanaren lehenengo emaitza *Soka* kale ikuskizuna izan zen (aipamen berezia izan zuen Valladolideko Kaleko Arteen Jaialdian), eta *(Sok)2* ibilbidearen bigarren geldiunea da eta Bilboko Campos Eliseos antzokian estreinatu zuten. Jon Mayak izan du zuzendaritzaren ardura.

Soka da ikuskizunaren ardatza, zentzu fisikoan zein poetikoan. Izan ere, lokarri intimoak jorratzen ditu, irauteko asmoz behin eta berriro hasten diren momentu horiek bezala.

Hamar urteko ibilbide horretan artista ugarirekin lankidetzan jarduteko aukera izan du Kukaik, Juan Mari Beltran, Mikel Urdangarin, Iñaki Salvador, Carlos Nuñez, Jon Maia eta Andoni Egaña bertsolariak, Oreka TX edota Mireia Gabilondo antzerki eta zine zuzendari bergararra tartean. Eukal Herrian ez ezik, Argentinan, Txilen, Uruguain, Venezuelan, Estatu Batuetan, Kolonbian eta Erresuma Batuan erakutsi dituzte haien lanak.

Domekako emanaldirako sarrerak 10 eurotan daude salgai *www.generaltickets.com* webgunean. Domekan bertan Amaiako leihatilan salduko dituzte.

Kontu kontalarien pare bat saio zapatuan Kulturaten

'Munduko kontu kontalariak' jaialdiaren barruan

E.M. | ARRASATE

Munduko kontu kontalariak jaialdiaren barruan, bi emanaldi izango dira bihar, zapatua, Arrasateko Udal Bibiliotekan, Kulturaten: alde batetik, Jhon Ardila kolonbiarrak, Fanny Fuguet venezuelarrak eta Ainara Bilbao euskaldunak saioa eskainiko dute goizean, 11:00etan, Kulturateko areto nagusian.

Victoria Sliedki. | GOIENA

Bizkaian eta Arrasaten

Bestalde, arratsalderako, Lucas Napoles kubatarraren eta Victoria Siedleki argentinarraren saioa iragarrita dago. Jokin Zaitegi gelan izango da, 17:00etan. Asteburuan hainbat emanaldi egingo dira *Munduko kontu kontalariak* jaialdiaren barruan. Arrasaten ez ezik, Elorrion, Berrizen, Durangon, Basaurin eta Arrigorriagan ere izango dira emanaldiok gaur eta bihar, zapatua. Argibide gehiago *www.mundukokontalariak.com* webgunean dituzue.

Erakusketa Kulturaten

Kulturaten jarraituz, gogoratu beharra dago apirilaren 20ra arte ikusgai dagoela klaustroan *Liburu fantastikoak* izenburuko erakusketa.

Maite Toledo eta Jone Telleriaren 'Barrualdeak' Senperen

E.M. | ARRASATE

Jone Telleria bergararrak eta Maite Toledo antzuolarrak Lapurdin, Amotz-Senpereko Larraldea baserrian, *Barrualdeak* izeneko bilduma erakutsiko dute asteburuan. Inaugurazio bihar, zapatua, 18:00etan egingo dute. Ikus-entzunezko batek, 40 lanek eta hiru koadernotxok osatzen dute bilduma. Arteak kontatzeko duen gaitasuna aldarrikatu nahi dute bi egileek. Toledoren hitzetan, "*Barrualdeak* bildumako olerkiak ilustratzeko proposamena egin nionean baietz erantzun zidan Jonek eta gustura asko hasi ginen sormena eta antolaketa tartekatzen". Bestetik, helduendako eta gaztetxoendako bizikleta irteerak ere izango dira Larraldea inguruan hilaren 22an eta 24an. Argibideak: *alex.labaien@gmail.com*.

Maite Toledo. | GOIENA

korrika

Gu korrikako saioarekin bat!

GOIENA TELEBISTA / SAIO BEREZIAK
Apirilak 15, 22:15 / Apirilak 16, 18:30/21:30 / Apirilak 17, 22:00.

BABESLEA: EMUN LANA EUSKALDUNTZEKO KOOPERATIBA

LAGUNTZAILEAK: LASAGABASTER · JUBAR · ORTO + LAGUN ORTOPEDIA · DYKIENA JATETXEA · AKADEMIA BASTIDA · Garbittu · "la Caixa" BARTZELONAKO AURREZKI ETA PENTSIO KUTXA · KIMETZ Taberna · BEHI-ALDE ERKOP · ARGI-PLASTIK · ION leihoak · MIZKE GOZOKI ETA FRUITU EHIARRAK · Kanpazar · MILAR ELKORO · goiena KOMUNIKAZIO TALDEA · Gezi · Kutxa · Gertu · TXANTXIKU IKASTOLA · ALMACENES ARRASATE · ALDEDI FERRETERIA · XANTXIKU ELEKTRIZITATEA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Besteak beste, Jose de Azpiazu musika eskolaren akordeoi taldeak parte hartuko du. | GOIENA

Oñatiko Santa Anak Debagoieneko musika eskolak hartuko ditu gaur

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara, Soraluze eta Oñatiko musika eskolek parte hartuko dute; kontzertu bana eskainiko du talde bakoitzak

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Debagoieneko musika eskolek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Oñatin. Hain justu ere, Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Bergarako, Oñatiko eta Soraluzeko musika eskoletako 50 ikasle inguruk parte hartuko dute; 12 irakaslez lagunduta egongo dira. Santa Ana antzokian izango da musika emanaldia, 18:30ean.

Arrasate Musikalen izenean Eider Gonzalez, Joseba Gomez, Maider Alzola, Paula Heriz, Amaia Garro eta Irati Erostarbe igoko dira agertokira. *Ave Maria Guarani*, *Palladio*, *Minuet y trio* eta *Aldapeko* piezak joko dituzte. Bergarako musika eskolari dagokionez, Uxue Olaziregi, Bittor Poza, Paul Azkargorta, Irati Olaziregi eta Maitane Muxikak erritmo mugituagoak aukeratu dituzte; Green Day taldearen *21 guns* eta Ramonesen *I just wanna have something to do* eta *I wanna be your boy friend* eskainiko dituzte, Josi Labajosen aginduetara.

Klasikoak

Bestalde, Saioa Uribe, Nerea Bastardo, Itziar Unanue, Henar Valor, Goizane Zubizarreta eta Alazne Abadek Eskoriatzako Beheko Errota ordezkatuko dute, Araceli Telletxea zuzendari moduan ondoan dutela; Beethovenen *Europaren eresertzia* eta Luis Elizalderen *Ama* eskainiko diete antzokian batzen direnei.

Aretxabaletako Leizarrakoek, ostera, Eskoziako folka eroango dute Oñatira, *John Ryans Polsk* eta *The Bridal* kantuekin. Lia Etxeandia, Oier Aizpurua, Sinead Nelson eta Maria Jakak parte hartuko dute, Nika Bitchiashviliren esanetara.

Oñatitik akordeoi orkestra izango da agertokira igoko dena. Hiru pieza joko dituzte oñatiarrek: Jonh Lennon eta Paul McCartneyren *Let it be-hey jude*, Habaneraren *La paloma* eta Zeno Brechtingerren *Uh! cha-cha-cha*.

Harremana sendotzeko

Dagoeneko zortzigarren aldia da bailarako musika eskolen topaketa egiten dena; Oñatik birritan hartu du hori. Jose de Azpiazukoen esanetan, "bailarako musika eskolen arteko harremanak sendotzeko eta mantentzeko modu oso egokia da".

DATUA

64

PARTAIDE

Horixe da gaurko ekitaldian parte hartuko duten lagun kopurua.

'Clown' ikastaroa eskainiko du Aste Santuan Oihulari Klownek, Bergaran

M.B. | ARRASATE

Oihulari Klown antzerki taldeak formazio ikastaroa antolatu du Aste Santurako, nork bere *clown* ezkutua ezagutzeko. Bi ikastaro eskainiko ditu: batetik, hilaren 21ean eta 22an, *Clown eta emozioak* izenekoa egingo dute, Bergaran. 18 ordu iraungo duen ikastaro hori *clown* kodigoa ikasi eta Oihulari Klown taldearen lana ezagutu nahi dutenei dago zuzenduta.

Bestetik, hilaren apirilaren 22tik 25era bitartean, *Joko egiturak bitara* izeneko ikastaroa eskainiko dute. *Clown*-lana egiteko metodoak jorratuko dituzte, eta estruktura nagusiekin jolasten ikasiko dute, besteak beste, 27 orduko ikastaro horretan. Umorearen bidez, bakoitzak barruan duena ateratzeko aukera paregabea izango dute modu dibertigarrian parte-hartzaileek.

Egun osoko eskolak

Interesatuek 943 76 97 90 edo 607 20 45 03 telefono zenbakiera deitu behar dute, edo *oihulariklown@oihulariklown.org* edo *virginiakarmelo@euskalnet.net* helbidera idatzi. Lehenengo ikastaroaren prezioa 200 euro da; bigarrenarena, 290; eta biena, 420 euro. Eskolak egun osokoak izango dira: 10:30etik 15:00etara eta 16:30etik 21:00etara bitartean.

'Kooltur Ostegunak' ekintzak Cobra ekarriko du hilaren 28an gaztetxera

M.B. | ARRASATE

Kooltur Ostegunak ekimenaren harira, Cobra taldeak joko du apirilaren 28an Arrasateko gaztetxean, 22:00etan. Rocka eta metala batzen dituen Euskal Herriko talde horrek bigarren lana aurkeztuko du: *Thriller* izenekoa.

Haritz Lete (Kokein taldeko bateria-jotzailea), David Gonzalez (Berri Txarrak taldeko baxu -jotzailea), Ekain Elortza (Dinero eta Seiurte taldeetako bateria -jotzailea) eta Josu Luengok (Evirus69 taldeko gitarra-jotzailea) osatzen dute taldea. 2006an sortua, handik urtebetera *The strong arm of the rock* lehen diskoa kaleratu zuten, Marion Cobretti Recordsen eskutik.

Bigarren diskoa Kaiowas Records Bartzelonako diskoetxean grabatu dute. Energiaz betetako hamar kantu aurkeztuko dituzte, Black Sabbath eta Deep Purple talde klasikoen eta modernoagoak diren Clutch, Soundgarden, Metallica, Down eta Mastodonen eragina dutenak.

Horretaz gainera, Arrasateko gaztetxearen 20. urteurrenaren harira, *Jonas que cumplir los 25 en el año 2000* filma ikusi ahalko da hilaren 20an, 19:00etan.

Haizea Agirre | Ingurumen Zientzian lizentziaduna

"Bi urte egon nintzen Araba aldean bisoi europarrari txip bidezko jarraipena egiten"

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Haizea Agirre (Oñati, 1985) Ingurumen Zientzietan lizentziaduna da. Gasteizen egin zituen ikasketak, eta ordutik hona animalia artean ibili da lanean. Egun, neska-mutikoekin dihardu Natur Eskolan. Iaz, Kenyan egon zen GKE batekin lanean, eta orduan egindakoa blog baten jaso du. Ingurumenaz egin dugu berba harekin.

Ingurumen Zientziak. Ez da hori ohiko karrera. Zergatik aukeratu zenuen?

Nahiko ezezaguna zen eta da. Nik egin nuenean hirugarren promozioa izan ginen. Eta aukeratu nuen, ingurumena eta natura gustuko nituelako. Oso garbi nuen zer ikasi gura nuen. Gainera, *ingurumen* hitzak esparru zabala hartzen du. Ez zara gai zehatz baten zentratzen. Horregatik guztiagatik erabaki nuen karrera hori egitea.

Lan egiteko orduan, zertan ibili zara?

Orain arte, animalia artean. Ikasketak bukatu eta Austrian egon nintzen zazpi hilabetez. Danubio ibaiko hegazti urtarren jarraipena egiten egon nintzen hango parke natural baten. Handik Italiara joan nintzen. Itsalsaldeko Alpeetan parke nazional baten egon nintzen ugatzaren jarraipena egiten.

Austriako eta Italiako parke naturalek badute zerikusirik hemengo parkeekin?

Ni parke nazionaletan egon nintzen, eta hemengoekin alderatu askoz handiagoak ziren. Egitura aldetik nahiko antzekoak, baina han diru gehiago dute halako kontuetarako.

Eta, etxerako bueltan, bi urte egon zinen Araba aldean arrasto bila. Baina zeren bila?

Bisoi europarraren atzetik ibili nintzen. Bi urterako proiektua zen eta gure helburua zen gatibutzan hazitako bisoi europarrek zenbateko bizi iraupena zuten ikustea. Horretarako, txipa jarri eta Salburuan (Araba) askatu genituen. Gehienak Arabako erreketan ibili ziren, baina banaka batzuk Nafarroaraino heldu ziren. Gainera, proiektu hartan egon nintzen artean, udazkenean eta neguan, bisoi amerikarrari aurre egiten ibili ginen. Espezie inbaditzailea da, eta tranpak ipintzen genituen haiek akabatzeko. Bisoi europarra babesteko modua zen, galzorian dagoen espeziea da. Europa mailan, Ebro ibaian dago populazio onena: Nafarroa, Araba eta Errioxa aldeko zatietan.

Iaz Kenyan egon zinen GKE batekin lanean.

Lankide boluntario moduan egon nintzen, Eusko Jaurlaritzako beka batekin, ikuskari lanak egiten.

Han egindakoarekin eta ikusitakoarekin blog bat egin zenuen.

Bai, hala da. *Haizeaburuantaibilimunduan.blogspot.com*.

Ez duzu ohiko karrera egin eta lanak ere bitxiak dira. Zer esan dizute etxekoek eta lagunek?

Ba, izan ditudan lanekin harrituta geratu dira. Askotan esan didate ea ze demontre egiten dudan animalia artean!

Animaliekin hasi zinen, eta orain neska-mutikoekin diharduzu Natur Eskolan irakasle moduan. Aldaketa ederra!

Ba, bai. Ingurumenaren kontserbazioan jardun ondoren, orain irakasle lanetan dihardut. Ingurumen Hezkuntza lantzen dut neska-mutikoekin.

Gustura?

Bai. Egia esan, gogoz nengoen irakasle lanetan ibiltzeko. Oso aberasgarria da: zuk ikasleei ematen diezunagatik, eta eurengandik jasotzen duzunagatik.

Ingurumenarekiko duzun kezkak eraman zaitu Zero Zabor plataformako kide izatera?

Nik esango nuke baietz. Zaborra arazo larria da. Zubietan erraustegia egitekotan dabiltza, eta hori ez da ona, ez ingurumenarendako, ezta osasunerako ere; eta ekonomikoki, zer esanik ez.

Egia esan, talde dotorea osatu dugu, eta bileretan nahiko lagun elkartzen gara.

Nolakoa da gure ingurumena?

Arabakoa Gipuzkoakoa eta Bizkaikoa baino askoz hobea da. Errekak garbiagoak eta naturalagoak dira. Gipuzkoako mendietan pinuak dira nagusi.

MARRA AZKARREZ

Bidaiatzeko leku bat: Edozein toki. Leku guztiek dute zerbait berezia. Leku guztietan topa dezakegu zerbait bitxia.

Bizi izateko lekua bat: Euskal Herria.

Janari gustukoena: Patatak, edozein modutara prestatuta: frijituta, egosita, saltsan...

Oñatiko ingurune bat: Aitzulo ingurua oso polita da.

Kolore bat: Berdea eta morea.

Kirol bat: Mendian ibiltzea atsegin dut.

Animalia bat: Ipurtatsa.

Sare sozialak: Facebook.

Haizea Agirre bisoi europarraren arrastoa jarraitzeko liburuarekin.

MIREIA BIKUÑA

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. 72 metro eraikiko etxebizitza salgai. 50 metro koadro erabilgarri. Erdigunean. Jantzia. Prezio negoziagarria. 659 64 67 38

Arrasate. Etxebizitza salgai Zarugalden. Hiru logela, bikomun eta egongela handia. Oso eguzkitsua. Igogailu eta berokuntzarekin. 618 19 10 95 edo 646 97 36 79

Eskoriatza. Gaztainadui 27an logela bakarreko apartamentua salgai. Erdi jantzia. Garaje itxia aukeran. Interesatuek deitu zenbaki hauetara:650 95 56 44 edo 943 08 14 90

Oñati. 60 metroko etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. Bi logela, komun bat eta sukalde -egongela. Guztiz hornitua. Prezio negoziagarria. Mesedez, gauetan deitu zenbaki honetara:699 78 47 49

Oñati. Kalebarria 37an 71 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna, guztiz hornituak. Patio erabilgarria eta ganbara. Garaje itxia aukeran. Prezio ona. Interestuok deitu zenbaki honetara:665 71 77 98

Oñati. Kalebarria 54an, Etxaluzen, etxebizitza salgai. Sukaldea, trastelekua, bi balkoi, lau logela, bi komun, egongela edo jangela, ganbara, igogailua. Garajea aukeran. Prezio negoziagarria. 647 24 80 02

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Malvinetan. Hiru logela eta bi komun dauzka. 20:00etatik aurrera deitu.943 79 70 07 edo 687 60 51 24

Arrasate. Kontzezino kalean etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. Hiru logela, egongela, sukaldea, bi komun, igogailua, berokuntzarekin.. Interesatuok deitu zenbaki honetara:626 58 31 17

104. ERRENTAN HARTU

Bergara edo Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan.617 12 61 44

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Bainugela duen logela ematen da errentan. Etxe berria. Interesatuok deitu zenbaki honetara:682 70 32 17

Aretxabaleta. Logela daukat errentan emateko, neska ikasle batentzat. Ni ere neska naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara:639 21 60 95

Arrasate. Logela ematen da errentan sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Deitu 618 00 08 28 telefonora.

Arrasate. Pertsona euskalduna behar da erdialdean dagoen etxebizitza osatzeko. Jone.636 05 36 18

Bergara. Herri erdialdean hiru logelako etxe bat betetzeko pertsona bat behar da. Aitor eta Jon.608 42 23 51 edo 628 45 10 37

Bergara. Logela bat ematen da errentan Bolun. Deitu 670 85 86 68 telefonora.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garajea irekia salgai Loramendi kalean. 4,76X2,50 metro kuadro. Interesatuok deitu zenbaki honetara:943 79 93 77

Bergara. Ibargarai kalean (Torrekua erretegiaren ondoan) garaje itxia salgai. Prezioa 7.000 euro. interesatuok deitu zenbaki honetara:605 77 57 33

3. LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Oñatin. Negozio berri bat jartzeko 60 metro koadro inguruko lokal bat hartuko nuke errentan.943 53 28 15

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Pertsona euskalduna behar da ume bat zaintzeko, 17:00etatik 20:00etara. Deitu 679637391 edo 679 63 73 91 telefono zenbakietara.

ARRASATE
Ile-apaintzailea behar da.
943 79 79 65

BERGARA
Asteburuetarako zerbitzaria behar da. Euskara ezinbestekoa.
943 76 70 11

OÑATI
